



ataramiñe'05

EUSKAL ERREPRESALIATU POLITIKOEN
LITERATURA KOADERNOAK



ataramiñe

EUSKAL ERREPRESALIATU POLITIKOEN
LITERATURA KOADERNOAK

AZALAREN IRUDIAREN EGILEA
Kerman Urizar De Paz



Lege gordailua
Depósito legal
Dépot légal

ataramiñe 2005

Aurkibidea

Sarrera:	5
Jon Mintegiaga Oiarbide: Poemak.....	9
Jokin Urain Larrañaga: “Galduen ostatukoak, Asmodeoarenak”.....	13
Iñaki Gonzalo Casal: “La nieta del carnicero” eta “Iragana”.....	27
Manuel Quintans eta Aitor Lorente : “Herioa”.....	33
Amaia Urizar de Paz: “Atxiloketaren hitz-gurutatuak”.....	45
Kerman Urizar de Paz: “De prisión a prisión” eta marrazkiak.....	49
Xabier Aranburu Muguruza: “Naufragoa”.....	53
Joxe Blanco Gomez: “Basajaunarekin topo egin nuenekoa”.....	57
Kristina Goirizelaia Gonzalez: Poemak.....	63
Iñaki De Juana Chaos: “El escudo” eta “Gallizo”.....	75
Galder Bilbao Martinez: Bertsoak.....	85
Aritz Saez Insausti: Poema.....	91
Joxe Karlos Apeztegia Jaka: “Ehiztariei buruzko istoriotxo bat” eta beste.....	93
Olatz Caminos Uribe: “Mona Lisa”.....	115
Igor Letona Biteri: Poemak eta “Bele kabroiak”.....	129
Naiara Mallabia Sanchez: Poemak.....	153
Aitor Fresnedo Gerrikabeitia: Poemak eta “Gazta baten truke”.....	159
Peru Alvarez Fdez. de Mendi: Poemak.....	183
Joseba Sarrionandia Uribelarrea: Poemak.....	187
Oskar Barreras: “Legokioken horri, orori”.....	195
Claude Recart: Poemak.....	203
Txomin Troitiño Arranz: “Txoritxu eta dortokak”.....	207
Fernando Alonso Abad: “Para que se sepa”.....	213
Josu Ginea Sagasti: Marrazkiak.....	227
Joseba Arregi Erostarbe: Marrazkiak eta “Burkideen zuhaitza”.....	231
Jose Luis Barrios Martin: Marrazkiak.....	235
Jon Bienzobas Arretxe: Marrazkiak.....	239
Edorta Jiménez: Lauaxeta omenduz: “Nik neuk ez dut zalantza izpirik”.....	245
Estepan Urkiaga Basaraz “Lauaxeta”: Poemak eta marrazkiak.....	251



COPYLEFT

Publikazio hau copyleft erakoa da. Beraz, bere edukiak zabaldu, aipatu eta hitzez hitz kopiatu daitezke, osorik zein zatika, edozein medio erabiliz eta edozein helburu lortzeko, ohar hau mantentzen eta jatorria aipatzen den bitartean.

LAUAXETAREN ARGAZKIAK: “ABERTZALETASUNAREN AGIRITEGIA. SABINO ARANA KULTUR ELKARGOA”.

Sarrera

Esku artean duzun liburua, “Ataramiñe”-ren laugarren alea duzu, euskal preso politikoek giltzapetik bidalitako idazlanez osatzen den liburua, “Ataramiñe”-n parte hartzen duten guztientzat zinez liburu berezia, hau ez baita beste liburu batzuen modukoa. Norbaitek pentsa lezake “Ataramiñe” garrantzirik gabeko liburua dela, euskal presoek lanak kalitaterik gabekoak direlako, baina hau ez da egia: “Ataramiñe” euskal presoena da eta era honen bidez euskal presoek dituzten amets, itxaropen, poz, tristura, pena, kezka eta ilusioen berri kanpokoei zabaltzeko bidea sortzen da, tresna ezin egokiagoa bihurtzen baita helburu horren bila.

“Ataramiñe” euskal presoek idazlanen bilduma da, Euskal Herriari egindako ekarpena, ziega bakoitzaren bakardadetik sortzen den ekimen xumea baina aldi berean biziki garrantzitsua.

Euskal presoak ez dira idazle profesionalak, baina honek ez du esan nahi euskal presoek idatzitakoak kalitaterik gabekoak direnik, ez horixe. Zerbait adierazteko ez da ezinbesteko baldintza bere buruaz maitemindutako idazlea izatea, adierazteko zerbait izatea baizik, eta euskal presoek gauza asko daukate esateko. Zenbaiten ustez, “Ataramiñe” ez da inoiz idazle ospetsuek idatzitako liburuak bezain garrantzitsua izango, baina honela uste dutenek ez dakite “Ataramiñe” zer den, ezta honen atzean zer dagoen ere, liburu honek hartzen duen garrantziaren tamaina neurtzeko modurik ez baitago.

Baina zergatik idazten dute euskal presoek? Galdera honi erantzuteko arrazoi ezberdinak egon badaudela esan beharko litzateke. Euskal presoek nolabaiteko sentimenduak eragin nahi dituzte beraien lanak irakurriko dituztenengan, hunkidura zehatza, unetxo batez besterik ez bada ere espetxea zer den senti dezaten. Presoek egunero bizi duten errealitatearen zatitxo bat sentiarazi nahi diete kanpokoei. Askotan esan da ezin dela hitzen bidez espetxean egotea zer den adierazi, hori azaltzeko hitz egoki eta nahikorik ez baitago, horrela-ko egoera bizi egin behar delako, baina “Ataramiñe” ahalegintxo da bide horretan, ahalegintxo garrantzitsu bat.

“Ataramiñe” euskal presoak kanpokoarekiko lotzen dituen leiho baten antzekoa da, zubi lana ziurtatzen baitu barrukoen eta kanpukoen artean. Euskal presoek adierazi nahi dute bizirik daudela eta edonork dauzkan amets eta itxaropen berberak dauzkatela: “Aizue, hemen gaude, bizirik gaude eta badugu zerbait esateko”.

Espetxean idaztea presoari ezartzen zaion bakartze egoera gainditzeko modu egokia da, presoak bere burua askatu egiten baitu nolabait idaztean, eta zenbait kasutan ere beharra bihurtzen da idaztea, kanpoan daudenei zerbait adierazteko beharra. Euskal presoek jakin badakite espetxean egindako idazlanek hartzaileak izanen dituztela espetxetik kanpo, Euskal Herriko hiri eta herrietan, “Ataramiñe” euskal presoek Euskal Herriari egindako ekarpena baita, presoek eki-

mena Euskal Herri osoari eskainia, Espainia eta Frantzia aldeko espetxeetako ziegetatik zabaltzen den mezua, herri ukatu baten askatasunaren aldeko mezua.

Preso ohi batek esan zuen behin bidaltzerik ez zuen gutunak idazten zituela bakardadeak sortutako egoera latza gainditzeko, eta euskal presoek egindako liburu honetan agertzen diren idazlanen bidez espetxeak ezartzen dituen muga eta oztopoak gainditu egiten dira, “Ataramiñe” lokarria bihurtzen baita batzuen eta besteen artean.

Hortaz, euskal presoek berri era zuzen baten bidez jakin nahi duenak badaki “Ataramiñe” irakurtzea ezinbesteko zaiola. Euskal presoek ez dute amore ematen giltzapean egonda ere, eta idazten jarraitzen dute idaztea borrokatzeko era bat baita presoentzat.

“Ataramiñe”-n parte hartzen duten euskal presoek makina bat oztopo gainditu behar dituzte, ez baita inolaz ere erraza idazlana presatzen denetik argitaraturik ikusi arteko bidea, oztopoak ugariak direlako.

Espetxean idaztea bakarkako ariketa da eta giltzapean idaztea ez da gehienetan batere kontu erraza izaten, baldintzek ez dutelako laguntzen giro egokia sortzen. Tentsioa, zarata, istiluak, oihuak eta abarrek eguneroko ogia dira espetxe askotan. Lasaitasuna ez da giltzapeko sasi munduan erraz aurkitzen den zerbait, errazago baita tentsioa eta istilua aurkitzea lasaitasun egokia baino.

Giltzapeko literatura ezkutuko literatura da askotan, ezkutuan idatzi behar baita gehienetan. Oztopo eta muga ugari gainditu behar dira espetxean idazteko, idatzitakoa ezkutuan gordetzeko eta espetxetik ateratzeko. Euskal presoek ziegaren bakardadean idatzi behar dute eta ziegetan egindako miaketetan idazlan asko galdu egiten dira kartzelariak eramanez, are gehiago euskaraz idatzita egonez gero, hizkuntza hau zeharo susmagarria baita kartzelarien begien aurrean.

Bestetan, ez da erraza izaten idazteari ekitea, egun guztiak berdinak ez direlako, eta zenbaitetan gogorik ez dagoen tokitik gogo pixka bat atera egin behar da zerbait idatzi ahal izateko, baina ahalegin hori egiteak merezi du “Ataramiñe”-ren bidez euskal presoak kanpoko jendearekiko lotzen dituen leihoa zabaltzen baita, presoek usteak, sentimenduak, kezakak, beldurrak, ametsak, tristurak eta ilusioak kanporantz bideratzeko bide berezi eta kuttuna, “Ataramiñe” sortu zenetik euskal presoak ez direlako horren bakartuak sentitzen. Izan ere, barrukoak eta kanpokoak nolabait hurbiltze, horixe da “Ataramiñe”-n parte hartzen duten guztien helburua, eta helburu hori lortuko delakoan, hortxe duzu, irakurle, euskal preso politikoei egindako lanaren emaitza den liburu honen laugarren alea.

Besterik ez. Honelakoetan esaten den bezalaxe, ongi esanak kontuan hartu eta gaizki esanak barkatu. Ongi izan.

*Joxe Karlos Apeztegia Jaka
Huelvako espetxetik*



Jon Mintegiaga Oiarbide

1979

Ibarra

2000tik dago kartzelan.



C.P. Madrid II
Cumplimiento
28880 Alcalá de Henares
Madrid

1.

Bart ekaitza egin du berriro
eta jendeak ohi duenez aterkiak ireki ditu.
Moeta guztietakoak ikusi dira:
beltzak, beixak, koloretazkoak
eztendunak edo gabeak, sendoak eta ahulak,
kirten kurbatukoak, bilgarriak, automatikoak,
baita propagandakoak ere.
Ekaitza pasa da
eta teilatu ixkinetako erretenek
tantaka jarraitu dute
hezetasunaren ubide diren
asfaltoetako arraildura irregularrak sakonduz.
Aterkiak alperrik dira
oinetatik hozten garenean
eta urteak dira, mendeak
mela-mela gabiltzala.
Gurean zoru bustiaren gaiñean
egiten du euria,
lehor dezagun zorua.

2.

Ur handietan murgildu giñen
hainbesteraino
non izaki abisalak izatera kondenatu gaituzten.
Zulo hauetara
eguzki printzak nekez ailegatzen dira
beranduago azalduz eta lehenago ezkutatuz,
udak beroagoak dira
neguak hotzagoak,
eskakizun ttikienak ere
burokraziaren hareetan zaizkigu trabatzen
bizi nahiak berriz
giro dentsoak dizkigu endurtzen


Existentzia gazi hontatik
bizitza urrun, han goran
transluzido antzera nabari da.

3.

Bizitzatik zatozenok
konprendi ezazue gure beldur, distantzi eta uzkurkeria,
belatz begi hauen mesfidantza;
Zakarkeriatik babesten gaituen
oskola jantzita bizi gara
tartera bakarrik burua azaltzen dugula.

Ukitzeko parada izaten dugun gutxietan
etzaitezte lotsatu arren
Eta egiguzue maitte-maittea
umeei katuei egiten dien bezela;
urrumaka erantzungo dugu lehenbizi
baina soltatuko gara pixkanaka,
ikusiko duzue.

Egiguzue maitte-maittea mesedez
humanoak izaten jarraitzen dugula
baieztatzeko.



Jokin Urain Larrañaga

1959

Mendaro

1986an atxilotu zuten.



C. P. La Moraleja
34210 Dueñas
Palencia

Galduen Ostatuak, Asmodeoarenak

Galduen Ostatura bazenik ere ez genukeen jakingo baldin eta, behinola, Joxe Txurtxari jarraituz iritsi izan ez bagina bertara.

Beste historia batek kontatzen du Joxe Lean nola iritsi zen herrira eta nola geratu zen tren geltokian noraezean, amama, ama eta etxea bera ere galduta, izenaren erdia ere galduta, eta nola Joxe Txurtxa deitu zion bere buruari.

Badakigu egun batez goizko lehen trenera igota joan zela Joxe Txurtxa herritik, eta harrez gero ez dugu izan bere berririk. Esan genezake negu gorriko gau hotz bateko ametsak erakutsi ziola bidea Joxe Txurtxari, izarretatik iritsitako errebelazioaren gisan, eta horregatik joan zela, auskalo nora. Egunen batean aurkituko ditugu agian haren aztarnak, edo galduta bidearen bila bide galduetan dabilenen batek topo egingo du berarekin eta hark kontatuko digu zer atarramentutan dabilen. Bidea nahastuta eta atseden-lekurik gabe unibertsoan zehar alderrai doazenak eta galdu-tako etxe edo izen bila dabilzanak sarritan topatzen baitute elkar.

Modu horretan elkar topatutako gehiago ere baziren Galduen Ostatuan Joxe Txurtxaren garaian, eta hantxe jarraitzen dute oraindik, gerora iritsi diren beste batzuekin batera. Bezero horietako bakoitzak bere zale-tasuna du, bakoitzak bere joera, ohitura edo dena delakoa.

Luxiok, esate baterako, bi-hiru aldiz elizara joaten jarraitzen du; Asmodeok ezin izaten du goizero kaira joan etorri bat egin gabe; Xeberok historia eta kontakizun bila ibiltzen da hara eta hona, herriko txoko guztietan gorrarena eginez eta entzuten duen guztia gogoan gordez... Eta eguneroko osteratxoaren ondoren denak itzultzen dira Galduen Ostatura, batzuk lehentxeago eta besteak geroxeago. Baina ez han elkartzeko hitzarmen edo agindurik dutelako, bakoitzak bere arrazoi ezkutua duelako baizik haraxe itzultzeko eguneroko ibilaldi luze edo laburraren ondoren. Galdutako izena, bidea edo etxea topatzeko giltzarria hantxe aurkitu dutelako uste dutelako agian.

- Gauen bateko ametsen geure altxor galdua aurkitzeko itxaropenez gu ere -esan zezakeen Luxiok, Joxe Txurtxaren ametsa gogoratuz.

- Altxor galduak ez dira ametsetako errebelazioekin aurkitzen, besteen isilpekoei estalkiak kenduz baizik -erantzungo ziokeen orduan Lukariok, begi zeharka eta zorrotz.

Baina Luxiok ez zuen halakorik esan, ez zekielako Joxe Txurtxaren ametsaren berri eta, beraz, Lukariok ezin eman halako erantzun zorrotzik. Kontalariaren asmamena izan da guztia, zinezko historiari fantasia apur bat -hipotesi bat esango luke idazle ikasiak- emateko saiakera.

Badaezpadako kontuak dira ordea horiek, eta ez genuke fantasietan nahastu behar; Galduen Ostatu bezeroen historiak eta berriketak galtzera arriskatzen garelako eta bezero horietako bakoitzak baduelako bere arrazoi ezkutu edo agerikoa bertara joateko, lehen ere esanda utzi dugun moduan.

- Zure sekretua sekretu izatea nahi baduzu, zerorrek gorde behar duzu -esan zion Asmodeok Luxiori, antigoaleko maisuren bati ikasitako esaldia erabiliz.

- Baina inori kontatu ezinik gorde eta gorde egiten duzun sekretua, leher-tu egiten da azkenean isilaren isilez -erantzun zion Luxiok.

- Zer sekretu? Zer isilpeko? -galdetu zion Xeberok albotik.

- Mutua banintz sikiera, gorraizea izan ordez -bota zion Asmodeok haserre samar:

Xeberok ez zen ordea besteek uste bezain gorra edo gorrairea. Belarria erne ezarri ohi zuen historiaren bat kontatzen ari ziren lekuan, eta ondo aditzen zuenean ere "eee?" edo "zeer?" galdetzen zuen, norbaitek kontatutako historia hura xehetasun txikienarekin ikasi ahal izateko.

Ez dakigu ezkutuko zer historia zuen Xeberok berak, oraindik inork ez digulako kontatu; baina bera zen, inor izatekotan, Galduen Ostaturan elkartzen zirenen historiak ongien ezagutzen zituen. Bere altxor propioa betirako galdua zuela etsita, besteenen bila aritzen zela esan daiteke. Besteen izen eta izan galduen historiak, tximeletak legez hegaldi urdurian ibiltzen diren edo haizeak ahoz aho eraman eta ekartzen dituen historia galkorrak biltzen zituen Xeberok. Galduen historiak eta historia galduak. Haien bila aritzen zen, "zeer?" eginez noizean behin, bere bilduma osatzeko. Bilduma hartako historioak kontatzen zituen gero, eta horrela iritsi da gureganaino Asmodeoren historioa esate baterako.

Bere sasoian arrantzalea izan zen Asmodeo. Baina zaputxu handi bat, disgustu handi bat sufritu zuen behi itsasoan, eta ez zen gehiago ontziratatu, ez itsasora joan. Hala ere, itsasoko urei lotuta jarraitu zion, bularrean sartzeko baino maitasun handiagoa isilpean bizi izan duenaren bihotza betirako maitasun horren gatibu geratzen den moduan. Horregatik joaten zen goizero kaira eta itsasoari begira egoten zen handik, urrutian izurderen baten jauzia noiz ikusiko marrazoren baten hegala noiz agertuko.

Galduen Ostatura joaten zen gero, begietan itsas-ihintza zuela artean.

Ezin zuen etsi goizero kaira joan gabe.

Izurdeak zituen gustuko txikitatik. Izurdeen ibilera, igeri egiteko modua, uretatik gora jolastiak egiteko modu hura gustatzen zitzaion Asmodeori. Izurdeen estetika, hitz bitan esateko. Dotoreziaren eredu eta adibidetzat zeukan izurdeen igeriketa. Itsasoan zenean ordu luzeak ematen zituen ontziaren brankan, zutik izurdeen jauzi eta igeriketa zoragarri haiei begira. Nola ez miretsi itsaso ozeanoan ontziaren bidean mulizkan zihoazen itsastar haiek!

-Batzutan begiek ematen digute zoriona —egiten zuen Asmodeok bere baitarako, izurdeek eskaintzen zioten ikuskizunarekin pozez zoratzen.

Izurdeen ondoren, marrazoak ziren bere ustez itsastarrik ederrenak, ausartenak, bai ur txikitatu bai ozeano handietan.

- Ederrak! Ederrak dira; izurdeak baino are ederragoak iruditzen zaizkit batzuetan —esaten zuen marrazoak ikustean—. Edozer jateko modua dute. Eta hortzak, zelako hortz ederrak; izurdearenak aldean ederrak... misterio puntu bat ere badute gainera, itsastarren artean beste inork ez bezalakoa. Marrazoen igeriketa hori, ordea, itxurosoa, ez da izurdearena bezain aidoso eta jolastia, hurrik eman ere! Ez du dotoreziarik marrazoen igeriketarik —esango zuen bere baitan zaputxu ukitu batekin.

Asmamen eta ekimen handiko gizona zen Asmodeo itsasoan zebilen sasoi hartan, eta bururatu zitzaion izurdeen antzera igeri egiten erakutsi behar ziela marrazoei. Askori erakutsi beharrik ez zuen izango gainera; bakar batzuei erakutsiez gero, beraiek erakutsiko zieten euren senidei, eta berehala ohartuko ziren izurdeen erara igeri egiteak dotorezia aparta zuela. Itsastarren artean parekorik gabeko dotorezia inola ere.

Lan handia ematen zuen, baina ez ezinezkoa, eta merezi zuen ahalegin sendo bat egitea. Ziur zegoen naturaren hutsegitea zela, Oroegilearen utzikeriaren ondorioa izan behar zuela marrazoen igeriketa baldar hark, eta ukitu bat behar zuela zuzentzeko. Nahikoa izango zen ikututxo bat.

Marrazokumeekin hastea erabaki zuen, bazekielako langintza zaila izaten dela abere zaharrari ibilera berria erakustea, gizakien artean ere ondo frogatua dagoenez.

Herritik urrutira gabe zegoen itsasadarreko ur txikitatu ekin zion langintza berriari. Itsasadarreko ur mehe eta geldia haietara inguratzen baitziren marrazokumeak, Asmodeok ondo zekienez. Marrazokumea harropatzea izan zen aurreneko egitekoa, eta harropatu ondoren listiarekin lotzea. Laster ohartu baitzen abere labain eta iheskorrak zirela haiek eta motzean hartu ezean ez zuela arrakastarik izango bere ekimen berrian.

Gerri ingurutik lotu zuen beraz marrazokumea, eta uretara itzuli. Buerdaka eta lainera gaiztoan hasi zen piztia gerri bueltan listariaren lotura somatu zuenean; ez zirudien etsiko zuenik, baina temosoan temosoa zen Asmodeo eta gogor eutsi zion, harik eta marrazokumea poliki poliki mantsotzen joan zen arte, azkenean listariari men agin arte.

Listaritik eutsiz bere itzulian ibiltzea behartu zuen orduan piztia, makila luzexka batekin zirikatuz eta animuak emanez.

Abiadura dezentea hartu zuenean, tirakada bat eman zion listariari, eta marrazokumeak izurdeen antzera jauzi egin zuen uretatik gora. Berriro ere abiadura hartzen utzi zion, ondoren listariari tirakada emateko, eta izurdeen antzera jauzi egin zuen marrazokumeak urazalatik gora.

Hirugarren eta laugarren aldiz errepikatu zuen Asmodeok jokaldia, eta marrazokumeak beste hainbeste jauzi egin zituen izurdeek egin ohi duten moduan, hezitzailearen zoramenerako.

- Argi dago bai duela ikasteko gaitasuna – erabaki zuen Asmodeok marrazokumeari eskerronez begira-. Ikasteko gaitasuna izateaz gain, esango nuke gustukoa duela izurdeen igeriketa modua. Izan ere, izurdeen estetika eta dotorezia ez gustatzea izango litzateke harritzekoa.

Atsenalditxoa eman ondoren, marrazokumea entrenatzen jarraitu zuen, beti ere uretan abiadura apur bat hartzen utziaz lehenengo eta listariari tirakada emanez ondoren, tirakada bakoitzarekin urgainera jauziaz eraginaraz, harik eta, leher eginda, makila luzexkaren zirikadekin ere animatzen ez zela geratu zen arte ikaslea.

Miresgarria zen zein bizkor ulertu eta bereganatu zituen marrazokumeak izurdeen estetikaren abiapuntuak. Orain, emaitzak ikusita, zalantza izpirik ez zeukan Asmodeok bere egitasmoaren zuzentasunari ez zela ikasmodu guztiz zientifikoa. Metodo baldintzatua zen inola ere, eta ikusteko zegoen listaritik askatu ondoren marrazokumea gai izango ote zen lezioak gogoratzeko. Baina baiezkoan zegoen, gogoratuko zituen lezioak,

gustatzen zitzaizkiolako. Entrenamentu luzeen ondoren leher eginda geratzen zenean, iribarre moduko keinua egiten zion marrazokumeak Asmodeori, ezpainak apur bat ireki eta hortz zuriak erakutsiz. Ikastaroa atsegin zitzaion seinale, zalantzarik gabe.

Dena dela, pentsatu zuen behar-beharrezkoa zela beste lau-bost marrazokumei igeriketa berriaren moldea erakustea, lehenengoa listaritik askatu baino lehen. Hala egin ezean, listaritik askatu marrazokume bakarria bidaltzen bazuen bere senideen artera izurdeen igeriketa erakustera, gerta zitekeen bere burua lotsagarri ikustea, konbentzimendu urriko misiolariak fedegabeen artean legez, eta bera moldatzea besteen igeriketara, alderantziz izan beharrean. Gauza bat baitzen estetika berri bat ikasteko ahalmena izatea marrazokumeak, eta beste gauza bat hari bere senideen artean misiolari eta heroi izateko gaitasuna eskatzea. Hori, gehiegi eskatzea zen; misiolaria gaztetxo eta eskarmentu gutxikoa zelako batez ere.

- Ez zaio gehiegi eskatu behar –erabaki zuen Asmodeok burutazio haien ondoren.

Beste lau-bost marrazokume harrapatu, bakoitzari listari bana lotu, eta uretara bota zituen. Lehenengoarekin gertatu zitzaion moduan, zalapartaka hasi zitzaizkion marrazokumeak, hanken artetik hara eta hona listariak nahastuz, trabatuz eta azkenean Asmodeo bera uretara botaz. Borroka gogorrean aritu behar izan zuen ostera zutitu eta piztia haiei listarietatik eusteko, matxinada saio hura apalduz.

Ikasle berriak baretu zirenean, makila luzexkarekin eragin zien, listarietatik eutsiz bere itzulian jiraka ibiltzera behartuz. Bata bestearen ondoren igeri egiten hasi ziren marrazokumeak, ilaran. Abiada dezentea hartu zutenean listarietatik tirakada bana eman zien Asmodeok, eta bost-sei marrazokumeez jauzitxo bana egin zuten urazaletik gora, izurdeek egin ohi duten antzera.

Ikuskizun zoragarriagorik nekez imagina zenezakeen inork, eta ez dago esan beharrik pozaren pozez oihuka eta jauzika hasteko gutxi falta izan zitzaiola Asmoeori. Baina pentsatu zuen entrenatzaile serioa izan behar zuela; ekimenaren arrakastak ez ziola helburua nahastu behar, eta tinko jarraitu zion lanari.

Beti ere bere itzulian bira emanez igeri egitera behartzen zituen marrazokumeak, eta abiadura apur bat hartzen zutenean tirakada bana ematen zien listariei. Tirakada bakoitzarekin jauzi bana egiten zuten piztiak urazalek gora.

Asmodeo bera erdian gelditu eta bost-sei marrazokumek haren itzulian ikusiz gero, edonork esango zukeen marrazoen ugazaba zela gizon hura, eta pentsatzekoa da balizko ikuslearen burutazioa jakinez gero pozik eta harro sentituko zitekeela gure hezitzailea.

Baina balizko ikusle eta miresleak ezin izango zituzkeen asmatu Asmodeoren kezka eta haserre guztiak. Izan ere, hainbeste listari eta tirakadarekin, hainbeste itzuli eta jauzirekin aspertu edo zorabiatu egiten baitziren batzuetan marrazokumeak, eta hezitzailearen hanken artean hara eta hona igarotzen ziren tarteka, behatzei begira geratu zitzaizkion batzuetan, azazkalei horzka egiten zieten hurrengo...

Laster ohartu zen hortzak ondo zorrotzuta jaiotzen direla abere horiek, eta jende horzkari eta haserrea izan daitekeela txikitatik.

Asti eta pazientzia agortezinak zituen Asmodeok eta temoso jarraitu zuen, eguna joan eta eguna etorri, izurdeen igeriketa eta estetika erakusten mazarrokumei. Pozaldi handiak izaten zituen batzuetan, listarietatik tiraldiak egiteak urgainera zelako jauzi dotoreak egiten zituzten ikusteak. Baina ernegazio ikaragarriak izaten zituen hurrengo, bere irakaspenei jaramonik egin gabe hara eta hona nahasten zirenean, hanken artean igaro edo behatz muturretan horzka hasten zitzaizkionean. Hasiera batean pentsatu zuen marrazokumeak euren kariñoa erakusteko modu naturala zutela hura, horregatik egiten ziotela horzka behatz muturretan.

Baina txortagiletan eta harrapatzen zuten lekuetan hortz zorrotzak iltzatu zizkiontenean pentsatu zuen gauzak ez zebiltzala behar bezala.

Hurrengo egun batean erabaki zuen bezala ordua bost-sei marrazokumeetatik aurreratuena, izurdeen estetikan zaletuen zirudiena, askatu eta zela moldatzen zen froga egiteko.

Listaria askatu eta uretan askatu zuenean, etsipen handiz ikusi zuen Asmodeok marrazokumea zela itzultzen zen lehengo ohiturara, izurdeen estetika ikastarorik egundo egin izan ez balu bezala.

Egunetan eta asteetan jarraitu zuen hala ere beste lau-bost marrazokumeei izurdeen igeriketa eta estetika erakusten. Batek ezer ikasi ez izanak ez zuen adierazten besteek ikasiko ez zutenik. Zientziaren arrakasta bakoitzaren ostean, ehuneko askoren porrota zegoen. Horrela erakusten zuten estatistika guztiek edozein motatako frogetan.

Ikastaroak ezin dira gainera mugagabeak izan, ezin dira infinitoraino luzatu, eta hori ere estatistikek frogatzen dutela erabaki zuen Asmodeok. Beraz, marrazokumeak askatzeko eguna iritsi zen ezinbestean, eta orduan ikusi zuen ederrak bezain eskerdaitokoak zirela itsastar haiek, eta bere irakaspenei jaramonik egin gabe euren lehengo igeriketa modura itzultzen zirela piztia horzkariak.

- Zoazte! —oihu egin zien etsita-. Zoazte, aluok!. Belaunetaraino uretan zutik, besoak erorita eta burua makur; behatz muturretatik odol hariak eta begietatik malko handiak zerizkiola egon zen Asmodeo luzaroan, penaz eta sosegatu ezinez. Orduan geroago iritsi zen Galduen Ostatura, oinak urandituta, eta geroztik ez da itsasora joan; orduz geroztik ez du aipatzen marrazoen konturik, ez du entzun nahi izaten haien gorabeherarik. Baina goizero joaten da kaira eta itsasora begira egoten da handik, ostera Galduen Ostatura itzultzeko.

- Goizero Kaira joatearren etortzen ote da Galduen Ostatura, ala beti Galduen Ostatura itzultzearren joaten ote da goizero Kaira? –galdetu zion Luxiok Xeberori.

- Egingo nuke kaira ez ezik munduaren baietz joan Asmodeo, egunero Galduen Ostatura etortzearren –erantzun zion Xeberok-. Areago esango nuke: bere munduaren ardatza Galduen Ostatura dela iruditzen zait; Galduen Ostaturako etxekoandrea, zehatzago esateko.

- Ez da egia izango! –egin zion albotik Txarabek, bezero berrienetako batek .

Harrituta, Asmodeori begiratu zioten mahaiaren inguruan zeuden guztiek. Asmodeo, haserre plantan baina larri, erantzunik gabe geratu zen, masailak gorritzen zitzaizkiola sentituz.

- Oh, oh, oh –hasi zen Luxio-; horrela al gabiltza? Xeberok susmo batzuk izan arren, ez Luxiok eta ez beste inork ez baitzekien zein ezkutuko arrazoik eramaten zuen Asmodeo egunero egunero Galduen Ostatura. Nola jakin behar zuten jakin ere, egundo ez bazion inori aitortu halakorik eta isilpekoa islpean egon zedin berak gorde izan bazuen beti?!

Kontalaria da seguru asko Asmodeoren arrazoi gordeak ezagutu ditza-keen bakarra. Historietako pertsonaien egoerak eta ibilerak ezezik haien penak eta pozak, burutazioak eta sentimenduak ere jakin bailitzake kontalariak. Izan ere, zer kontalari litzateke bere kontakizunetako pertsonaien pentsamentu eta sufrikario nabarmenenak, maitasun eta gorroto handienak igartzeko gai ez dena?.

Egia da salbuespenak ere izaten direla; kontalaria bera ere ez dela oro jakile. Baina gure historiaren kasuan Asmodeok berak salatu du bere burua, Galduen Ostaturako etxekoandrea aipatzearekin batera masailak gorritu zaizkionean.

Itsasoko egun eta gauetan erdi ametsetan edo eldarnioren batean ikusitako lamiaren bat gogorarazten ote zion Maitek, Galduen Ostaturako etxekoandreak? Baliteke.

Isilpeko maitasunak handiago eta ederrago-minago eta tentagarriago ere bai –direlako gorde ote zituen Asmodeok bere sentimenduak sekretuan? Gutxi harritu.

Kontua da Galduen Ostatura sartu eta Maite ikusten zuen bakoitzean bihotza jolasean hasten zitzaiola Asmodeori. Mahaian eseri, bakarrik edo beste bezeroen artean, eta Maitei ezartzen zion arreta. Haren ibileran, begiratzeko eta hitz egiteko moduan, haren barrean edo bekozko ilunean ostentzen zen misterioa aurki nahi zuen Asmodeok.

Gauza jakina baitzen Galduen Ostaturan guztiek zutela misterio gorderen bat, isilpeko altxorren bat, galdutako izenaren edo etxearen historiaren bat. Eta Maitek, inguruetako amama gazte eta ederren hark, bazuen jaio zenetik gordetako historia bat. Baina Xeberok jakin zuen historia haren berri Asmodeok baino lehen.

- Zer historia? –galdetu zion Asmodeok Xeberori.

- Bere izenaren historia –erantzun zion Xeberok.

- Bere izenarena?

- Bere izenarena; bai. Izena galdu zuen Maitek, bataiarrian.

- Bataiarrian? –ostera Asmodeok, lehen baino harrituago, Xebero adar joka ari ote zitzaion susmatzen hasita.

- Bataiarrian; bai.

- Nola gertatu zen hori?

- Oso erraz, egia estaeko.

Eta orduan, Asmodeoren arreta osoa bereganatu zuela ikusita, Galduen Ostaturako amama gazteak izena nola galdu zuen kontatzen hasi zitzaion Xeberok.

Eguraldi oso txarrak ziren Maite jaio zenean. Oso txarrak. Esan liteke zozomikoteen atzaparkadak zirela eguraldi haiek, elurte eta guzti. Eta gertatu zen jaio eta hurrengo egunean bataiatzera eraman beharra zegoela haurra, izana duen guztiak izena behar duelako, eta haur jaio berriak ere badu izana, txikia izan arren. Horregatik eman behar zaio izena ahalik eta bizkorren.

- Ba al dakizu ijitoak zergatik eta zelan galdu zuen astoa –galdetu zion Xeberok Asmodeori, kontakizunaren harian etena eginez.

- Zer asto?

- Joan da ijitoa feriara eta erosi du astoa, bere belarri handi eta guzti. Hartu du trailan asto hori, eta badarama. Bere bidean gaua igarotzeko geratu da ijitoa txabola baten. Txabola ondoko otandian utzi du asto berria larrean eta sartu da bera barrura, eta egin du lo lasai. Goizean jaiki denean, orde, astoa falta; haren arrastorik ez inon. Hasi da bila, eta orduan ohartzen da astoaren izena ez ziola galdetu lehengo jabeari, eta, izenik ez zekienez, ezin hotsegin. Horrelaxe galdu zuen astoa ijitoak. Hotsegingo bazaio izena behar baitu astoak ere.

-Tira, tira; laga itzazu beste baterako ijitoak eta euren astoak eta jarrai ezazu lehengoarekin –haserretu zitzaion Asmodeo.

Haur jaio berriari lehenbailehen eraman behar zitzaion beraz izena. Baina izena ematea, gurasoek aukeratutako izena umeari ipintzea, ez zen beti gauza erraza. Traba handi samarrak egon zitezkeen horretako trabak saihesten asmatu beharra zegoen.

-Esaiozu apaizari Maria Amada izena ipintzeko Jaiotzen Liburuan; horrela, bai etxekook eta bai bere bizitzan ezagutzen duten guztiek Maite deituko diogu –esan zion ama Florak aita Bixkairi.

- Maria Amada? –galdetu zion Bixkairi ostera, nahaste hura argitu nahian.

- Bai –azaldu zion Florak; Maria Amada ipini behar da elizbarrutiko jaio-tzen liburuan, Maite ezin delako ipini. Baina bai geuk eta bai aurrerantzean ezagutzen dutenek Maite deituko diogu. Edurne deitu ahal izateko Maria Nieves ipintzea bezala alegia –zehaztu zion, lehiotik begiratu eta Urkulu inguruak dena elurtuta zeudela ikusi zuenean.

Beste azalpenik eskatu gabe abiatu zen Bixkairi herrira bidean, alaba txikia zapi eta mantar artean bildu-bildu egin eta besoetan hartuta.

“Maria Amada, aurrerantzean Maite deitu ahal izateko” esan zuen Bizkairi bere baitarako. Besoetan zeraman alaba txikiari begiratu zion pozarren, zapi eta mantarrak otondo zizkion elur maluta eta hotzarengandik babesteko, eta pausoa bizkortu zuen.

“Hau eguraldi zakarra”, jarraitu zuen Bizkairi burutaziotan, Urkulu eta Andutz inguru elurtuei begiradak eginez tartean tartean. “Baina bere edertasuna ere badu elurrak”, pentsatu zuen; “haurrei jolasgura ematen die, eta haurrak ez direnei ere bai”.

“Maria Amada, Maite deitu ahal izateko”, gogoratu zituen Bizkairi Floraren hitzak; “Edurne deitu ahal izateko Maria Nieves ipintzea bezala. Biak ere Maria. Amada Nieves... Aurtengo azken elurtea inola ere”.

Herrirako bidea etxe bistatik ostentzen zen muino bizkarrean keratxoak egin zuen, Arbizkoa eta Mugarri aldera begira. Elur erauntsiak eta lainoak lausotzen zuten inguru hari begira egon zen, lauso hartan alaba txikiaren geroa ikusi nahian bezala. “Laster aldatuko da dena; laster loratuko dira sahatsak”, xuxurlatu zion haurrari, berriro bideari ekinez.

Sahatsen lore leunak, lumatxaren gozotasuna duten mototx horiek udaberriaren iragarle izaten direla gogoratu zuen Bizkairi, eta aurki agertuko zirela han eta hemen elurtearen ostean.

“Elurraren edertasunaren ondoren beste edertasun bat ekarriko dute sahats loreek” esan zion Bizkaik besoetan zeraman alaba txikiari. “Orain ezin didazu ulertu, baina handitzen zoazenean eta amets egiten hasten zarenean, orduan adituko dituzu orain esaten dizkizudanak, eta irudituko zaizu gauzezko izaki magikoek egindako errebelazioak direla”.

Eta halakotxe burutazioak alaba txikiari kontatuz eta hoztu ez zedin kontu eginez, inguru elurtuei begiratzeko keratxoak egiten zituenean sahatsak laster loratuko zirela pentsatuz, iritzi zen Bizkai herrira, eta elizara sartu zen.

- Zer izen ipiniko diogu? –galdetu zuen apaizak haurra bataiarrira hurbildu zutenean.

- Izena... Izena... –hasi zen Bizkai, eta orduan ohartu zen bidean galdu zitzaiola Florak emandako izena.

Buruko txoko guztiak arakatzen hasi zen, larri, eta etxetik herriraino egindako bideari begiratu zion irudimenarekin: Urkulu elurtuta, bidean ere elurra, Mugarri aldea lainopean lausotuta, udaberria laster, sahats loreak. “Edurene deitu ahal izateko Maria Nieves ipini behar zaion bezala”, gogoratu zuen Floraren hitzak.

- Maria Nieves –esan zion bat-batean apaizari.

- Ego te baptizo in nomine Patris, et Filii, et Spiritus Sancti –esan zuen orduan apaizak umeari ur txorrotada bat isuriz.

- Horrelaxe galdu edo nahastu zioten izena Maiteri –esan zion Xeberok Asmodeori, kontakizuna amaitu zela aditzera emanaz.



Iñaki Gonzalo Casal

1964

Getxo

1994 urtean atxilotu zuten.



C.P. La Moraleja
Ctra. Local P-120
34210 Dueñas
Palencia

La nieta del carnicero

El nombre marcó su trágico destino.

Camelia Estancona Pérez de Mendiola nació el segundo día de mayo de hace, pongamos, cuarenta años en Guardo, un pueblo ni grande ni pequeño de la provincia de Palencia. Su madre, Maria Pilar Pérez de Mendiola, era hija de un carnicero que se instaló en Guardo huyendo de los hermanos de su esposa por un asunto de cuernos.

De su padre, Ramón Estancona, nadie hubiera pensado que de joven pudiera haber raptado a su profesora de secundaria y convertir una lonja abandonada junto a la papelería de Dueñas en un chamizo de dos pisos con su escalera de caracol, su terraza con un macetero de tulipanes, su capillita a la virgen de los desconsolados y un sótano donde enterrar los cadáveres.

Pero no fue su abuelo prófugo ni los pecados de juventud de su padre los que marcaron el destino trágico de Camelia. ¿Quién no ha guardado alguna vez un cadáver en el desván de su infancia o ha tenido un abuelo que se hizo el muerto en una cuneta conteniendo la respiración mientras el pelotón de fusilamiento se alejaba canturreando aquello de las banderas victoriosas?

Camelia supo de los líos de faldas de su abuelo el carnicero y de los muertos del chamizo de Dueñas cuando cumplió los dieciocho años y su madre dijo tenemos que hablar bajo la parra que su vecina Carmelita había dibujado en la techumbre del patio común.

Ese dos de mayo fue un día de muchos sustos para Camelia porque además de conocer la historia de algunos varones ilustres de su familia, se torció un tobillo bajando las escaleras del pórtico de la iglesia y se las tuvo con Avelino y con su primo, al que apodaban el viruelas, tras la

sesión de cine al aire libre de los viernes. Nueve meses después nació Cristobalito, el primero de sus siete hijos. El no saber la identidad de ninguno de los siete padres le reportó no pocos reproches entre los vecinos de Guardo pero Camelia estaba vacunada contra las habladurías. Su madre, sin embargo, no llevaba bien lo de las miraditas maliciosas en el mercado ni lo de criar siete nietos cuando, por edad, le tocaba echar las tardes jugando al julepe en el bar de don Florencio Aguilar.

El día de su veinticinco cumpleaños Camelia se puso el vestido de flores que le regaló su último amante, se pintó los labios de rojo pasión y tras envolver a su bebé en una mantita azul salió de la residencia del Sagrado Corazón y se dirigió a la casa de sus padres. Ni siquiera escuchó los amargos reproches de la hija del carnicero. Dejó al bebé sobre la mesa de la cocina, cogió un manojo de llaves de una de las alacenas del recibidor y esperó al autobús de Dueñas en la parada de la plaza de Las Fuentes de Guardo. Doce minutos desde Dueñas a la fábrica de reciclaje de papel y apenas treinta segundos para romper el descolorido precinto policial y entrar en el chamizo donde su padre vivió su historia de amor con la profesora de secundaria.

No puede decirse que Camelia fuera una mujer guapa pero tenía las caderas de su madre y unos pechos grandes como melones y un color de piel aceitunado que volvía locos a los hombres. Así que no le hizo falta poner un anuncio en la gaceta del pueblo para que su casa de citas se convirtiera en el plazo de dos semanas en el local más frecuentado de Dueñas. La noticia se corrió como la pólvora entre los trabajadores de la papelería, los presos que salían de permiso de La Moraleja, los carceleros de la prisión y los solterones de la zona que, hasta entonces, se dejaban los jornales en el club de Rosa, la colombiana.

Camelia se hizo puta como quien teje un tapete de punto de cruz para el tresillo de la sala de estar o quien devora un pastel de chocolate y nata y se limpia las migas con una servilleta de papel. No le importó trai-

cionar el recuerdo de su abuelo el carnicero ni mancillar el buen nombre de los Estancona de Guardo. Camelia era una mujer resuelta y harta de parir niños sin apellidos decidió vivir como una reina a cuenta de los hombres. Por el sótano del chamizo de su padre pasaron hombres de toda condición pero a ninguno dejó besar sus labios. Amasó una pequeña fortuna que, antes de descerrajarse un tiro en la cabeza el día que cumplió, pongamos, cuarenta años, envió en un sobre amarillo a su madre, Maria Pilar Estancona, la hija del carnicero.

Iragana

Ezinezko maitasun lautada batek nire oroitzapenak apurtzen ez dituenengan, iraganera itzultzeko aprobetxatzen dut. Airean trazu gorri bat irudikatzen duena bezalaxe, zaborra jaisteko aitzakiaz atea ireki eta oliba azaleko bizilagun bat ikustea bezain erraza zen garaietara itzultzen naiz.

Hemen eserita, plastikozko aulki zikin honetan, zeru grisari begira... oroi-menean murgiltzea erraza izango zela pentsatu dut. Oker nengoen. Oroitzapenen mina ekiditeko ahaztu nahian urte gehiegi pasa ditut, denbora gelditu arazten nuela ametsetan ibili naizen urrunaldi urte asko, honela nire patua konjuratzeko nuelakoan. Haien aipatze soilarekin, oroitzapenak gure oraina koloreztatzeko bat-batean itzultzen direla ez da egia, ez behintzat erbesteko bidean tapaki baten azpian gordeta utzi zituenarentzat.

Irudietaz ari naiz: nire boten azpian apurtu baino lehenago dardaratu eta ispiluak bezalakoak ziren izotz zatitxoetaz, Gobelas ibaia urratzen zuten farolen argiaz, nire aitek bere azken lagun keinua egin zidan egunean jaso nituen besarkada solidarioetaz... irudi eta irudi gehiago. Iritsi eta berehala arrastorik utzi gabe desagertzen diren flashak bezalakoak: nire gelako leihotik zelatan egotearen poderioz maitemindu nintzen okinaren txabusina txuria, haurren besotxoak buztinezko treskak kolpatzen zituztenean, gozokiak aurkitzen zituztenean euren sorpresa aurpegiak, sorginkeriaz esnatzeko itzultzen diren, baina denboran urrun gelditu diren jaiak. Buztinezko treskak kolpatzen laguntzen nituen haur horietatik batzuk ehunka kilometro egiten dituzte gaur ni ikusteko, eta hainbeste hazi direnez mintzalekuetako sabaia apurtu ohi dute.

Oroitzapenekin nahastuta eskerron zerrenda luze bat datorkit burura. Nondik hasi? Zuen maitasuna, Zubi Etekiaren ondoan atxilotu nindutenetik ahuldu ez den laguntza, udaletxea ezustean bisitatu nuen egunean eskaini zenizkidaten irribarreak... Eta zuen gutunak! Samurtasun tanta horiek, elkartasun mezu apalak diren zuen gutun guztiak. Beti gertu sumatu zaituztet.

Ondorioz, irudietaz soilik hitz egin ahal dut, denboraren joanak lausotu dituen oroitzapenetaz. Irudietaz soilik? Eta Geroa? Eta orainaldiko irudiak? Garai itxaropentsuak bizi ditugu. Gure herriaren ordua iritsi eta laster festa guztien festena ospatu ahal izango dugu, garaipenera, urte ilunen amaiera ospatzeko argiz beteriko enparantza batean bilduko gaitue-na. Arnasarik gabe gelditu arte borrokan aritzeak ez zuela merezi nork esan zuen? Azkenean, historiak beti saritzen ditu euren etorkizunean jabe izateari uko egiten ez dioten herriak. Zenbaitzuk erbestetik amesten jarraitzen dugun etorkizuna laster ikusiko dugu.



Manuel Quintans López

1961

Arzúa (A Coruña)

1989an atxilotu zuten Exercito Guerrilheiro do Pobo Galego Ceibe kidea zelakoan eta 1993 kaleratu ondoren, 1997an Mexikora alde egin zuen, non berriro atxilotu eta Espainiara estraditatu zuten 2002. urtean. 2004. urtetik hona Teixeira espetxean dago.



Aitor Lorente Bilbao

1967

Bilbo

1991. urteaz geroztik kartzelan dago.



C.P. CURTIS (Teixeiro)
Carretera de Paradela s/n
15310 Curtis
A. Coruña

Herioa

Bueltie emon nendun beilatokitik kanporatzen zebilen hil kotxieruntz, haren barruan zihuan ta neure koinatuaren gorpua, edo gorpuaz utzi zituzten apurrak sikiera. Zarratzen ari zen atetzarretik gazte batek, plastikozko poltsa eskuan, urten eta hots egin zidan.

- Andereino! Hauxe ahaztu duzue.

Laura-k eta gure gurasoek, ordurako pausu batzuk aurrerago, buelta eman zuten arren, hurrerago nintzen neuri eman zidan. Nikanorren arropa zen, errekararen alboan aurkitu zutenean gainean zerabilena, ez ostera gaubeilarako jarri ziotena. Plastikoa barrena nabarmenak ziren lupetz eta odol orbanak, eta nahiz ta ondo lotuta izan poltsari kiratsa zerion.

- Hartzazu, nik ez dut hau gura ta –damu nintzen poltsa hartu izanaz, atzera emateko saiakera egin nion baina nazkante hark ez zidan onartu.

- Ez hemen ezin dezakegu poltsa hartu.

- Baina neuk be eztut gura ta, erre... edo botazazue.

- Ezta pentseu be andereino, ezin dugu horrelakorik egin, ze frogak direz ta Ministerio Publikoaren ikerketan, baimena beharko genuke beraz.

- Ondo da, neuk emango dizuet baimena, hartuizu ba poltsa.

- Ez andereino, MPren baimena, horixe da behar duguna.

- Eta hor nonbaiten botako banu? Satarrean kasu?

- Zure ardura litzake, andereino.

- Ene Jesus! –esan zuen gure amak, ahoa estali ahala.

- Zer egingo dugu orduan?

- Hilkutxan, gorpu... gorpuarekin batera sar dezakezue.

Leihatilak zabalik zeuden arren, gure aitaren tarrantan egiten zuen beroarekin poltsari zerion kiratsa jasanezin bihurtu zen. Aurreko aldean jesarrita nengoen eta poltsa behegainean, oinen artean, neraman. Negarra eta ezinik atzealdean zen Laura, sudurra musuzapiaz estaltzen zuen gure amarekin batera. Gutariko inortxok ez zuen tutik ere esan. Jose gabaz etorriko zait, ordu txikerretan akaso, eta konteu beharko diot. Zer esango diot lehenik? Nikanorrena edo zerarena? Txarrena lehenago hobato. Nikanor aurkitu ditek, esango diot hasteko, eta gainerakoa neure aurpegiaren igarriko du. Hala ta guztiz be, ailegatuko den orduaren arabera izango da dena: ez baita berdina izango bere zain neu bakarrik izatea ala gure gurasoak horrezkero oheratu gabe izana. Ez, ez dut uste, egunotako gora beheak jota goiz lotaratuko dira ziur asko. Bakarrik egongo naiz hortaz, bere ezpainak musukatuko ditut, bera besarkatuko dut, ea zer jazo den egongo naiz hortaz, bere ezpainak musukatuko ditut, bera besarkatuko dut, ea zer jazo den galdetuko dit eta neuk Nikanor aurkitu dutela erantzungo, eta berak gainontzekoa aurpegiaren nabarmenduko dit, eta horrezkeroztik ez du gehiago zelan itaunduko, noiz, nun baino.

Ehorztetxean zerraldoa zarratu eta zigilatua zegoela esan ziguten, ezin zutela atzera zabaldu, are gutxiago bertan zer edo zer, agindu judizial barik, sartzeko. Aitak dirua eskaini zien, baina ez zioten onartu, itxura txarreko kontua, hortan ba arrazoirik ez zitzaien falta, bai, itxura gaiztokoa zelako beharbada. Hoba hobiratzaileari hogeiko peso eman, esan zioten, poltsa panteoian zerraldoaren ondoan, hilobian bertan lurpera zezan.

Hobiratzea arratsaldean izango zen. Gure aitak bazkaltzera joateko esan zigun, bera gerotxuago panteoi aldera hurreratuko zela gehituz. Goiz hartan gosalduta ez izanak eguerdirako bat be goserik egin ez zigun arren, ondo iruditu zitzaigun bazkaltzera joatearen, ohizkotasunaren zatitxo bat berreskuratu izan bagenu lez, mozkorraldia edo amesgaiztoa izan ziren azken egunetatik egunerokotasunera itzuli izan bagina lez iruditzen baitzitzaigun elkarrekin bazkaltearena. Jose txiripaz libratu zen. Bahiketaren osteko hurrengo egunean joan behar izan zuen, beharbada bahiketa ez zela izango uste, edo uste gura genuen egun hartan. Litekeena da furgoia mendian izorratu izana, zein gatxa den han ezerezaren erdian laguntzarik aurkitzea, geniotsan elkarri, itzuliko ditun, Laura, ez hadi kezka, eztun ezer izango ta. Eta Laura, negarretan urtuta, Nikanor joaten utzi izanaz

bere burua erruduntzat hartu izan bailuan, Nikanor, ordu haietan, bi ezezagunekin, mendira gainera. Zer zorte on, zer negozio on, eta zer negoziondo. Hi ez hoa eta ez haiz joango, gura izango ziokeen gau hartan esan Laurak, baina jakina, beste hainbatetan lez, eta zelan ta inoiz ez zen ezer gertatu, Nikanor joan izango zen.

Joana zen Nikanor, gaberdian eta ezezagun bi haiekin, eta joan zen Jose biharamunean, Nikanor itzuli gabe zelarik. Josek ezin zezakeen itxaron, guztioi eman zizkigun muxu asko, eta animo gehiago. Nasai, dena ondo amaituko da, ikusikozue. Bai ta zera be. Hurrengo egunean deitu zigun, eta ez zegoen berririk. Ez, Nikanor ez duk itzuli, etzekiagu ezer, pentsazak, denok oso gaizki, Laura batipat, eta semea, zer edo zertaz ohartzen duk eta aitaz baino ez dik galdetzen, non da aitatxo, eta aitatxo etortzea gureot... bai maitia, neuk be maite haut... eta hortaz ari ginela... zera... zera-rena kontatzeko zorian izan nintzaion, baina ez... hoba ixiltzea. Ez zen une egokia, telefonoz are gutxiago. Egonezinak jota nengoen, goizean bertan baieztatu berri zidaten, eta bitartean nerbioak dantzari neuzkan. Amari ez nion esan ere, Jose zen ta jakinaren gainean jarri gura nuen lehena. Baina Josek ez zuen galdetu egin be. Jose zuztarbako halakua, seguruenik akordatu ere ez zela egin. Hurrengo egunean deitu zuen atzera. Ezta ezer be. Zegoeneko salaketa jartzera joanak ginen MPra, horiek bai babu galantak, arazoak bat be garrantzirik izan ez balu lez, haraino enbarazu egitera baino joan izan ez bagina lez aritu zitzaizkigun eta. Hiru egunen buruan deitu zuen berriz. Ordurako furgioa aurkitua izan zen, zabalik, garbi eta egoera onean, giltza barik, mendi erdiko bide baten bazterrean apartatua, bai, ibiliko ziren inguruetan, joan zireneko gauean esan zuten bezala... basartean... eremuan. Bai, judizialak joanak ziren, ingurumarietan barrena bila ibili ziren, etxetxo bat besterik ez zuten aurkitu, behi pare bat zaintzen bizi zen atso batena, ezer ere ez zekien atso zaharrarena. Josek ez zuen gehiago deitu. Ene Jose, beti horren ganora gutxikoa. Ezin izan zuela esango dit gero, astirik ez zuela izan, lanpetuegia ibili zela, betiko lez, eta neuk beti barkatzen duen emazte adikorra izan beharko dut, tarte batez hasarretuarena egingo diodan arren, berak berriz ez duela egingo agindu arte, eta ondoren harrezkeroztik gertatu izana kontatu beharko diot, jakin gura izango duelako, jakina. Aproposena beharbada egunkaria ematea izango da, han irakur dezan, niri hain bihozgabekoak diren aferak gogoan erabiltze soilak beldurra ematen dit eta.

llegorriarnera bazkaltzera joan ginen. Amak eta Laurak ezer gutxi jan zuten. Aitak, ostera, bapo bazkaldu zuen, neuk, halaxe egin behar dudalako, biontzako apur bat jatearren. Behar beharrezkoaz baino ez ginen mintzo izan. Laurak, odolez beteak izan balitu bezala, lehertzeko zorian zituen begiak.

Kaleratzerakoan gogoz jotzen zuen eguzkiak. Goazen etxera, esan zuen gure aitak. Kotxie zabaltzean orde, gutxi falta zitzaigun hankaz gora erortzeko. Poltsa, Nikanorren arrokekin, barruan ahaztu izan genuen eta usain txarrak botaka egiteko hari harian jarri nindun. Egurasten utzi eta lasterrera eraman behar izan genuen ditzosozko poltsa hura. Kalean paseeran zebilen jendeak sudurran zimurtu eta txarto so egiten zigun. Gure aitak esan zuen lehentxuago edo berandutxuago baten batek, hildakoaren usainaz jabetuta, poliziaren bati deituko ziola. Alde egiteko presa eman zigun beraz. Amak atzera atera zuen be musuzapia, eta Laurak berriz ekin zion negarrari, baina ixilena beti. Bost minututan, leihatila guztiak zabalik, joana zen hatsa... edo hura arnastera moldatuak ginen.

Nikanor aurkitu ditek, esango diot hastearren, eta neure musuan nabarmenduko du gainerakoa. Zelan jazo zunan? Zer gehiago dakin? Eta egunkaria emango diot, lehen orrialdeko albiste nagusia, berri poliziakoak ondo saltzen du beti eta, alarguntsa gaztea lutu jantziaz argazkian, lore sorta hilkutxan uzten duela. Esker onez ez zutela bestelako argazkirik jarri, erreka alboan ateratako horietakoren bat kasu. Don Julianen mese-dea izan zen, eskertzekoa zen bere detailea bai, ze aita ta biok parajera, Nikanor identifikatzera, ailegatu ginenerako hantxe ziren don Julian eta bere argazkilaria, eta aitak don Julianekin egin zuen berba eta don Julian ikusi nuen aitak esaten ziona bere koadernoan apuntatzen, ondoren don Julianek koadernotxue itxi eta amerikanako poltsikoan gorde zuen, eta aitak zerbait ziotsan bitartean don Julianek zapaldutxo bat eman zion bizkarrean ez kezkatzeko esanez, eta bostekoa eman zioten elkarri, eta agur esan, eta aita eta biok, judizialek lagunduta, deklaratzera joan ginen MPra, eta don Julian errekan geratu zen aditu periziala eta jo eta ke jarraitzen zuen argazkilariarekin, eta orduantxe esan nion aitari argazkiena, eta

berak ezetz erantzun, don Julianek esan ziola ez zituztela argitaratuko, eta neuk hartan ez nion sinetsi, eta gerora gabeaz argazkilaria beilatokira iritsi orduko ez nuen gogoko izan, baina berria goizean ikusi ostean ohartu nintzen egia zela, don Julianek emandako berba ez zuela jan, bihozgabeko argazkirik ez zegoela.

Ettxera heltzean ikusi nuen lehena ondokoaren pertsianak izan ziren. Zarratuta jarraitzen zuten. Joan ei zen? Buelatu ete egingo zen? Aita patxadaz aparkatzen zebilen. Han aurrean ibili behar izanak egundoko larritasuna ematen zidan, bai, han aurrean egunero ibiltzen jarraitu behar izateak larri baino larriago jartzen ninduen. Orain aulkia hutsik dago, dendatxo eta goiko pisuko gortinak zarratuta eta argiak, eguna dela ta, amatatuta, halaz ere han aurrean nabilen orotan gau hura izango balitz bezalakoa da, Laura, Nikanor, haren arreba Patrizia eta lauok etxeratzen ari gineneko gau hura, denda zabalik eta auzokoaren semea beste bi lagunekin kanpoan, garagardoetatik zurrutetan, kantu nortekoak ahalik eta bolumen ozenean leihoetara jalgitzen zirela. Hirurak ari ziren guri so Nikanorrek atea zabaltzen zuen bitartean. Patrizia, neskato bat sasoi hartan, euretariko bati eutsi zion begirada eta mutikoak esan zion: mamasi-ta, edo antzekoren bat, eta neskatilak erantzun: pendejo, bai, horrekin ondo akordatzan naiz... pendejo. Eta sesio ederra sortu zen. Auzokoaren semeak ez zuen pistola atera gabe lar iraun eta Nikanorrek zauritua bukatu zuen.

Txakurra zaunkaka hurreratu zitzaigun eta mesfidati usaindu zuen poltsa. Etxean poltsa ez sartzeko esan zion amak aitari, eta honek patioan lurperatuko zuela erantzun. Ezta pentseu be, amak hitzez hitz. Aitak ea zer gura zuen egin ba poltsarekin galdetu zion. Amak nahi zuena egiteko erantzun, baina ez zuela berriz atzera ikusi gura... ezta usaindu be. Txakurraren etengabeko zaunkek gure senetatik ateratzear ginduzkaten guztiok. Aita eta biok tarrantatxoan sartu eta panteoira abiatu ginen.

Ez zen larria Nikanorren zauri hura, kalibre txikerrekoa zen, eta beso batean, hezurra ukitu barik be, jo zion. Dena dela, hilketa saiakeragatik jarri zuen salaketa MPn. Ez ziguten testifikatzera deitu, ez atxiloketa agindurik eman, auzokoaren semea badaezpada ere aienatu egin zen, Mexiko

DFra esan ei zuten, eta haren aita, zoro zahar madarikatue, estutzen hasi zitzaigun gure erruz semea galdu eta ordaina bihurtuko zigula esanez. Beste bi mutikoei buruz ez zen egundo ezer gehiago jakingo, inork ez zituen ezagutzen ezta inork berriro ikusiko ere, noski.

Panteoia zabalik eta hutsik zen, loretoei abandonatu bat legetxe. Hobiratzailearen etxeko atea jo genuen eta zahar batek zabaldu zigun: erdi lotan zen zapazto zaharra, begiak pistaz beteta eta ardo usaina zeriola. Aitak zeintzuk ginen azaldu zion eta agurea artegatu egin zen.

- Bai, baietz ba, baina hobiratzea beluago da, ezta? Zer gurozue ba, orain?

Aitak poltsarena esan zion eta zaharrak erantzun:

- Ez, ez. Ezelan be ez, jauna. Nik ezin dut hori egin, agintearekin arazoak izan nitzake ta.

Aitak 50 peso eskaini eta zaharrak amen batean hartu zizkion.

- Ederto, baina lurra emonda gero izan beharko du, jendea joan ostean, ze baten batek ikusi ezker agintearekin arazoak izan nitzake ta.

Aitak ondo zela esan zion, han utziko ziola poltsa eta berak gura zuenean lurpera zezala, baina zaharrak bapatean ezetz, goizegi zela berak poltsa jasotzeko, galzorian jarri zezakeen ta, belutxuago ekartzeko, eta aita jarraiki zitzaion zer demontre, zuri berdin dizu, neuk osteria ezteko poltsa non lagatzerik eta enaiz gaberarte poltsa ditxosoarekin gora eta beheara ibiliko, eta antzekoak esanez, eta zahar babalareak ezetz, izatekotan haren baldintzetan izan beharko, osterantzean har zezakeela bueltan aitak dirue. Aitak biletea eskutik kendu zion, goazeman ba, alaba, esan eta joan ginen. Agureak marmarrean geratu, etxean sartu eta ate kolpea eman zuen zarratzerakoan. Alu mozkor zikin hori, esan zuen aitak, goazeman hau hor nonbait erretzera.

Tipo kapeladunen bixita izan genuen gerora, gabaz, afaltzen amaitzear genundenean. Nikanorrek berak zabaldu zion atea eta eurekin mintzo zen aulkian. Laurari negozio ona azaldu zitzaiola esan zion, joan beharra

zuela. Gaberdian? Nora? Baina hori mendian zegok, hoba bihar joango bazinete, zertarako horrenbesteko presa? Nikanorrek merkantzia lapurtua ei zela ezin ziezaiokeen azal, ezta horrelako negoziotan gauzak hala xe, bero beroan, egin beharra zegoela ere. Bildots larruzko txamarra jarri, furgoiko giltzak hartu, Laurari muxua eman eta ez hadi kezka esan zion, ez dun ezer gertatuko, pitin bat belu iritsiko naun agian, besterik ez, hago nasai. Laurak kalera lagundu zuen senarra, gizon haien aurpegiak ikusi eta ez zituen gustokoak izan, abeltzainak edo narkotrafikanteak eman zioten, morroi zakarrak. Ezin izan zuen lorik egin gau osoan. Goizez aitarekin egin zuen berba. Arratsaldez Jose joan zen. Gabaz umea hasia zen aitaz galdetzen eta Laurak etengabeko negarrari eman zion.

- Nikanor hil diten, mama –ziostan kontsolatzerakoan- hil zidaten, mada-rikatuok.

Aitari poltsa edonon lurperatzea errazagoa izango zela esan nion, baina bera usainak txakurrak erakarriko zituelakoan zegoen, eta haiek azkenean poltsa lurpetik aterako zuten, eta ondoren kristau baten arropa ahoan haruntz honunzka ibiliko ziren, eta poliziek ikusiko zituzten, eta... ez, hoba erretzea.

Garajea gordetzen zituen litro batzuk gasolina bila itzuli ginen etxera. Neuk, badaezpada, disolbatzaile pixka bat koiu nuen be. Tejocotaleruntz abiatu ginen, lurrezko bide batean sartu, kotxie utzi eta zuhaitzen artean barruratu ginen. Aita soilune batean gelditu eta esan zuen: hementxe. Belutzen ari zitzaigun. Haizea hoztu egin zen, tristiaren usaina zekarren. MPkoei eta judizialei auzokoaren mehatxuena esan genien, jakina, eta tiroen pasadizo osoa eta hilketa saiakeragatik jarritako salaketarena, baina haiek hiru egun pasa arte ezin zutela ezer egin esan ziguten, eta hiru egunak pasa ta gero bere bila hasiko zirela esan zuten, baina, frogarik eza zela ta, ezin zezaketela auzokoaren kontra ihardun, lekukoak zirela beharrezkoak, eta bape ez zegoela. Zaharra, auzokoa, deitu zuten deklaratzera. Deusik ez zekiela esan zuen, noski, eta bere semea ere, bai horrela esan zuen, "ere", non zegoen ez zekiela.

Aitak poltsa askatu zuen. Egundoko ustel usaina zerion. Disolbatzailea eta gasolina guztia hustu genuen barruan. Aitak besoa luzatuz txiskeroa hurreratu zion.

- Kontuz ibili, aita. Ezpabere zeure burue errekozu ta.

Suak beldurtu gintuen biok. Aitari eskuko biloa sugarastatu zion. Garrak ikaragarriak ziren eta oso ke beltza haizeratzen zuten. Aita urduri xamar zegoen, poliziak txantaia egiteko bikoteen bila Tejocotal inguruan ibiltzen ohi zirelako. Poltsa tarte on batez egon zen sutan. Amatatu ostean plastikoa urtua zen baina arropa, ertzak zerbait erreskaldatuak akaso, ia osorik zegoen. Aitak egurtxo batekin eragin zion eta arropak bere hats nazkagarria bota zuen berri.

- Zer egingo dugu orain?

Furgoia agertu zenean, gutariko ezeinek ez zekien zer uste izan, ezta zer sentitu be. Berriren bat izatea, zeozer jakitea, ona zen, baina ez genekien finean berria ona ala txarra zenik. Furgoia egoera onean zegoen, ondo aparkatuta, indarkeri arrasto barik, ezer ez zen falta, ezta apurtuta ere, ez zuten ezer ostu, ez kargan zeramatzan gupil hagunak, ezta atzeko jesarlekuan geratu zen bildots larruzko txamarra ere. Furgoia zabalik baina giltza barik zegoen. Joana al zen Nikanor giltzekin, han bertan txupa utziz? Mendian bero asko egiten du egunez, baina hotz dexente gabaz ere. Han inguruan hilda ez bazuten aurkitu, bizirik eraman zutenaren seinale zen, hau da, bahitu zutela, hau da, bizirik zegoela. Laurak ezin zion negarrari utzi. Amak otoi egin, bazkaria prestatu, umea jagon eta arropa garbitzea-ri ekiten zion. Aita eta biok laguntza bila joan gintzaizkion Rodriguez diputatuari, MP eta judiziala ikerketan gogo handirik gabe ari zirela antzematen genuelako. Diputatuak komandantearekin mintzatuko zela agindu zigun.

Aitak ez zuen gura arropa hantxe bertan lurperatzea, baina hura eramateko poltsarik ez geneukan ere. Panteoira joateko garaia zen. Ama eta Laura ezinegonak hartuta hasiak izango ziren.

Atso zahartxoa bakarrik bizi zen, berarena ez zen behi parez zaindu baino ez zuen egiten, baita etxaldeko jabeak laga zion etxetxoa gorde ere. Arratsalde hartan behietako batek errekaruntz egin zion ospa, bere bila joaterakoan atso zahartxoak sasi artean aurkitu zuen Nikanorren gorpua, euliz josia, tripa puztua, aurpegia hezur hutsetan, azal guztia eta haragia txakurrek janda... buruezur ileduna besterik ez.

Atso zahartxoa izutu zen eta arrapataka, baina behia ahaztu gabe, urrundu zen handik. Gau hartan eta hurrengotan amesgaiztoak izan zituela esan zuen, zer egin ez zekiela be, bildurak hartuta baitzegoen erabat. Ez zuen ba ezer egin, egun batzuk beluago bere seme bat bisitan etorri zitzaion arte. Semeari kontatu zion. Ondoren mutikoak judizialari abisatu zion, judizialak MPri eta MPk gure aitari. Honek ezin izan zuen aurpegi bako gorpua identifikatu, hortaz neuk egin behar izan nuen. Haren arropak ezagutu nituen, Laurak azken urtebetetzean oparitutako ostruka azalezko bortzegiak, ondo garestiak gainera, ostu ez zizkietenak halere.

Aitak arnasa hartu, arnasa gordetzeari eutsi eta kea zerion arropari oratu zion. Nik ezin nion ezta begiratu ere, hain zen handia ematen zidan botagurea, ze barrenak hantxe bertan okatuko nituelakoan nengoen. Den dena fardeltxo moduko batean bildu eta esan zuen:

- Goazeman etxera poltsa baten bila.

Jose egunkaria irakurri beharko du, neu ez naiz gauza izango ta bera hau guztiaren jakinaren gainean jartzeko: Nikanorri eskumako eskuko atzamar erakuslea ebagi ziotela, bila eta bila aritu ei ziren arren aurkitu ezin izan zutela, autopsiaren arabera buruan, bularrean eta hanketan jasotako kolpeen ondorioz hil zela, belaun bat apurtuta zuela, sama eta eskumuturretatik lotu zutela, bere txostenean don Julianek idatzi zuen lez, hitz batez, hil arteraino basatiki torturatua izan zela. Bere poltsiko batean fargoiko giltzak zeuzkan.

- Mendekua izan zen, duda barik —esan zuen don Julianek, kontu hoietan iaioitasuna adierazi nahian. Baten batek kontratatu zuen jendilaje hori Jose ahalik eta era txarreanean hiltzeko aginduarekin. Ez zioten eraztunik ostu,

ez erlojua, ezta ostruka azaleko botak be. Bere sufrimenduaren bila baino ez ziren aritu izan. Horrexegatik ebagi zioten atzamarra agian, edo kontratatu zituenari beharra bete zutela adieraztearren.

Auzokoa susmagarri nagusi gisa salatu genuen, jakina, bai MPn bai egunkarian bertan. Hartu zioten atzera deklarazioa eta libre utzi zuten atzera be.

- Judizialek diote berari zelatan dagozkiola, okerren bat egingo duela azkenez —esan zigun Rodriguez diputatuak— baina nire aburuz plantak egiten ari dira, ezen zuon auzokoak sos ederrak eman omen baitizkio komandanteari. Konplikatu dago arazoa, konplikatuegia.

Laurari hiltzaile eta bahitzaileen argazki andana erakutsi zioten. Bat be ez zuen ezagutu.

Ama sutan zen, beluztea eta arropa malapartatuarekin oraindino be joan etorrika ibiltzeagatik.

Usain hargatik, purrustaka, haserreka joan zitzaion aitari panteoira arte. Han guztiak genituen gure zain: abadea, ehortzetxeko beharginak, hobiratzailea gogoaitu aurpegiarekin, eta Nikanorren senitartekoak, Patrizia, betaurreko ilunak eta jantzi beltz batekin, lar estua, lar laburra nire idurikotz. Abadea hileta elizkizunetan zebilen bitartean aitak disimulu handiz egin zuen berba hobiratzailearekin. Lehen palakada lurra jausi zenerako, aitak jausten utzi zuen ere arropa fardeltxoa hilkutxa gainean.

Etxea bueltatzerakoan Nikanor aurkitu zuen atso zahartxoarekin mintzatzen joan gura zuela esan zion Laurak aitari. Biharamunean berba egingo zutela horretaz esan zion aitak. Eta Laurak zu joan gura ez izanez gero, Patriziarekin joango naiz esanez amaitu zuen.

- Bihar mintzatuko gaitun —esan zuen berriro aitak, haserreka nekez kontrolatuz.

Biharko hemen izango da barren Jose. Gaur gabaz ailegatuko da, ordu txikerretan akaso. Nork hartu ete du egunkaria? Amak gorde du bere poltsoan, nik uste.

Irakurriko duenarekin konformatuko ez dela ondo asko dakidan oraingoan, gertatutakoa gogoz kontra konteu beharko diodala eta zerari buruz berba ahal izango diodan baino lehenago Nikanorri buruz mintzatu beharko diodala segurutik dakidan oraingoan... halaxe, halaz guztiz be, hoba izango delakoan nago... Nikanorrena zerarena baino lehenago, bai hala hobato... zikinkeria hau guztiau kanporatuko banu lez izango da ta, barrenak garbituko banitu lez, horrenbeste izuz, horrenbeste higuinez, horrenbesteko minez zera ez... neure barrenetan daroadan umea ez pozointzearren.

*Narrazioa honen egilea Manuel Quintans da,
eta Aitor Lorentek euskaratu egin du*



Amaia Urizar De Paz

1982
Bilbo


2004. urtetik dago espetxean.



Prisión Provincial Brieva
Apdo. 206
05194 Brieva
Ávila

Atxiloketaren hitz-gurutzuak

Espetxeratu nindutenean, kide batek galdetu zidan ea deskribatu ahal nion hitz baten atxiloketa eta torturak. Hona hemen nire erantzuna: ezi-nezkoa da hitz baten adieraztea.



- | | |
|------------------|-------------------------|
| 1. Indarkeria | 23. Asagotasun |
| 2. Bakartasuna | 24. Zapalkuntza |
| 3. Korromio | 25. Hilketa |
| 4. Zotina | 26. Negar-arpulu |
| 5. Ezintasuna | 27. Bortxatze |
| 6. Uluak | 28. Bakartasuna |
| 7. Zorakeria | 29. Oinaze, estira |
| 8. Adorea | 30. Gabezia |
| 9. Ikara | 31. Bihozmin, erdeinu |
| 10. Higuin | 32. Logabetasuna |
| 11. Zaplastekoak | 33. Lohikeria |
| 12. Zampaketa | 34. Goragale |
| 13. ???????? | 35. Itaunketak |
| 14. Isilunea | 36. Dardara, sentsazioa |
| 15. Zartakoak | 37. Goardia Zibilak |
| 16. Oinazea | 38. Umilatu |
| 17. Izerlekina | 39. Zigorgabetasuna |
| 18. Etsimendua | 40. Isolaketa |
| 19. Esperantza | 41. Akidura |
| 20. Guzurra | 42. Auzitegiko medikua |
| 21. Arnegua | 43. Sinak |
| 22. Gogorkeria | 44. (Ald.) Ezjakitea |



Kerman Urizar De Paz

1967
Bilbo

1991. urtean espetxeratu zuten.



C. P. El Acebuche.
Apdo. 221
Ctra. Cuevas de las Ubedas, km 2,5
04130 El Alquian
Almería

De prisión a prisión

Puede ser que la noche sea solo noche, y que la cárcel no sea mas que cárcel, aquí, ahí, allí...

Enormes cajas de cemento inventadas por hombres asustados por la belleza...; paisaje sin árboles, océano sin olas...

Oscuro lugar donde aquellos incapaces de sentir la emoción de vivir; el vértigo de amar; la ilusión por construir lo nuevo pretenden moldearnos a su semejanza...

Por eso tuvimos que aprender a vivir la belleza de lo que no es pero puede ser; aprender a tener confianza en nuestras fuerzas y no rendirnos en la espera...

Cae la noche en estas lejanas tierras del sur; y ahora, mientras el mundo duerme; en este mar de sueños prohibidos, yo pesco palabras y sin mas equipaje que unas cuantas melodías, navego hacia tus costas...; me sumerjo en estas letras para contarte que quizás los sueños sólo sean realidades sedientas, por eso es importante hacer de estas ruinas un lugar habitable y seguir sembrando ilusiones día a día...

Buceo entre frases para contarte que hasta en las noches más cerradas el sol y la luna duermen cogidos de la mano; tu y yo lo sabemos; por eso, donde ellos han puesto cemento nosotros inventaremos mares en los que navegar...; nos volveremos pájaros para sortear sus muros, barrotes, y volar...; o seremos árboles para poder sentir la llegada del otoño, la primavera, el invierno, o el verano, y así burlarnos de su tiempo impuesto, del tiempo de sus relojes...;

Y me refugio en las comas para decirte que aunque se sintieron vencedores fracasaron; en su brutalidad fueron tan torpes que dejaron libre nuestro deseo, y ellos no sabían que un sentido beso de papel nos basta para acortar distancias, y acercar mis manos a las tuyas, para juntos, tu ahí y yo aquí, seguir sujetando el arma...

Sin fin.

Maitasunez.



Xabier Aranburu Muguruza

1962

Usurbil

1991ean atxilotu zuten.

Bertso sorta honekin Usurbilgo " Santixabel" jaietako bertso-papera lehiaketako lehen saria irabazi zuen.



C.P.Herrera de La Mancha

Apdo. 77

13200 Manzanares

Ciudad Real

Naufragoa

Doinua: habanera

1.
Atun arrantzan daramat
la arratsa osoa
Bizkor porturatzea da
Nire hurrengo pausoa
Orain arte egon arren
Eguraldi txit jasoa
Zelatan dagon enbatak
Ez du aurpegi gozoa
Berandu ikusi diot
Amarruaren lazoa
Bat batean lehertu da
Izugarrizko erasoa
Euri ta haize zakarrez
Astindurik itsasoa
Infernu bat bilakatuz
Lehen zen paradisoa

2.
Hil edo bizikoa da
Aurrean dudak burruka
Eta izuak akabatzen
Nagoela ezin uka
Herio suharrak jota
Bihotza arnas-estuka
Ekaitz zital alaenak
Paralizaturik nauka
Itsasoaren ahoan
Txaluparekin zabuka
Lau metroko olatuen
Atzaparreta bihurka
Ura edonondik sartzen da
Hondoratze txalupa
Intxaur oskol bat bezala
Kolpetik gaitu zurrupa

3.
Ziplo hondoratu gaitu
Itsas handiaren bortxak
Ta segundoak ez dira
Batere egiten motzak
Dantza makabro honetan
Ai, zenbat trago mingotsak
Itolarriaren suak
Laster kentzen ditu hotzak
Ur-azalera etorrita
Arnasa hartze zorrotzak
Indarrak eskuratuta
Tinko erakusteko hortzak
Bizitzaren hariari
Helduta buru-bihotzak
Alferrik jarraitu dezan
Ate-joka heriotzak

4.
Ekaitzaren haserreak
Azkenean jo du muga
Gorriak ikusi ditut
Asto beltzaren modura
Gutxi falta izan zaio
Bidal nintzan infernura
Baina baretzen joan da
Negua bihurtuz uda
Une horretan askatu
Zaidan barrengo estura
Sendimenduen eltzean
Negar batean hustu da
Begirada zuzendurik
Urdindutako zerura
Horretxek ekarri baitit
Itxaropena eskura

5.
Txalupari atxikirik
Itsasoaren esklabo
Gauak bere oihal beltza
Zabalduta emaro
Zeru izartsuari so
Animatu naiz zeharo
Ilargiari bertsoak
Errezitatuz oparo
Baina ahuldadea lagun
Ezin segitu luzaro
Gorputza nekaturik-ta
Burua nekatuago
Etengabeko kulunkan
Lo hartu ez hartu nago
Hala gertatuko balitz
Orduantxe bai, akabo!

6.
Itsasoaren sehaskan
Batera eta bestera
Noraezean dabilen
Erromesaren antzera
Pentsamenduak doazkit
Behin da berriro etxera
Abisurik eman gabe
Etorri bainaiz honera
Axolagabekeriak
Horra nolako galera
Damuaren haginkadez
Nire bihotza bete da
Amorrazioak ez dit
Irauliko egoera
Aurretik behar nituen
Kontuak garbi atera

7.
Trapu zahar bat dirudit
Hainbeste ordu jitoan
Burua altxa ezinik
A ze trantzean nagoan
Ur gaziz inguraturik
Egarriak ia itoan
Mingaina ezpartzu lehor
Aparra ezpain ondoan
Hotza hezurretaraino
Sarturik dut luzaroan
Hipotermiaren harra
Hozkaka erraien hondoan
Gorputza gogorturikan
Obsesio bat kolkoan:
Nire bila etorriko
Ote dirade behingoa

8.
Jotake ariko dira
Bilaketan beharbada
Baina argirik ez dator
Gandututako bistara
Justu-justu entzuten dut
Itsasoaren marmara
Zeinak ezabatzen duen
Esperantzen uhara
Etsipenaren zuloan
Ilunagoa zait gaba
Azkenetan nagoela
Pentsatzeari ezin laga
Taupada hits lotsatiaz
Bihotza joka aldaba
Larru bizian dagoen
Agoniaren balada.



Joxe Blanco Gomez

1967

Laudio

2001. urtean atxilotu eta espetxeratu zuten.



C. P. Bonxe
27153 Bonxe
Lugo

Basajaunarekin topo egin nuenekoa

Mikel pozik zegoen. Biharamunean, ostirala, txango-eguna zuten ikastolan eta irrikitan zegoen lagunekin eta andereñoarekin irtenaldi bat egiteko, primeran pasatzen zuten eta! Oraingoan, Gorbeiara joango ziren, Itxinako haitzguneko kobazuloak-eta ikustera; benetan kilikagarria! Andereñoak kontatu zien zelan urak, denporaren poderioz, kobazuloak eta arrakalak egiten zituen kareharrian; eta zelan bertako haitzetan eskeigita, haginak, zuhaitz ikusgarriak eta magikoak bizi ziren, ehundaka, milaka urte izan zitzaketenak; eta baita ere, zelan aintzineko euskaldunek uste zuten Mari Jainkosak bertoko leize eta zoko malkartsuak zeuzkala jauregi eta gotorleku, eta hori zela eta, kobazuloen gainean leienda, kontu eta sorginkeria asko asmatu izan zirela... Ezin kilikagarriagoa aurreikusten zen hurrengo eguneko txangoa! Beraz, dena prest laga ostean, goiz oheratu zen Mikel, biharamunean bizkor-bizkor egoteko.

Eguraldi mundialarekin, Itxina azpiko herrixkarainoko, hots, Urigoitirainoko bidea egin zuten ezin bihurriago errepide estu batetik, autobus-dantzak sabelari astindu ederra ematen ziola... segituan baretua, danen begien aurrean zabaltzen hasi zen paisaia paregabea ikustean, Itxinako labarra, mendigune haitzezkoa hain zuzen ere. Hura bai ikusgarria, gotorleku baten antza zuen eta! Eliz txikiaren parean, autobusak buelta eman eta gelditu ostean, gaztetxo guztiak algara batean jeitsi ziren, andereño-maisuen esanei jaramon egin barik, egoerak zeharo hunkituta. Azkenik Andereñoak oihuka egin behar izan zien nork bere bizkar-zorroa hartu eta txangoari lotzeko formal-formal.

Hasieran, pinu artean zihoan basobidetik gora egin zuten, jarraian jertseak kentzera behartu zituen aldapa pikuari ekiteko. Pinudiko irteran paisaia ezin ederragoa agertu zitzaien, hormatzar izugarriak eta ikara sortzeko moduko erpin zorrotzen artean: Itxinako gotorlekuaren labarrek zeharkaezinak ziruditen! Mikelek ez zuen asmatzen xendrak nondik jo zezakeen mendi-magaleko belardia amaitzean. Harresiaren azpira hurbildu ahala, jakingura gora zihoakien; Andereñoak esana zien gora egin behar zutela, baina nondik? Berehala antzeman zuten hormatzarraren alde apalagotik gora zigi-zagan zihoan xendra. Edozelan ere, mendi pen-

diza izugarria zen, taldeko alperrenen nagia astintzeko modukoa. Bidexka pikuari ekin eta sudur puntan kilika egiten zuten izerdi-tantak agertzea bat izan zen, Andereñoari nora demontre zihoazen kexuka itaundu bitartean. Bat-batean, horma gotorretik agertu argi-izpiak ikusten hasi ziren, harresi erdian zegoen zabalgunetik igarotzen zirenak: Atxularreko ataka zuten, Itxinarako arrera eta zorionez, txangoaren punturik altuena; hots, egun hartan ez zuten gehiago igo beharko, akabo aldapa gogorrak... oraindik arnas estuka ari ziren gaztetxoek pozik hartu zuten berria! Bertan zabaltzen zitzairen paisaiak girotuta, atsedenaldi egin eta ura edan zuten ahalegina arintzeko gotorlekuaren barnealdea zuten aurrez-aurre, haitzezko loretokia zirudien troke, zulo eta erpinez jositako alor ikusgarria.

Segidan, Supelegor haitzulo ospetsura (eta txangoaren helburua) abiatu ziren, non otordua egin zuten. Bide malkartsutik hara heldu ziren azkenik, Supelegor trokera, izen bereko kobazuloaren aho ikusgarria dagoen sakan txikira, alegia. Kobazuloaren ahoa handia zen eta Andereñoak elkartzeko esan ostean, barne aldera, hots, lurpera sartu ziren eskuargien eta kopetargien laguntzaz. Andereño bat kontatzen hasi zen zelan urak kobazuloak sortzen zituen kareharrian; giro ilun eta umela beldurtzeko modukoa zen baina kopeta-argiei esker estalaktitak eta estalakmitak, eta baita lurpeko laku txiker bat ikusteko parada izan zuten txangokideek. Buelta hartu eta irten ziren ilunpetik, aire zabaleko eguzkiaren epela berriro ere dastatzeko gogoz. Geldinue nagusiko eta otartea jateko ordua iritsia zen, igoeran xahutu indarrak berreksuratzeko unea, goseak amorratzen baitzeuden. Andereño batzuek ekarritako pastelak (zanpatuxe bizkar-zorrotan garraiatzearen ondorioz) merezitako postre-saria izan zen, termotan ekarri kakao-esne beroari laguntzeko ezin aproposagoak. Andoni maisuak orduan, kobazuloaren gaineko kondairak kontatzeari ekin zion: Mariren bizilekuetako bat ei zela Itxinako gotorlekua eta Supelegor; logela ei zeukala... Ipuinak kontatzeko maisuaren trebetasunak ez zuen ekidin ariketaren osteko jatorduak gaztetxo bizkor baina nekatuengan logurea sortzea. Mikelek ere, berriketa goxoari ezin eutsi begiak bildu barik eta loak hartu zuen.

Bat-batean, lauso artean, barre-algara ozen entzuten hasi zen eta ikusmena argitu bitartean, bere aurrean barre-algaraka zegokion giza itxura-ko izaki izugarria agertu zitzaion. Gazte lerden bezain handikote bat zen, ilehoriko txima luzeduna, ardi narruzko jantzi eta abarkekin, begi batean larru-adabakia zeramala. Bere handitasunak eta basatasunak beste, barre harroxkoek beldurtu zuten Mikel gizarajoa; eskuan, dotoreki zizelkatutako urrizko makila zeukan. Mikel dar-darka zegoen; baina izaki beldurgarriak jator berba egin zion, barreari guztiz utzi barik:

- Egon lasai, mutill! Ez izan beldurrik; ez dizut kalterik egingo eta. Esan, ba, zelan duzu izena?

- Mi-Mikel.

- Ni Basajauna nauzu eta barka nere barre-algarak; ezin ekidin zuei lurtar arruntei, euskal mendigunetako izaki magikoen gainean berba egiten entzuten dizuedanean; dena sineskeriak eta asmakeriak direlakoan; izan ere, lurtar arruntek harrokeria handiz eta begirune gutxiz hartzen gaituzue, bai Amalurra bera, baita hari lotutako izaki magikoak ere. Eta horrexegatik agindu didate zugana jotzea; egia agertarazteko. Tira, ez zabilzate hain oker: Itxina Mariren gotorlekua duzue eta lagundu gura badidazu, erakutsiko dizut.

Urrizko makila zabalera hartu zuen esku biekin eta Mikeli oratzeko esanez, gorantza salto egin eta hegan ez ziren hasi ba! Sinesgaitza zen hura, haizgunearen gainetik hegalka ari ziren, ikusmira ezin zoragarriagoa ahalbideratuz. Basajaunak ezker eskuaren hatz erakuslearekin kea zerion leize-zuloa erakutsi zion Mikeli.

- Horra hor Sugarra-en bizilekua; umore txarreko herensuge beldurgarria duzu Sugaar baina xaloa eta txintxoia ere oso; Mariren laguntzaile nagusia da. Siesta egiten ibiliko eta hobe paketan uztea.

Airean, eskuinera joz, Itxinako mutur batetara abiatu ziren, piramide formako tontor batean lurra hartu zuten arte. Mikelen bihotz-taupadek arnasa hartzea oztopatzen zioten, hain handia ziren zirrara eta hunkidurra! Basajaunak mendi magalean zabaltzen zen zelaigune berdea erakutsi zion eta Mikelek, harriduraren harriduraz, leku batetik bestera arineketa bihurrian ari ziren ehundaka izaki txiker ikusiahal izan zituen, eskuetan lantzak, geziak eta arkuak zeramatzatela.

- Horiek galtzagorriak dituzu: gotorlekuaren defentsa bere gain dute eta Itxingote zelaigunea daukate trebatze eremu, galtzagorriak gudari ausartak baitira. Kontuz gero Mariren gotorlekua erasotzen ausartzen dena, galtzagorrien lantza eta gezi zorrotzei aurre egin beharko die eta! Goazen!

Eta jauzi handi batekin, Mikel konturatu orduko, hegalka ari ziren ostera ere. Mikel txundituta zegoen, hura guztia sinestu eta barneratu ezinean. Horrela, Basajaunak Mariren gotorlekuaren txokiak eta bizilagunak erakusten jarraitu zuen: haitzezko eremuaren erdian zabaltzen zen belardian kokatu Lexardi izeneko iturburua, non lamiek ilea garbitu eta orraztu egiten zioten Mari-ri; haraxeago, Arkoaxpeko biltokia, bilerak eta akelarreak ospatzeko harpea; iparmendebaleko harresian altxatzen ziren eta Atso-Agureak izeneko atxak, Mari eta Amalurraren jakinduria zein sekretuak gordetzeko ardura zutenak; Aginaitz-eko behatokia, Tarttaloaren bizilekua...

Mikel zur eta lur zegoen, harriduren kabitua ezinik, harri multzo zabala besterik ez zena, zelan izaki sinesgaitzen bizilekua izan zitekeenik. Txunditurak halakotarako tarterik uzten ez bazion ere, bere artean zalantza bat sortzen joan zitzaion: "Itxina Mariren bizilekua bazen, non demontre zegoen bera? Ordurarte ez zuten ikusi eta!" Eta hegaz zihozela, berba egiteko gauza apenas ez zela, Basajaunari itauna luzatzen ausartu zen:

- Aizul, eta Mari non da ba!? Itaundu zion Mikelek lotsati. Basajaunak, irri eginez eta gorantza begiratzuz, hatz erakuslea zerurantz zuzendu duen, izar-uxo distiratsu bat jausten zen une berean (harigarria izan ere, egun argiz izar-uxoak ikustea oso zaila baita!)

- Hortxe duzu Mari!, bota zion Basajaunak. "Beti beharrean leku batetik bestera, naturaren zereginetan, inoiz ez egonean. Bere premia izatekotan, badakizu non bilatu."

Ikastolakideen eta maisu-andereñoen barre-algarak entzuten hasi zen orduan, baita berari deika ari zitzaien ahots bat ere: "Mikel, Mikel!" Oharkabea loak hartu zuen eta konturatu orduko jeisteko ordua heldua zitzaien. Loaldiak burua nahasi samar utzi zion, oso amets arraroak izan zituen eta! Kontuz ibili behar izan zuen jeitsieran, lozorrotik irten berriak eman moteltasunak bide malkartsuari ganoraz erreparatzea galarratzen ziolako; behin baino gehiagotan erortzeko zorian egon zen.

Edozelan ere, Urigoiti arteko bidea igoerakoa baino laburragoa egin zitzaien Mikeli. Autobusean sartu eta etxerako bidea hartu zutenerako ilundua zegoen. Gaztetxoak, jezarlekuetan paratu eta kantan hasi ziren, txango egunari alaiki amaiera emateko. Dan-danek, Mikelek izan ezik, oraindik ametsak eraginda, bere baitarako gogoetan murgilduta. Errepide bihurriko errebolta batean, burua atzera eramanez eta aspaldi izkutatuturiko eguzkiaren gorritasunak apenas argitzen zuen ltxinako labarrari so egin zion azkenekoz; haren gaineko zeru ilunean keinuka ari zitzaien izar-uxo distiratsua ikusi zuen.

*(Ene maiteño, amandre, bidaide, sokalagun eta burkideari,
Basajaunagaz topo egin gendunekoa akordura ekarriz)*



Kristina Goirizelaia Gonzalez

1967

Bergara

2003. urtean atxilotu eta harrez gero dago espetxean.



Preso zenbakia: 917 581
Maison d'arrêt
3, Allée des Thuyas
94261 Fresnes Cédex
Frantzia

Martxoaren 8an

Haizea zara,
Enbata bortitzak altxatuz;
Sua zara,
Oldartsua, harroa;
Lurra zara,
Biziari sustraiak emanez;
Ura zara,
Guztion egarria asetuz;
Emakumea zara, bai,
Gozoa, osoa.

Oso Zaila

Lehengoan esan zidaten
Imajinazioarekin hemen ez dagoen
Zerbait ukitzeko
Zaila izan arren, saiatzeko esan zidaten.
Kaletik zetorren hori esan zidana.
Zaila! Ez dago niretzat ezer errazagorik,
Hemen zaila dena da
Gauza errealak ukitzea.
Ondoren usain bat imajinatzeke,
Zaila hau ere,
Dastatu ere egin behar nuen zerbait imajinazioarekin
Eta soinua, noski, aditu behar:
Den-dena oso zaila.

Ez dago, baina, ezer errazagorik,
Gusturik gabeko espetxea
Kolarebakoa,
Hileri baten moduan isila,
Laztanik ez hemen,
Ezta usainik ere

Hemen den-dena imajinazioarekin
Egiten dugu;
Eta memoriarekin
Musukatu zaitut, laztandu zaitut,
Zure arasaren erritmoa segitu dut
Zure begiradan galdu naiz
Zure itzak gozatu ditut...

Zaila omen da,
Baina imajinazioari esker
Bizirik gaude,
Imajinazioari esker
Zure ondoan sentitu ahal naiz,
Eta zu maitatu, zu gozatu.
"oso zaila".

1.

Hitzak, hitzak
hitzek mundua eraikitzen duten
edo mundua islatzen
ziur ez nago;
badakit ordea
nola zure hitz gozoak
maite ditudan;
eta gorderik, zuretzat,
bihotzean ditudanak,
horiek ere,
nire maitasuna eraikitzen duten
edo islatzen
ziur ez naiz,
baina badakit
zureak direla
inoiz esan gabe
geratzen badira ere.

2.

Uda beroan begira
inguruan zenbat sukaldari
misteriorik handiena
gertuen duguna ohi da;
hara erlearen historia:
bere biziraupena denon mesede
halere etsaitzat hartua;
erlea, abertzalea,
errima kasualitatea ote?

3.

Berriro!
lagunak eraman,
lagunak ekarri,
hori ere
inposaturik;
ez dakit honezkero
zein den altuago
inguruan dugun harresia
edo
gure bihotzetan
eraiki beharra duguna.

4.

Nola esango nizuke
nola esan, nola
agian horixe da arazoa
ez dudala esan nahi
hitza maite dut baina
badira
esan behar ez diren
hainbat gauza,
baizik eta
sentitu,
eta horixe,
sentitu,
sentitu egiten dudana
gozatuarazi nahi nizuke.

5.

Bidelagun zaitut oroimena,
nitaz dena dakizu;
nik zutaz, berriz,
bidea egiten goazelarik,
biak elkarren ondoan,
ikasten joan beharra dut.
Lehen ez nizun kasu handirik egin,
bidean beti aurrera begiratzen,
horrela behar zela uste bainuen.
Eta orain ikasten nabil, bai,
ikasten bidean aurrera egiten bai,
zurekin, bidelagun.

6.

Begira, begira
hor naiz
baina ez naiz ni
noraeza ezagutu du
askotan galdurik
dena ikasi nahian
ezjakintasunean murgildurik
hor naiz
baina ez naiz ni;
han-hemenka ibili da
sustraia
barnean duela konturatu gabe
hor naiz baina ez naiz ni
ez, ez naiz ni:
ni hemen naiz.

7.

Zuek, zuek zer nahi duzue?
Dena kendu diguzue,
Zuen “libertadia” defenditzeko
Gurea kendu diguzue
Zer nahi duzue guk egitea?
Mendeetan zehar
hil gaituzue, deportatu,
bortxatu, torturatu,
sutan erre ere,
eta hitzarekin defendi gaitezen
dionue,
zer uste duzue?
Hitza berea erabilita
Zapaltzen gaituzue eta!
Zuen dominioa mantentzeko
Indarra erabiltzen duzue
Eta guk armarik ez erabiltzeko dionue?
Zer nahi duzue, guk mundu osoa nola suntsitzen duzuen
Ezer egin barik ikustea?
Hori bizitzea da?
Desesperantza osoan bizitzea?
Edo iragarkietako zoriontasunean bizitzea?
Nahiago dugu hil!
Baina inolaz ere ez borrokatu barik bizi!!!

8.

Sentitu bai eta asmatu ezinean
hizkuntzaren borrokak ia
amildegira eraman nau
nola liteke
indar askatzailea
katea bihurtzea?
Errazegia litzateke
norberaren ezintasuna
besteen lepora ipintzea
norberak etsi egiten duenean,
beste biderik saiatzen ez duenean,
beste biderik saiatzen ez duenean.
Euskarak merezi zuen,
merezi du oraindik!



Iñaki De Juana Chaos

1955

Donostia

1987. urtetik dago espetxean.
2004ko urrian amaitu zuen Espainiako Auzitegiak eza-
rritako espetxe-zigorra. Hala ere, kartzelan preso
segitzen du hemen argitaratzen ditugun bi iritzi artiku-
lu hauek idatzi eta GARA egunkarian 2004ko aben-
duan argitaratzeagatik prozesatuta.



C. P. Botafuego
Apartado. 143
11207 Algeciras
Cádiz

El escudo

Veo la televisión. Escucho la radio. Leo periódicos y revistas y el bombardeo es intenso y permanente. El enemigo está crecido. Detenciones en Iparralde y Hegoalde. Redadas en los estados francés y español. Informaciones venenosas que pretenden inocular el virus de la desconfianza.

El Lobo, un simple chivato al que la txakurrada vació antes de tirarlo al estercolero de lo inservible (como a todos los chivatillos) es recuperado ahora y elevado a la categoría de héroe de la infiltración y de los servicios secretos; a protagonista de películas y reportajes donde exhibe bravuconadas novelescas a golpe de guión y talonario.

Maniobras de desánimo. Filtraciones de correspondencia y conversaciones, totales o parciales, pero en todo caso interesadas y manipuladas, aun reconociendo que no debemos facilitarles el trabajo.

Dispersión penitenciaria: carcelaria e intracarcelaria. Malos tratos, torturas renovadas en el tiempo pero permanentes en las formas y tan antiguas como lo es la represión política. Agresiones. Sufrimiento para nuestros familiares y amigos. Compañeros enfermos a los que se chantajea con la gravedad de la situación.

Sí, la ofensiva es fuerte, en todos los frentes e innegable. ¿Quizás el enemigo está aventurando que nos puede dar la puntilla? ¿Que puede acabar con el MLNV? ¿Que va a conseguir doblegar a un pueblo o, al menos, silenciar sus pasos haciéndole pisar exclusivamente moqueta?

No necesito ser adivino para poder chillar con toda fuerza y convicción, en una expresión políticamente incorrecta: ¡La tenéis clara! Iros a la mierda con todo lo anterior porque no vais a ganar; ¡O es que todavía no os habéis dado cuenta de que tenemos un escudo invulnerable que no es otro que la razón!

Como todo poder totalitario, fascista o neofascista, el actual Gobierno del PSOE, como el predecesor y anteriores, se ve en la necesidad de reescribir permanentemente la historia; de manipular y mentir creando buenos y malos a conveniencia, superando con mucho los límites de la conocida ficción orwelliana. Y ello como estrategia de guerra con el único y declarado objetivo de nuestra asimilación, del logro de la renuncia a nuestros principios, valores y derechos, y nuestra integración en su sistema.

Jueces prevaricadores, políticos corruptos, profesionales de la tortura, carceleros sin escrúpulos... sois aburridos, cansinos y previsibles. No merecéis ningún respeto ni consideración, ni siquiera el mínimo como para cuidar el tono de esta carta.

Pero esto merece una explicación. ¿Totalitario el talante de Zapatero? ¿Fascistas esos ojitos azules y esa sonrisa angelical? ¿El mismo que ha sacado a los soldados de Irak? ¿El que va a modificar las leyes del aborto, divorcio y otras tantas para contentar a una «izquierda domesticada»? Pues sí, totalitarismo sin ninguna duda, porque tomando como prioridad preferente a Euskal Herria, como no podía ser de otra forma para los vascos, quien promulga leyes de excepción, quien crea o mantiene tribunales especiales, quien ampara la tortura, persigue y reprime los derechos de asociación, de expresión, de prensa... quien prohíbe la participación política y electoral. Y quien todo lo hace para silenciar a una nación y negarle el derecho de autodeterminación, es un fascista de manual y dejémonos de florituras de lenguaje.

Técnicamente, el 25 de octubre de 2004 terminé de cumplir la condena intramuros impuesta por su sistema jurídico y penitenciario con el Código Penal de 1973, código franquista incomparablemente más «blanco» que el actual de sus herederos. A partir de aquella fecha no he salido de prisión, oficialmente porque el juez Gómez Bermúdez —otra estrella meteórica labrada sobre sufrimiento vasco— tiene «dudas» sobre la condena cumplida. Y una vez más no deja de asombrarme —yojalá no pierda nunca esta capacidad— el desprecio que de sus propias leyes tienen sus servidores. Que las rechacemos nosotros que las combatimos es natural, pero que las desprecien quienes comen de ellas es un indicador más de cuál es su función.

Sin embargo, no se pueden ni se deben utilizar en mi caso los términos ilegalidad, secuestro...Y no me gusta que lo hagan en mi defensa, porque de forma ilegal y secuestrados por un sistema autoritario, en la cárcel y algunos desde hace bastante más tiempo que yo, estamos 700 compañeros y compañeras, y extramuros lo está toda la parte de la sociedad que no se conforma. Al fin y al cabo, hay centenares de miles de vascos y vascas que hoy están en un cuarto grado penitenciario, a la espera de que cualquier noche unos uniformados aporreen su puerta y les notifiquen la represión por mal comportamiento.

Mucho más claro ha sido el ministro López Aguilar: A De Juana no se le puede excarcelar de ninguna manera y no hay más que hablar: ¿Motivo? No da signos de resocialización. Sin embargo, afortunadamente, de resocialización no da signos ni De Juana ni una inmensa mayoría de los 700 presos y presas, ni una gran parte de la sociedad vasca.

Porque resocializar en el sentido utilizado por el enemigo implica la derrota y la aceptación de los contravalores que de tan magnífica manera representan todos los López Aguilar, Zapatero y Gómez Bermúdez. Pero deberían hacerse una pregunta: si 700 compañeras y compañeros con miles de años de cárcel cumplidos y por cumplir en nuestras espaldas no damos signos de «resocialización», ¿no será que algo les falla en el «tratamiento penitenciario»? Lo que les falla es que tenemos el escudo de la razón. Y que nada es insuperable, ni en lo personal ni en lo político, salvo la interiorización del fracaso.

En todos los procesos hay altas y bajas. Las apariencias también engañan. Políticamente, el ruido no significa fortaleza ni el silencio debilidad. Vamos a ganar. Leamos historia de otros procesos triunfantes, no de los perdedores. Comparemos la aceptación de nuestro discurso político por parte de la sociedad vasca, ahora y hace 25 años. Y lo demás es fácil: trabajo, sacrificio, aprender de los errores y no meternos palos en la rueda de nuestra propia bicicleta.

Hace años le escuché a un muy apreciado compañero chillar con fuerza «Sacad vuestras sucias manos de Euskal Herria». Sí, sacadlas, porque otro camino sólo implica más sufrimiento. O el futuro terminará demostrando, sin duda, que os quedásteis sin ellas.

Gallizo

El pasado 14 de diciembre, la señora Margarita Uria se dirigió al presidente del Gobierno en el transcurso de la Comisión de Investigación del 11-M, para preguntarle, entre otras, sobre determinadas cuestiones penitenciarias. Tras un preliminar de sonrojantes alabanzas hacia la señora Mercedes Gallizo, la comisionada interrogó al señor Rodríguez Zapatero, exclusivamente, sobre la filtración de unas imágenes y de una carta a los medios de comunicación.

La señora Margarita Uria no preguntó sobre la tortura y malos tratos. Tampoco sobre la muerte y la enfermedad de los presos. No tuvo interés en el aislamiento y la incomunicación. Ni en los accidentes... Y mucho menos preguntó por la dispersión, quizás porque le podrían haber respondido que ésta tuvo su principal valedor en el partido político de la propia comisionada. Un PNV legitimador de la represión y de la más cruel política penitenciaria, no sólo en cuanto a su diseño teórico y cobertura en la puesta en práctica, sino como protagonista con sus propios asesores en la Dirección General de IIPP.

Ni la señora Margarita Uria ni ninguno de los parlamentarios y parlamentarias que enarbolan los derechos humanos como bandera de combate tuvo la remota ocurrencia de interesarse por las vejaciones y agresiones sexuales sufridas por algunas de las detenidas en las últimas redadas policiales. Sobre esto no tiene interés la señora Uria, no ya como parlamentaria, sino ni siquiera como mujer. Y no se lo pregunta porque sabe que el ser detenido/a como presunto etarra en una operación represiva con la consiguiente cobertura mediática es suficiente motivo para no tener ningún derecho, incluido el de no ser torturado. Decía la hipocresía de arraigo: Quien roba a un ladrón tiene cien años de perdón». Dicen los nuevos referentes de la ciudadanía: violentar al agredido no es doble violencia, es justicia y silencio». Pero esto lo sabemos todos, incluida la comisionada, que alaba a la señora Gallizo.

Y entre tanta alabanza de personas de bien (no como yo que soy vasco y rojo, además de varios istas), reflexioné si estaba equivocado. ¡Sé positivo, Iñaki!, me dije. Imaginé que los muros de hormigón eran de chocolate. Que de cabello de ángel estaba hecho el acero. Que los tres presos muertos la pasada madrugada en las cárceles de Langraitz y Zuera eran muñecos de mazapán. Pero, es curioso, no conseguí imaginarme a la señora Gallizo siendo otra cosa que lo que es, como lo eran sus predecesores.

Cuando el PSOE ganó las últimas elecciones generales se levantaron ciertas expectativas entre quienes son dados a creárselas, ya sea por ingenuidad o por necesidad. Ilusiones que en política generalmente el tiempo las demuestra falsas. Lo mismo ocurrió con el nombramiento de la señora Gallizo como directora general de IIPP. Aunque en un principio los numerosos relevos en las direcciones de las cárceles pudieron tomarse como preludio de cambios más significativos, el conocer la relación nominal de los nombramientos me reafirmó en la convicción de que el único horizonte de justicia en las prisiones es la demolición de sus muros. Esperanza ésta que por utópica que parezca es mucho más realista, sin carga de hipocresía, que pretender o esperar que el hormigón y el hierro encierren derechos humanos en lugar de violencia y sufrimiento.

En esta prisión de Algeciras, la señora Gallizo destituyó al director Miguel Ángel Rodríguez, alias el Tragasables. Profesional culto que reaccionaba inmediatamente al escuchar el nombre de un preso político vasco. Y fluidamente hilaba un discurso elaborado: Las resoluciones judiciales de los etarras me las paso por el forro de los cojones». Todo un viejo conocido del colectivo de presos políticos vascos que no ha sido destituido por acumular montañas de denuncias e irregularidades. Ni siquiera lo ha sido por una pequeñez como la de, presuntamente, meter la mano en el cajón del dinero en el C.P. de Puerto II y por lo que fue expedientado. Ha sido destituido por no ser del mismo partido político que la señora Gallizo. ¡Hasta ahí podíamos llegar!

Pongo la televisión. Informan sobre el festival de cine de Huelva. Junto al actor Imanol Arias, haciéndole los honores, casi babeando alrededor suyo, me parece reconocer un rostro de desagradables recuerdos. Tiene el pelo blanco y la apariencia muy envejecida, aunque no será por la conciencia que le perturba. En todo caso será por el castigo de los excesos. Siento el consuelo tonto de comprobar que, en esta ocasión, el torturador tiene peor apariencia que los torturados. No hay duda. Esa cara la tenemos marcada en nuestra memoria a golpes de malos tratos y hambre. Es Francisco Sanz. Subdirector de la prisión de Málaga. Director del Salto del Negro, de Puerto II, del C.P. de Huelva en la actualidad, donde ha organizado que algunos presos otorguen un premio cinematográfico dentro del festival. Por esto babea alrededor de Imanol Arias y lo primero que me viene a la mente ante la imagen es preguntarse si el actor habrá notado el surco de la porra y la humedad de la sangre al darle la mano. En el C.P. de Huelva no parece que haya habido cambio de director.

La lista de los nuevos nombramientos es larga, hasta 21 nombres y 10 más por cambio de destino. Algunos apellidos me hacen rebuscar en la memoria. Era el año 1977, creo, porque el único archivo con el que cuento, mi cerebro, tampoco es un disco duro. En todo caso, eran los años posteriores a la muerte del general Franco, cuando la sociedad desbordaba ilusión y los partidos políticos conspiraban para destruirla. Caminaba por Madrid un día de aquellos muchos de manifestación en demanda de amnistía y libertad. Dejé atrás la Gran Vía. Subí por la calle de los Libreros y, a la altura del desaparecido hotel Darde, me topé con un grupo de jóvenes como yo, que bajaban corriendo y chillando han disparado». Con más curiosidad que precaución, continué hasta el final de la calle. Torcí a la derecha tomando la de La Estrella y, algunos metros más allá, estaba un joven tendido en el suelo, muerto en un charco de sangre. Aquello se llenó de grises y parece que quienes habían disparado eran argentinos de la Triple A. ¡Qué más da! Una de aquellas siglas que escondía todas lo mismo, y que reaparecen cuando es necesario.

El joven muerto se llamaba Arturo Ruiz y tenía un hermano que empezó siendo de izquierdas y terminó siendo del PSOE y haciéndose carcelero. Funcionario de prisiones de confianza, tanto, que prestaba su despacho de madrugada en la prisión de Almería para que se celebrasen conversaciones secretas entre enviados del Gobierno y representantes de una organización revolucionaria armada que NO es ETA. De esas negociaciones que nunca existen, y si existen se niegan. Arturo Ruiz murió un día de lucha por la amnistía y la libertad y su hermano vive para cercenarla. Y vive bien como nuevo director del C.P. de Sevilla II.

Jesús Eladio del Rey Reguillo, alias el Tirillas, nombrado nuevo director del C.P. de Valdemoro. Y lo primero que me viene a la cabeza es el motín del módulo I de Herrera de la Mancha en el año 1988 en el que de poco más de 40 presos políticos vascos la mitad pasamos por la enfermería y cinco compañeros acabaron con roturas de huesos en el hospital. Una imagen esperpéntica aquella del Tirillas con un cuchillo de monte en la mano al frente de un nutrido grupo de carceleros y guardias civiles, recorriendo las galerías del módulo de celda en celda e indicando quién debía recibir sesión de palos simple o doble.

Manuel Martínez Cano, alias el Morritos, nombrado nuevo director del C.P. de Jaén. Provocador y detonante del anterior motín referido y cuyo único recuerdo agradable que puede haber dejado en algún preso es el que se le viera totalmente acobardado y rociado de polvo blanco a golpe de extintor de un compañero en aquel mismo motín.

Antonio Diego Martín, nombrado director del C.P. de Puerto II y procesado por torturas y rigor innecesario en la prisión de Sevilla II. Juzgado junto al ex director general de IIPP, Antonio Asunción, nunca fue apartado de su trabajo represivo, ejerciéndolo hasta ahora en la prisión de Melilla. Los presos engrilletados durante semanas a los catres. Las sesiones de tortura, desnudos y rociados de agua, los lamentos y chillidos, nunca merecieron un solo día de cese en su cargo. Al contrario, merecen un ascenso al llegar la señora Gallizo.

Para qué continuar con el listado. Me he convencido. La nueva política penitenciaria del nuevo Gobierno del señor Rodríguez Zapatero consiste en recuperar o promocionar a los personajes de más triste recuerdo para los presos en general y para el Colectivo de presos políticos vascos en particular. O en mantener en su cargo a quienes ya cumplen aquellos requisitos.

Las expectativas se han cumplido. O a lo mejor me equivoco y los torturadores son capaces de luchar contra la tortura. Experiencia no les falta. Y entonces, incluso yo sería capaz de imaginarme a la señora Gallizo de otra manera de la que es.



Galder Bilbao Martinez

1973

Algorta

2003. urtean atxilotu eta espetxeratu zuten.



C.P. Madrid V
28791 Soto del Real
Madrid

EPPK-ak burututako gose greba 2005. urteko martxoak 15-27

- | | | | |
|---|---|---|---|
| 1.
Beldurra ere eman dezake
hitza entzutean "barau"
azkenean horrela izan giñen
hainbat egun ta hainbat gau
nahiz ta debekatua suertatu
hartzea jana ta arda
hasieratik bukaerararte
bertsoak elikatu nau | 4.
Ondo eta lasai bizitzea
da gure afizioa
baina gure herria maitatzen
jarri dugu ofizioa
plante, txape eta orain barau
kartzeletan akzioa
hori izan da umiltasunez
gure aportazioa | 7.
Ahots goxoa, hizki politak
jasotzearen beharra
bertatik xurgatu dut gustora
elikagai bakarra
osagai hauek maite ditugu
ta ez da kontu zaharra
gutun eta telefono deiek
eman digute indarra | 10.
Berrogeita zortzi orduko eguna
eguzki ta ilargiarekin
izugarritzko egarria zen
egoteko lagunekin
asetu ezineko gogoa
askatasun goseakin
barrote ta sarraila artetik
gauero oihua: "on egin!!" |
| 2.
Bizitakoa deskribatzeko
oso labur dira bi hitz
greba askoz luzeagoei buruz
entzun egin dugu aunitz
ez dakit nik zer gertatutko zen
gehiago egon behar banintz
ur botila gertu mementu oro
txupetea baldin balitz | 5.
Kideen esperitentziak aditu
galdera asko egin lehen
Landabururen liburua ondoren
irakurri dugu zuzen
telefonotik entzun ditugu
gomendio ta agindu ozen
denon artean prestatu dugu
aurretik eta ondoren | 8.
Hau hori eta bestea eskeintzen
arruntekin beti dantza
Julito marikoiagaz ere
egon zen tartean saltsa
"Indarge hago ta besoetan
jaitsiko haut patiorantza"
nahiz eta beharrezkoa ez zen
eskertzen genuen laguntza | 11.
Goilara sardeska ganibetek
jaso egin dute beto
katilu eta platerrarekin
txokotxoan zeuden seko
argia ta bidea erakutsiz
izar gorriak ederto
higitaia ta mailua goian
beti izango dira presto |
| 3.
Isolamendu ta bakartzea
da ezarri digutena
gatazka honen izenburuak
politikoa du izena
eztabaidan gu partehartzea
da ziurtatu behar dena
izugarritzko sintesia eginez
hori da aldarrikapena | 6.
Sabela izan da protagonista
bentrilokuoa nintzen berez
dantza arinak barrenean eta
jotak ere pairatu errez
ondoren sabela-batukada
txalapartaren soinuez
hori da nabaritzen nuena
baña bukaeran ezer ez. | 9.
Antojo ugari izan direla
onartu egin behar ditut
hanburgesa ta zikinkeriak
agertzen ziren musutruk
gaur ere gustora egingo nioke
otarrain fi_ei xurrut
esnez beteriko bularrekin
baita ere amets egin dut | 12.
Beñat, Arkaitz eta Aitzolekin
jarri egingo naiz hiztun
jatorri ezberdina, bide bera
eta betirako lagun
zazpirehun bihotz, milaka musu,
elkarrekin denak jardun.
Hamabi egun, hamabi bertso,
gose greba egunez egun. |

2005. urteko Aberri Egunean

1.
Inortxok ez zun abestu nahi
galdetu egin nun berez
Beñat aspaldi saiatzen dabil
eta Harkaitz berriz ez
beraz etxerako lanak hartu
eta idatzi dut errez
bertsoak danok kantako doguz
ta gainera aho batez

2.
Borrokatzeko ugari dago
ta ospatzeko apurra
Frantziatik etorri zitzaigun
ez dadukanak beldurra
Aitzolek gugaz ezagutu
Soton eguzki ta elurra
konturatu gabe gertu dira
lehen ta azken agurra

3.
Mecaguen la putako urtea
hasieratik ta honera
txapea burutu eta gero
bukatuta gose greba
berriz futbola eta kirola
gorputza eraikitza
hemendik eta aurrera goazen
barrabilak ukitza


4.
Gure eskura izan duguna
beti ere dugu eman
badakigu zer nahi dugu eta
ez gaude bide ustelan
egunero bezela aurrera
kidearen aldamenean
euskaldun petoak gaitukeela
ez dadila kontrakoa esan.

Aralarreko kide bati

1.
Herri guzti bat borrokan dabil
nola liteke bestela?
askea eta burujabea
argi da izan nahi duela
lapikoa pil-pilean dago
Madril aldean epela
badirudi politika mailan
mugimendua dagoela.

2.
Autodeterminazio hitzak
beldurrak sortu ditzazke
kartzela, ilegalizazioa
Apartheid-a bere truke
kontua ez da: bozkak lapurtu,
norberak sakela bete.
Esan eidazu zure eustetan
zer aportatu daiteke?

3.
Atzean utzi egin genuen
gure askatasun kutuna
eguneroko ogia da ta
ideiak jaso du isuna
iragana ezagutzen dugu
gelditzen da lan txukuna
politika fikzioa eginez
nolakoa da etorkizuna?



Aritz Saez Insausti

1980

Donostia

2002. urtean atxilotu eta espetxeratu zuten.



C.P. El Acebuche
Apdo. 221
04130 El Alquian
Almería

Imanol Gomez-i eskeinitako poema

“Gudarien borroka, herriaren indarra”
periodikoetan, margoketak, kartelak, oihuetan
indarra, bultzada, ilusioa.
Zure granotxoa jartzeko ilusioa.
Ilusioa, askatatusuna, *liberdade*
Libertad, herria, haizea.
Haizea jotzen duen leku hartan
Ar, mar, itsasoa.
Uztailak 20, haizea, tristura,
Amorrua, haserrea, tempestad,
Sua gure begietan, malkoak.
Ibaiak osatuz hacia el mar
Hijo, semea, anaia... amigo
Seme kuttuna
Izar gorria hacia la libertad
Povo, maitasuna
Herriari maitasuna
“Bisiposa” lan hertzetatik
ilusioa, borroka
hasta siempre, *adeus*
agur eta ohore
gudari, golfo!

Letra etzanetan azaltzen diren hitzak jatorriz galegoeraz idatziak dira:

*Liberdade: askatasuna
Ar: haizea
Povo: herria
Adeus: agur.*



JOXE KARLOS APEZTEGIA JAKA

Iruñea
1964

1992. urtean atxilotua.



C.P. Huelva II
Carretera de la Rivera
21610 Huelva

Ehiztariei buruzko istoriotxo bat

Orain zenbait urte nazioarteko espioien biltzar garrantzitsu bat burutu zen Parisen eta munduko bazter askotatik espioi ugari bertan elkartu ziren, biltzar honek lorturiko arrakastak muga guztiak gainditu baitzituen, eta horregatik espioi askok ez zuten biltzar honetan egoteko aukera galdu nahi izan.

Eztabaidak luzeak eta sutsuak ziren, eztabaidatu beharreko auziak ere biziki garrantzitsuak baitziren, baina atsedena hartzeko tartetxoren bat sortzen zen noizbehinka. Tartetxo horietako batean hiru espioi elkartu ziren batzartetik kafetegian eta ehizari buruz hizketan hasi ziren, hirurak ehiztari amorratuak zirelako. Bata estatubatuarra zen, CIAkoa, beste israeldarra zen, MOSAD-ekoa, eta hirugarrena espainiarra, CNI-ri lotutako goardia zibil bat.

Izan ere, ehiztari batek untxirik handienak non harrapa litzakeen eztabaidan hasi ziren, baina ez zuten inolako adostasunik lortzen. Estatubatuarrak esanikoaren arabera, untxirik handienak EEBBetan zeuden. Israeldarraren ustez, aldiz, untxirik handienak Israelen zeuden. Eta espainiarrak azpimarratzen zuen untxirik handienak Espainian zeudela.

Luze jardun zuten eztabaidan hiru espioi/ehiztari hauek, baina ez zen inolako adostasunik sortzen, hirurak zeharo tematuta baitzeuden untxie zigokien auzi honetan. Hortaz, konponbiderik ez zela lortzen ikusita, apustu bat egitea erabaki zuten, era honetan baieztatuko baitzen arrozia noren alde zegoen. Hauxe zen apustuaren muina: hiru espioiek hiru hilabete iragan eta gero elkartu behar zuten berriro eta tarte horretan untxirik handiena ehizatu behar zuten, untxirik handiena harrapatzea lortuko zuena bihurtuko baitzen garaile.

Hiru hilabete iragan ziren eta ehiztariak elkartu ziren berriro. Tarte horretan lehia honek oihartzun handia sortua zuen bazterretan eta horren ondorioz ikusle multzo galanta ere agertu zen apustua burutu behar zen tokira. Erabakia zuzena izanzen zela ziurtatzeko epaimahai bat ere antolatu zen, prozesu honetan garbi jokatzeko asmoa baitzegoen:

Lehenbiziko espioi/ehiztariari hiru hilabeteetan lorturiko emaitza erakusteko unea heldu zitzaion, eta hara non agertzen den estatubatuarra, besoetan untxi handi bat zekarrela. Epamahikoek pisua hartzen zioten bitartean, honela esan zuen espioi estatubatuarrek: "Hauxe duzue Texas-eko untxirik handiena. Honek ez du parekorik".

Untxi honek 19 kiloko pisua zuen eta emaitzaren berri jakin bezain laster, ikuslegoa txaloka hasi zen indar biziz.

Bigarren txanda israeldarrari zegokion eta apustua burutu behar zen tokian sartu zen, gurditxo batean untxi handi bat zekarrela. Pozik asko zegoen eta untxi horrek sortzen zion harrotasuna ezkutatu ezinik honela mintzatu zen: "Israelgo untxirik onena ekarri dizuet. Lehia hau irabaziko dudala ziur nago". Untxiari pisua hartu zitzaion eta emaitza 25 kilokoa zela jakin zenean ikusle guztiak ero moduan hasi ziren, poz-pozik, denak ziur baitzeuden israeldarrak irabaziko zuela lehia, marka hori gainditzeko modurik ez zegoelakoan.

Goardia zibilaren txanda iritsi zen eta hau bere buruaz segur asko sartu zen, lehia berak irabazi behar zuela aldez aurretik jakingo balu bezala. Epaimahaikoek berak harrapatutako untxia erakusteko eskatu ziotenean, harrokeriaz honela agindu zuen, "Untxia sar dadila!". Orduan elefante handi bat sartu zen lehia burutzen ari zen tokira, bi begiak handituta eta odolez gorrituta zituela, gorputz osoa ubelduraz eta zauriz beterik zuela, tronpa hautsirik zuela eta ibiltzeko zailtasun nabarmenak zituela. Elefantea ez zegoen oso egoera onean, garai hobeagoak ikusitakoa baitzegoen.

Elefantea ikusi bezain laster, epaimahaikoek eta ikusle guztiek aho batez hauxe esan zuten, "Baina hau ez da untxia, hau elefantea da!". Elefanteak, orduan, ziztu bizian erantzun zuen, ahotsean beldurra nabaritzen zitzaionla, "Ez, ez, ni untxia naiz!".

Elefanteak hau esan eta gero, goardia zibila mintzatu zitzaion inguruan zituen guztiei, "Ikusten? Denek entzun duzue. Berak esan du untxia dela".

Eta, era horretan, CNI-ko goardia zibilak irabazi zuen hiru espioi ehiztariaren apustua.

Epaile ospetsu baten "egiak" (edo epaile espainiar bati buruzko gogoetak)

2000. urtean OPUS DELko partaide den Pilar Urbano kazetariak liburu bat ("Garzón, el hombre que veía amanecer") argitaratu zuen, Baltasar Garzón epailearen bizitza eta zeregina ardatz gisa hartuz. Liburuan Garzonen mirakulu guztien berri zehatza eskaintzen da eta kazetariak ez du ezkututzen epaile ospetsu honekiko duen miresmen handia, hauxe baita liburu honen ildo nagusia hasieratik bukaeraraino, Garzon bikaina, maitagarria eta zoragarria dela ulertaraztea.

Epailea Jaengo familia xume baten baitan jaioa da eta gazte-gaztetatik lanean gogotik aritzea zer den jakin izan du, inork ez baitio deus ere oparitu (bai, besteei bizitzak opari bikainak egin dizkie, jakina). Santiago Carrillok Sevillan egindako lehenbiziko mitinean egon zen bere osabarekin batera, Francoren garaian faxisten jazarpena pairatu zuen osaba. Sevillan zuzenbide ikasle aritu zenean "Internazionala" kantatzen zuen eta 1974. urtean Portugalen krabelinen iraultza burutu zenean, unibertsitatean paparrean krabelin gorria zermala agertu zen.

Liburua irakurtzen duena laster ohartuko da garzon "ezkertiarra" dela, behartsu eta zapalduen aldeko sentimendu sakona baitu, aitzak umetan kutsatu ziona. Edo hori da, behintzat, Garzonek dioena.

1983. urtean Garzon epaile zegoen Gasteizen (orduan "maitemindu" omen zen Euskal Herriaz, bere hitzetan esana) eta bertako errealitatea hobeki ulertzeko egunkari guztiak erosten zituen egunero, EGIN barne. Egun batean, epaitegira sartzeko unean EGIN besapean zeramala, sarre-rako polizia batek harriturik begiratzen ziola konturatu zen eta horren arrazoia galdetu zion. Poliziak erantzun zion egunkari hori ez zela irakurketa gomendagarria, ETaren egunkaria zelako. Garzonek txantxa giroan esan zion horrela hobeki jakinen zuela ETak zer dioen. Eta epaitegi barrura sartu zen, ETak egunkari bat zuela esatea zentzugabekeria galanta zela pentsatuz, ezinezkoa baitzen egunkari bat erakunde terrorista baten tresna izatea. Hau da hau Garzonen inoxentekeria! 15 urte geroago, 1998. urtean EGIN ixteko agindua eman zuenean, burura etorri zi-

tzaion Gasteizko pasadizo hura, eta irriñoa marraztu zitzaion ezpainetan garai hartan zein inoxentea zen gogoratuz. Baina 15 urte geroago inoxentekeria hura zuzentzen eta era egokian bideratzen jakin zuen: EGIN ixteko agindua eman zuen ETaren menpeko tresna zelakoan.

Garzonek dio 1993. urtean politikan sartzea erabaki zuela horretarako proposamena jaso eta gero, eta urte hartan ekainean egindako hauteskunde orokorretan PSOEn zerrendan agertu zen Madrilan, Felipe Gonzalez zerrendaburu zuen zerrendan bigarrena agertu zelarik. Garzonek esanikoaren arabera, ez omen zuen inolako handinahi politikorik eta bere helburu bakarra ustelkeriaren ildoan sartuta zegoen PSOE alderdian sartzea zen, bertatik ustelkeriaren aurka borrokatzeko, hauxe baitzen Garzonen helburu bakarra, zinez. Egia ote? Bestelako helbururik ez ote zuen?

PM izanikoek ere gauza bera esaten zuten garai batean, Euskal Herriari bere eskubideak ukatzen dizkion sistemaren aurka borrokatzeko erarik egokiena sistemaren barruan sartzea omen zela. Eta halaxe egin zuten, sistemaren barruan sartu eta bertan gustura gelditu (oraindik barruan daude), sistemaren sustatzailerik sutsuenak bilakatu eta gero. EEk izaniko bilakaera (usteltzea, hobeki esanik) ikusi besterik ez dago. Garai batean abertzaleenak eta iraultzaileenak omen ziren, baina sisteman sartu ondoren Euskal Herriarentzat independentzia eta sozialismoa aldarrikatzetik Espainiaren batasun sakratuaren alde egitera igaro ziren. Hori bai, hauek ere abertzale, ezkertiar eta iraultzaile sutsuak ziren. Omen. Antzeko zer-bait gertatu zen Garzonekin.

Garzonek esanikoaren arabera, berak ez zuen inolako asmorik politikan gorantz egiteko, ez zuen ardura garrantzitsurik hartu nahi eta, batez ere, ez zuen barne ministroa izan nahi, ez horixe! Ez, berak gero eta nabaria goa zen ustelkeriaren aurka borrokatu nahi zuen PSOEn barnetik. Horretarako beharrezko baliabideak jarriko zituztela hitz eman zioten Gonzalezek eta, baina gero ez zuten emandako hitza bete. Garzon guztiz inoxentea omen zen eta izakera inoxente horretaz ederki baliatu zen PSOEko jende ustel eta zitala, ekaineko hauteskundeak irabazi besterik ez baitzuten nahi eta horretarako Garzon PSOEn zerrendan agertzea

beharrezkoa zitzaien: Hau bait tipo "inoxentea" Garzon epailea, jakina! Eta PSOE GALEn aferetan leporaino sartuta ibili zenik ere ez zuen inondik ere susmatzen (Garzonen "egiak" eta Acebesenak oso antzekoak dira).

PSOEn urtebete egin eta gero, PSOEko buruek ustelkeriaren aurka deus ere egiteko asmorik ez zutela konturatu zen. Horrez gain, egunerokoan bere jarduna burutzeko oztopo ugari gainditu behar izan zituen. Hori zela eta, PSOE utzi eta Auzitegi nazionalera itzultzea erabaki zuen, Espainia hautsi nahi duten euskal abertzale "gaiztoen" aurka borrokatzera.

Auzitegi Nazionalean ohizkoak diren epaile eta fiskalen arteko liskarrak, azpikeriak, zitalkeriak, saldukeriak eta labankada zikinak guztiz arrotzak omen zaizkio, berak ez baitu inoiz ere parterik hartu horrelakoetan, esan beharrik ez. Ez du inoiz ere botere eta ospe goseak bultzaturik jokatu, bera garbi mantendu baita beti. Gainerako epaile eta fiskalak bai, liskar eta azpikeria zikin eta itsusi horietan sartuta ibili dira beti, baina bera ez, zintzoa baita osoki.

Garzonek esanikoa sinistu behar bada, bera onena dela sinistu beharko litzateke. Bera bikainena da, azkarrena, lanean gehien saiatzen dena, eta horrexegatik gainerako guztiek bekaizkeriaz begiratzen diote, bere kontura gaizki esaka aritzeaz gain.

Espainiar estatuan torturarik ez dago, Garzonek halaxe errepikatzen baitu bizpahiru aldiz liburuan. Horiek terroristek asmatutako gezurrak baizik ez dira. Intxaurrendoko basapiztiek egindakoen berri zehatza du (Zabaltza, Lasa-Zabala, GALEk erahildako abertzaleak...) eta estatuaren estoldetan "demokrazia" nolatan zaintzen den ere badaki, halakoak ikeretzea egokitu zaiolako, baina atxilotutako abertzaleek egindako tortura salaketak guztiz gezurrezkoak dira. Garzonen ustez. Garzonek ez du tortura babesten, jakina, bera baita Pinochet atxilotu zuena.

Liburuaren atal batean, atxilotu garrantzitsu baten kontura barre egiten du. "Hauek ez dira horren gogorrak!", pentsatuz, bere bulegoan dena kontatu omen ziolako, berak jakin nahi zuen guztia. Jakina, atxilotua torturak hautsia zegoenik ez du aipatzen. Agian ahaztuko zitzaion edo.

Hori bai, Argentinan eta Txilen militarrek egindako basakerien berri (tortura basatiak, desagerpenak, haur bahiketak...) izan duenean hunkitu egin da guztiz, ez baitu ulertzen gizaki batek nolatan egin dezakeen halakorik beste gizakien aurka. Oso gizaki sentibera da bera eta horrexegatik torturaren ondorioz hautsitako abertzaleak bere bulegora eramaten zituztenean, beste aldera begiratzea nahiago zuen. Edo oihu bizian ixiltzeko eta gezurrik ez esateko agintzen zien, Espainian ez baitago torturarik.

Estatuaren ustelkeria, gerla zikina eta estoldetako kiratsa ezagutu ditu gertutik, baina epaile "ezkertiar" honek eskubideak ukatzeko indarkeria mota guztiak erabiltzeko batere zalantzarik ez duen estatu baten alde egitea nahiago izan du beti, Euskal Herriari dagozkion eskubideak aldarrikatzen dituztenen aurka. Jakina, jardun hori baita benetako "ezkertiarrek" egin beharrekoa.

Epaile honi buruzko liburua irakurtzen duenak pentsa lezake burutik guztiz sano ez daoen epaile ospetsuak bere burua Espainiako heroitzat hartzen duela eta liburuak ez duela deusetarako ere balio, baina oker ibiliko da, liburu hau erabilera anitzeko baita. Adibidez, paper mordo baten gainean jar daiteke haizeak paperak eraman ez ditzan. Edo hanka hautsia duen mahai baten oreka ziurtatzeko tresna egokia izan daiteke. Edo bapatean komuneko papera bukatu dela konturatzen garenean erabilgarria izan daiteke. Edo gauez lorik egin ezin dutenek irakur lezaketegidan ziplo gelditzeko, eta abar. Nork esan dezake, beraz, liburu honek ez duela deusetarako balio?

Euskal presoak adiskide bati idatzitako gutuna

Aupa Beñat! Zer berri dago herrian? Zaharrak berri, ezta?

Beno, barka ezak hik idatzitako gutunari lehenago erantzun ez izan (bi hilabete inguru igaro dituk hire gutuna jaso nuenetik), baina gutun muga ezarria diat eta asteen bi gutun baino ezin diat idatzi. Jakina, debeku horrek izugarri oztopatzen dik gure senide eta adiskideekiko idatzizko harremana, baina horretarako egiten ditek hain zuzen ere, gure harremanak oztopatzeko eta gure bakartze egoera areagotzeko. Hortxe zegok koxka. Hau duk hau gure egoera, baina hala edo hala aurrera egin beharra zegok, esan beharrik ez.

Eta hi zer moduz habil? Hauxe duk gure arteko harremana gauzatzeko era bakarra, hik debekatua baitaukak bisitan etortzea, Euskal Nazio Askapenerako Mugimenduaren ingurukoa omen haizelako, eta Madrilen erabaki ditek ez zaidala batere komeni hire bisita izatea, nire tratamendurako guztiz "kaltegarria" izan baitaiteke. Hori dela eta, gure adiskide bakarrak Madriletik baimentzen zaizkigunak baizik ez omen dituk, eta hi ez haiz (ez haute, hobeki esanik) saillapen honetan sartzen. Badakik, Madriletik beti ahalegintzen dituk gu "ahalik eta hobekien" egon gaitezen, eta ildo honetan era guztietako ekimenak abian jartzen ditiztek.

Hau dela eta, orain bi urte t'ardi inguru Euskal Herriko Unibertsitatetik kanporatu ninditean, bertan izen emanda zeuden gainerako euskal presoekin egin zuten bezalaxe, ikasketak deus ere egin gabe gainditzen omen nituelako, irakasle gehienak beldurtuta eta mehatxatuta omen baitzeuden, edo gure aldekoak zituan erabat. Ez zitean inolako frogarik aurkeztu haien gezurra egia zela baieztatzeko, baina berdín zitzaien. Gu guztiok EHUtik kanporatu beharra zegoela erabaki zitean eta halaxe egin zitean besterik gabe, esan eta egin.

Orain ikasten jarraitzeko aukera bakarra UNEDen egitea duk, baina eskaintza oso murrizta duk eta ezin diagu euskaraz ikasi, erdaraz ikasi behar baita derrigorrez. Hori dela eta, nik ezin diat ikasi EHUUn ikasten ari nintzena, UNEDen ez baitago kazetaritza eta euskal filologia ikasteko

aukerarik. Beraz, 2003ko maiatzaz geroztik espetxean ikasteko eskubidea debekatu zidatek eta gaur egun ezin diat ezertxo ere egin. EHUko arduradunen aldetik ere ez diat ezer askorik espero, hitz zuriak besterik ez, bauek ez baitakite ausardiaz jokatzea zer den. Madrileko agintariek gezurrak erabiliz giltzapean ikasteko eskubidea debekatu zigutek, eta EHUko arduradunek ez ditek egin behar zutena egin. Hauek dituk hauek koldar eta faltsuak!

Hemen, "ostatu" goxo honetan, ziegan nahita gelditzea egin daitekeen gauzarik itsusiena duk, zeharo debekatuta baitago. Horren arabera, ziegatik patiora atera beharra zegok beti, eta hik ziegan gelditzea nahiago baduk irakurtzeko, idatzeko, lasai egoteko edo holakoren bat egiteko, zeharo ezinezkoa duk guztiz debekatuta dagoelako. Eta ez bakarrik debekatua, gogor zigortua ere bai, ziegan nahita gelditzen denari 14 guneko bakartze zigorra "oparitzen" baitiote. Hau duk hau pagotxa! Ziegan gelditzea debekatua zegok, baina ziegan gelditzen bahaiz ziegan zigortuta egotera behartzen haute. Ba al dago kontraesan hau ulertzerik?

Hau duk hau! Tankera berria delakoa ez duk batere nabaritzen giltzapeko sasi mundu honetan, betikoan baikaude, eta askotan gero eta okerrago. Hori bai, tankera berria ederki nabaritu duk beste batzuentzat, Galindo, Bayo Leal, Dorado Villalobos, Julen Elgorriaga eta hauek ez baitaude espetxean. Aspaldi atera zituan giltzapetik hilabete batzuk egin ondoren. Jakina, estatuak ezin dik onartu zerbitzari zintzo eta leial izanikoak espetxean ustel daitezen. Horiek ez omen dituk hiltzaileak, Espainiako heroiak baizik. Haien helburu bakarra Espainiaren alde egitea besterik ez zuan eta horretarako bide makurrak erabili zitiztean, baina basakeria horien guztien atzean borondade zintzoa zegoan eta ez duk bidezkoa "Espainiako heroiak" omen diren hauek espetxean egotea, ez horixe. Hauxe duk tankera berria delakoak espetxean utzi duen arrasto bakarra.

Bestalde, orain bi urte t'ardi luze inguru Espetxe Zaintzako Epaitegi berria sortu zitean Madrilen, gure eskubideak "hobeki zaintzeko", baina ikusitakoak ikusita, gure esubideak urratzeko epaitegi berezia besterik ez dela garbi zegok, itsu batek ere ongi ikusiko bailuke hau. Behin eta berri

ezezko erantzun borobilak lortzen ditiagu epaitegi berezi honetatik, inki-sizioaren garaiko epaitegi baten modukoa baita, herexeak gogor zigortzea beste xederik ez duela.

Jakina, euskal preso politikoei sekulako espetxe zigor latzak ezartzen dizkien Auzitegi Nazionalen preso horien eskubideak "zaintzeko" epaitegi berezi bat antolatu dela jakitea ez duk oso kontu lasaigarria, otsoa artaldearen zainketa lanean jartzearen modukoa baita, edo axeria oilotegiko oiloen eskubideen zaindari.

Bai, gure eskubideak ongi "zainduta" zeudek, zalantzarik ez baitago horretaz, zinez:

Beno, beste kontu bat aipatuz esan behar diat herritik gero eta albiste gutxiago iristen zaizkidala, eta garai bateko adiskide eta ezagun askoren bizitzaren berririk ez dudala batere, ez baitakit zertan dabiltzan. Honezkero, denbora luzea egina diat espetxean eta urteek aurrera egin duten neurrian adiskide eta ezagun askorekiko lotura gero eta gehiago ahulduko duk. Noizean behin konturen bat iristen zaidak, baina gehienetan oso berandu, hau ezkondu dela, besteak semea edo alaba izan duela eta honelakoak. Beraz, esan bezala, garai bateko adiskideekiko harremana dexente galdua diat eta bakoitzak bere bideari jarraitu diola besterik ez zekiat askotan. Egia esan, adiskide horien bizitzaren berri zuzena izatea atsegin litzaidake, horrek adieraziko bailidake oraindik bizirik nagoela nolabait adiskide horien bizitzan, nitaz oroitzen direla batzuetan eta beraien arazo, kezka, egitasmo eta helburuen berri ematen didatela, baina hau ez duk kontua eta egoera hau onartu beste aukerarik ez zaidak gelditzen, zoritxarrez. Adiskide horien bizitzatik desagertu nauk eta onartu beharra diat, ezta? Ez pentsa, batzuetan damu izpiren bat sortzen zaidak niri ere, nik ere antzeko zerbait ez ote nukeen egin beharko borrokaren bideari lotu beharrean, era horretan ez bainuke nire burua ikusiko egungo ataka honetan. Euskal Herritik urruti espetxeratua. Batzuetan nire buruari haxe galdetzen zioat, ea ez ote litzatekeen niretzat hobeagoa izanen besteak bezala egitea, politika kontu hauetan sartu beharrean.

Izan ere, honelako zalantza uneak burura etortzen zaizkidak zenbaitetan, baina hotzean pentsatu ondoren beti ondorioztatzen diat aukera egokia egin nuela, ez dudala horretaz damu izpirik txikiena ere sentitu behar eta atzera egiteko aukera izanen banu gauza bera egingo nukeela berriz ere. Jakina, bazekiat bide hau latza dela eta ez dagoela batera xamurtasunik, baina egin beharra zegoela garbi ikusten diat, nik ere, beste batzuek bezala, egin behar zena besterik ez baitut egin. Ez duk erraza zuloan irautea eta egun guztiak ez dituk berdinak, baina aurrera jarraitzen diat, ttirikittarraka, batzuetan gaizki, zenbaitetan ongi, baina aurrera beti ere.

Beste kontu bat aipatuz, giltzapean batzuetan gauza zinez bitxiak gertatzen direla aipatu beharra diat. Begira zer gertatu zitzaidan niri orain zenbait hilabete. Miaketa zorrotzak egin zizkigutean ziegetan, paper susmagarrien bila. Miaketa hauek burutu baino aste batzuk lehenago, martxoaren 11ko erasoak zirela eta, Espainiako egunkari ezagun batek islamiar eta ETAko kideen artean lotura bazela errepikatu zian behin eta berriz, espetxean sortutako lotura, ia aspergarriak bihurtzeraino. Hori zela eta, gure ziegetan miaketa zorrotzak egin zitiztean eta horrek zer esan nahi duen badakik, dena hankaz gora uzten dutela. Inork ez ziguan azaldu gure ziegetan egindako miaketa zorrotz horien arrazoia, baina ez duk pitokeria ustezko lotura hori frogatuko zuen zantzuren baten bila ari zirela pentsatzea, litekeena baita.

Hau gertatu eta aste batzuetara, goizean esnatu, irratia piztu eta hara non entzuten dudan nire izena albistegian, Huelvako albisteei eskainitako tarte laburrean, kartzelarien sindikatu baten arabera nire ziegan Malagako espetxeko 20 kartzelariri buruzko jakingarriak aurkituak baitzituzten. Hau entzun ondoren, hik ederki pentsa dezakean bezala, zur eta lur gelditu ninduan, kontu honek zeharo ustekabea harrapatu baininduen. Jakina, gezurra zuan, egia bakarra hona ekarria izan baino lehen Malagako espetxean zazpi urte t'erdiz preso egona nintzela besterik ez baita. Gezurra zuan, baina gezur hori ederki zabaldu zitean Huelvako irrati eta egunkari guztietan, eta egunkari baten lehen orrialdean "albiste" honi tarte zabala eskaini zitzaioan. Dena den, hemen ez zuan kontua bukatu, estatuan argitaraturiko beste egunkari batzuetan ere "albistea" zabaldu bait-

zuten, besteak beste, "El Mundo"-n eta "El Diario Vasco"-n. Ez zekiat "El Mundo"-k argitaratutakoa irakurtzerik izan ote huen, baina ez zegoan hori nondik hartu, gezur mordo ederra irakur bailiteke bertan, baina honek ez nindian batere harritu jende guztiak ederki dakielako egunkari honen ildoak zein den.

Beraz, garai hartan albistegietako "izarra" bihurtu ninduan neronek nahi izan gabe (horretarako ez zigutek inoiz baimenik eskatzen), eta zenbait egunetan nire izena hitzetik hortzera erabili zitean.

Lehen esan bezala, kartzelarien sindikatu batek eginiko "salaketa" baten ondorioz antolatu zuan ni ardatz hartu ninduen zirku berezi hura. Espetxeko arduradunek garbi asko zekitean "albiste" hura gezur hutsa zela, baina mutuarena egitea nahiago izan zitean, eta ez zitean kartzelarien sindikatu batek zabalduko gezurrezko albistea gezurtatu nahi izan. Zertarako? gutako baten izena ahalik eta gehien zikindu hobe, horixe baita komeni dena.

"Albiste" honen berri laster zabaldu zuan, baita nire senideengana iritsi ere, eta horren ondorioz kezka bizia sortu zitzaiean nirekiko, zigor eredugarriren bat edo antzeko zerbait ezarriko zidatelakoan. Baina ez zuan deus ere gertatu, espetxeko arduradunen aldetik ez baitzait deus ere iritsi "albiste" hori buruz. Oharpenik ez, aipamenik ez, zigorrik ez. Noski, kontu hau gezur hutsa zela ederki zekitean.

Garai hartan, hau gertatu zenean, kartzelarien sindikatuak lan komenioaren negoziaketan buru belarri murgilduta zeudena eta ahalik eta indar gehien egin nahi zitean soldata igoera galanta lortzeko, haxe baita sindikatu mota honek nahi duen gauza bakarra: dirua, dirua eta dirua. Ahalik eta lan gutxien eginik (edo batere lanik egin gabe askoz hobeki) ahal den diru gehiena irabazi, beste xederik ez ditek. Jakina, beraien helburu bakarra ezin ditek horren garbi salatu eta estali behar izaten ditek aitzakia ugari erabiliz. Aitzakia moduan beti esaten ditek beraien "lanbidea" oso arriskutsua dela (ez zegok garbi arriskua norentzat den, beraientzat ala presoentzat), oso baliabide gutxi dituztela lanean aritzeko, presoek ezin zaiela zerbitzu duin bat eskaini, kartzelari gutxi daudela eta gehiago behar dire-

la, eta abar, eta abar. Eta atal honetan gu ere erabiltzen gaitiztek beraien "lanbide" zen arriskutsua den garbi ulertarazteko, ez baitute inolako arazorik gure kontura joku zikin eta mixerablea egiteko. "Maitagarriak" dituk! Lehenago esan bezala, helburu bakarra ahalik eta diru gehien lortzea duk, besterik ez, eta horretarako denak balio dik. Haxe duk kartzelarien sindikatuen izakera bakarra, izateko arrazoi bakarra.

Orain beste pasadizo "barregarri" bat aipatu behar diat, niri orain zenbait hilabete gertatu zitzaidana. Ez zekiat hik ote dakian, baina "ostatu" goxo honetan zeharo debekatua zegok telefonoz euskaraz hitz egitea, horixe baita hemen egin daitekeen "gaiztakeriarik handiena", zinez.

Orain urte t'erd inguru kartzelariet jakinarazi zigutean telefonoz erdaraz hitz egin behar genuela derrigorrez. "Ostatu"ko arduradunek halaxe erabakia baitzuten. Oraindik ere ez zekiagu zergatik ezin den euskaraz hitz egin telefonoz, ez baitigure inolako azalpenik eman, baina guk jakin ahal izan dugunaren arabera, gure komunikazio guztiak interbentziopean daudela ziotek eta horrexegatik erderaz hitz egin behar dugu telefonoz, haxe omen baita arrazoia. Jakina, hau legez kanpoko duk baina kontu hau txikieria hutsa besterik ez omen duk bazter hauetan. Beraz, guri telefonoz euskaraz hitz egitea debekatzen zigutek "demokrazia"ren ize-nean, esan beharrik ez. Nork esan behar zuen XXI. mendean halakorik ikusi beharko genukeela, tankera berria indartsu omen dabilen garaian hain zuzen ere?

Telefonoz deitzen dugunean kartzelaria ondoan jartzen zaiguk zein hizkuntza egiten dugun entzuteko, eta euskaraz egiten dugula ohartzen bada deia indarrik gabe uzteko agindu zorrotza dik. Kartzelari gehienek gogoz eta pozik asko betetzen ditek "eginbehar" hau, telefonoz euskaraz hitz egiteko debekua indarrean mantentzen dela ziurtatu behar baita.

Haxe duk niri gertatu zitzaidan pasadizo "gogoangarria". Arratsaldean zuan eta arratsaldeko 5:30ak aldera telefonoz deitu nian. Kartzelaria ondo-ondoan nian, motza eta gaiztoa ematen zuena, bere mutur beltzak ez baitzuen deus onik iragartzen, eta erdaraz hitz egin behar izan nian. Beharko!

Solasaldia erdaraz egindakoa izan zuan erabat, baina euskaraz pixka bat hitz egin nian hiru urteko nire alabarekin (haurrak euskaraz besterik ez zekik eta ez dik erdaraz ulertzen). Euskaraz zertxobait esana nuela konturatu zuan kartzelaria eta deia bertan behera utzi behar nuela agindu zidan. Deia bertan behera uzteko agindu zidanean, nik zergatia galdetu nioan eta berarekin nolabait eztabaidatzen saiatu ninduan, agindu horren zentzugabekeria ulertarazi nahirik, baina zeharo alferrikakoa izan zuan. Kartzelariak deia indarrrik gabe utzi behar nuela besterik ez zidan errepikatzen. Honez gain, zigorra ezarri behar zidala esan zian.

Hortaz, kartzelariaren jarrera gaiztoa ikusita (nirekiko gorroto bizia nabaritzen zitzaioan, ez baitzuen ahaleginik txikiena ere egin gorrotoa estaltzeko), konturatu ninduan ez zegoela deus egiterik eta, aldi berean, zertxobait berotu ninduan ni ere. Kartzelariak behin eta berriz errepikatzen zidaan zigorra nuela. "Tiene usted un parte", esanez, eta erabat nazkatuta hauxe erantzun nioan, "un parte no, mejor me lo pones entero".

Hori zela eta, telefono ondoko bunkerrean sartuta zegoen beste kartzelari batek nik emaniko erantzuna entzun zian eta ez zitzaion batere gustatu. Beraz, presoak miatzeko gelatxo batera joan nendin agindu zidaan bunkerrean zegoen kartzelariak.

Gelatxoan nintzela, hiru kartzelari etorri zitzaizkidan, presoak egurtzen sekulako gozamina hartzen duen kartzelari mozkorti "maitagarri" bat, modulu buru egiten zuena, eta telefonoz ari nintzen nire ondoan zeuden biak. Arazoa eragin zuen kartzelari motzak berari komeni zitzaion azalpena eman zioan modulu buruari hauxe esanez, telefonoz euskaraz hitz eginga nintzela, beraiek iraintzen hasia nintzela, oso urduri nintzela, beraiek torturatzaile hutsak zirela esan nuela, eta abar:

Kartzelari motzak emaniko azalpen bitxia ikusita, gertatua azaltzen saiatu ninduan, baina kartzelari batek ixiltzeko agindu zidaan era zakarrez eta modulu buruak argi eta garbi adierazi zidaan niri ez zidala batere sinisten eta bere lankideari besterik ez ziola sinisten. Hori zela eta, ez nian inolako aukerarik izan gertatutakoari buruzko nire iritzia azaltzeko, garraxika eta zakarki debekatu baitzidaten hitz egitea.

Miaketa egiteko biluzteko agindu zidatean eta zidatean eman nahi izan beraien aurrean erabat biluzik ez gelditzeko eman beharreko bata txuria (azkenean, jantzirik neraman txamarra beltza erabili behar izan nian nire gorputza estaltzeko). Giroan nirekiko ezinikusia eta etsaikeria oso biziak zituan eta nitaz egiten zituzten txantxak eta isekak jasan behar izan nitian.

Miaketa egin ondoren 72. artikulupean gelditzen nintzela jakinarazi zidaan modulu buruak. Era berean, zerbitzu buruak nirekin hitz egitera etorri nahi zuela esan zidaan (nik ez nian inolaz ere zerbitzu buruarekin hitz egiteko eskatu, zeharo alferrikakoa zela jakin banekielako, horrek ez baitzuen nire egoera aldaraziko). 72. artikulua behin-behineko berehalako bakartzea duk eta neurri latz honek presoaren eskubide guztiak indarrrik gabe uzten ditik, preso zeharo bakartuta egon daitekeelako 72 orduz neurri honen pean. Artikulu berezi hau indarrean jartzen duk espetxean zerbait larria gertatzen denean, adibidez, oldarraldia, espetxeko egoera arrunta arriskuan jar dezakeen istiluren bat eta honelakoak (Antza denez, telefonoz euskara hitz egitea ere oso arriskutsua omen duk bazter hauetan).

Hortaz, erabat hutsik zegoen ziega batean sartu ninditean, aldean nik jantzirik neraman arropa besterik ez nuela. Ziega horretan ordu erdi inguru neramanean, ziegako atea zabaldu zitean bapatean eta zerbitzu burua agertu zuan miaketa egin zidaten hiru kartzelariekin batera. Barrura sartu zituan eta inguratua gelditu ninduan lau kartzelarietaz baten aurka guztiz zokoratua nindutelako. Ziegan egon ziren bost minutu ingurutan, nirekiko irainak, erdeinua, isekak, modu txarrak eta jarrera zitara etengabeak izan zituan. Denetarik entzun behar izan nian bost minutu luze horietan. Garbi asko ohartu ninduan probokazio hutsa zela eta erantzun zakar bat edo jarrera bortiz bat lortu nahi zutela nire alde-tik, ni hantxe bertan egurtzeko aitzakia izateko, baina ahal izan nuen moduan nire buruaren jabe mantentzea lortu nian eta ez ninduan probokazio garbi horretan erori. Dena den, nire aurka esandako guztiak isil-isilik jasan behar izan nitian eta bost minutu egin ondoren, lau kartzelarietaz alde egin zitean ziegatik. Ziegan egon ziren bitartean giroa oso bortitza izan zuan eta nik ez nian nire segurtasuna batere ziurtaturik ikusten, baina ni irantzera mugatu zituan bakarrik. Irainak, dena den, betikoak izan zituan, ez baitziren oso orijinalak izan nire aurkako irainak.

Kartzelariak alde egin ondoren, egoera horretan (erabat bakartuta) hogeita lau ordu eman nitian, hurrengo eguneko arratsaldeko 6:30ak arte.

Nirekin "hitx egitera" etorritako zerbitzu burua "El Lobo" (Otsoa) ezizena duena izan zuan, "ostatu goxo" honetan biziki ezaguna, preso guztiek kartzelari "zintzo" honek emaniko jipoi gogorren berri zehatza baitute. Makina bat aldiz salatua eta auzipetua izan duk zerbitzu buru hau, baina espetxeko arduradunek uste ditek lan bikaina ari dela betetzen, eta horrexegatik ez ditek deus ere egin zerbitzu buru hau kargugabetzeko. Ez zekiat, motel, agian tankera berriaren kontuak izanen dituk hauek, espetxe gehienetan honen moduko zerbitzu buru beldurgarriak izaten baitira.

Zerbitzu buru hau harro asko agertzen duk, bere ezizena dela eta. Horrexegatik, behin baino gehiagotan, preso askoren aurrean hauxe oihukatu dik, "Ni otsoa nauk, Huelvako putakumerik handiena". Zer nahi duk ba nik esatea? Berak halakorik harro asko esaten badu, nik ez zioat kontrakorik eginen, ezta?

Hauxe duk, gutxi gora behera, orain zenbait hilabete bizi behar izan nuen pasadizo "barregarria", gure bizimodua guztiz aspergarria izanen bailitza-teke kontutxo hauengatik izanen ez balitz. Honen guztiaren emaitza zein izan den? Zazpi asteburuko zigorra eman zidatela nire alabatxoarekin euskaraz hitz egiteagatik, preso bati eman dakioken zigorrik latzena. Eta honelakoxea izaten duk gure bizimodua.

Aizak, espetxeko arduradunek niri leporatutakoaren mamiaren berri jakin nahi duk? Hemen daukagok: "El día 30 de diciembre, a las 17:30 horas, y mientras procedía a efectuar una llamada, se observa que está hablando en otro idioma distinto al castellano, posiblemente el vascuence. Se le informa de su obligación de expresarse en castellano, haciendo caso omiso. Se le reitera dicha orden, sin llegar a obedecer. Nuevamente se le informa de que se le va a cortar la comunicación, increpando entonces a los funcionarios de que eramos unos torturadores y que le deja-

ramos en paz. Al momento de cortar la misma, el interno decía a su intercomunicante que le estaban maltratando y amenazando y que tenía que cortar todo esto en un gran estado de excitación y agresividad agitando brazos y manos". Bai, eta Gernika ez zitean alemaniarrek suntsitu, Francok halaxe aginduta, Euskal Gudariak baizik, honen erantzukizuna Galiziako jeneral txikiari leporatzeko gero. Eta martxoaren 11ko erasoak euskal jendeak burutu zitian, jakina. Espainiarren "Egiak" zeharo bitxiak dituk gehienetan, gezurraren usaina biziki nabaritzen zaielako.

Beno motel, honaino irakurri baduk zeharo nekatuta edo gogaituta egonen haiz honezkero, ezta? Barka ezak gutun honen luzea, baina ez zekiat hiri berriro idazteko aukera noiz izanen dudan, eta horrexegatik nire berri eman nahi nian luze eta zabal, agian luzeegi eta zabalegi, ezta? Barka ezak berriro.

Horrelakoetan esaten den bezala, ongi esanak kontuan hartu eta gaizki esanak barkatu. Zaindu hadi eta jaso ezak hiretzat "ostatu goxo" hone-tatik bidaltzen dudan besarkada bero eta goxoa. Muxu bat hiretzat, Beñat.

Tankera berria eta kattagorria (edo Hego Afrikako istorio bat)

Espainia aldean tankera berriaren haizeak indartsu omen dabilta eta tankeraren kontu honek bizitza eta gizartearen atal guztiak hartzen ditu, baina oraindik ere ez dago garbi tankera berria delakoa zer den zehazki, Euskal Herriari buruzko auzietan tankera berri hori nola gauzatzen den ez baitute ongi ulertzen euskal herritarrek. Beti bezala, gehien-gehienentzat garbi asko dagoena euskal herritarrek ez dute ongi ulertzen. Hau da hau jende berezia! Espainiar asko eta asko harro agertzen dira, tankera berria dela eta, baina Euskal Herrian ez dakite tankera berriaren kontu hori zertan datzan, eta frankotan ez da batere erraza izaten Espainia aldeko bazter guztiak eraldatzeko bidean dabilen tankera berriari buruzko azalpen egokiak ematea deus ere ulertu nahi ez duen jendeari. Zergatik izanen dira euskal herritarrek horren arraro eta bereziak? Beraz, tankera berria zer den era egokian azaltzeko adibide bat jartzea onena izanen da, Hego Afrikako Apartheid-aren garaian girotutako istorio bat gogora ekarri. Ea honela jende honek ulertzen duen behingoz.

Behin, oraindik denbora asko ez dela, Hego afrikako poliziaren jarrera bortitzaren ondorioz nazioartean kritika ugari zabaldu ziren bertako agintarien aurka. Kritika zorrotz hauek zirela eta, Hego Afrikako gobernua dexente kezkatu zen eta kritika zorrotz horiek isilarazteko zerbait egin behar zela ondorioztatu zuten agintariek. Poliizaren irudia hobetu beharra zegoela erabaki zuten, Hego Afrikako poliziak tankera berria erakutsi behar zuela, eta horrexegatik poliziak behar zuen tankera berria ongi ulertuko zuten agente berriak lortzeko deialdi publikoa egin zen.

Izan ere, Hego Afrikako polizian sartzeko frogak bat gainditu behar zela erabaki zen eta frogak hori gaindituko zutenak polizian sartuko ziren. Frogak Hego Afrikako poliziako goi mailako arduradunekin egin beharreko aurrez aurreko elkarriketa bat zen, eta egindako deialdi publiko zabalaren ondorioz sekulako jende andana azaldu zen, denek Hego Afrikako poliziako kide izan nahi zutela.

Froga burutu behar zen egunean, lehenengo poliziagaia sartu zen elkarriketa egin behar zen bulego dotorean, eta galderak hasi ziren.

- "Aizu, eman dezagun polizia zarela eta patruila egitera atera behar duzula. Astelehena da eta astelehen goizean bi gizon beltz hil behar dituzu, eta arratsaldean gizon beltz bat eta bi emakume beltz. Hori egiteko prest al zeundeke?"

Eta galderei erantzun behar zien poliziagaia zalantzarik gabe baietz erantzun zuen:

- "Bai, jauna; hori egiteko prest nengoke".

- "Oso ongi", esan zuten aztertzaileek. "Orain asteartean zaude, patruila egitera atera behar duzu eta astearte goizean hiru gizon beltz hil behar dituzu. Hori egingo al zenuke?"

Erantzuna baiezkota izan zen berriz ere:

- "Bai, jauna; eragozpenik gabe egingo nuke".

Frogak aurrera jarraitu zuen eta hurrengo galdera etorri zen:

- "Beno, orain asteazkena da eta berriz ere patruila atera behar duzu. Asteazken goizean lau emakume beltz hil behar dituzu eta arratsaldean bi haur beltz. Hori ere egingo al zenuke?"

Erantzuna berriz ere baiezkota izan zen:

- "Bai, jauna; hori ere egingo nuke".

Hego Afrikako poliziako arduradun batek hurrengo galdera egin zion poliziagariari:

- "Ongi da. Orain ostegunean zaude, patruilan ateratzen zara eta goizean bi agure beltz hil behar dituzu. Hori egiteko prest al zeundeke?"

Erantzuna orain artekoen ildotik etorri zen:

- "Bai, jauna; inolako zalantzarik gabe".

Orain azken galdera egin zioten polizian sartu nahi zuenari:

- "Orain ostirala da, patruilan atera behar duzu eta kattagorri bat hil behar duzu bakarrik. Kattagorria hilko al zenuke?"

- "Bai, jauna; kattagorria ere hilko nuke".

Poliziagaiak emaniko azken erantzuna entzun eta gero, Hego Afrikako polizian onartu behar ote zuten erabaki behar zuten aztertzaileek hauxe jakinarazi zioten:

- "Gure ustez ez zara egokia polizia izateko, gure erabakia ezezkoa da eta ez zara Hego Afrikako polizian sartuko".

Poliizara sartu asmoz etorritakoak ez zuen ezer ulertzen, bere aurpegiak izugarrizko haridura agertzen zuen eta polizian ezin zela sartu jakinarazi ziotenean aho bete hortz gelditu zen. Eta gauza bera gertatu zitzairen luzer zain egon ondoren elkarriketan egindako galdera guztiei baieztatu erantzuna eman zieten guztiei ere, arazoa non zegoen eta Hego Afrikako polizian zergatik ezin ziren sartu ez baitzuten ulertzen.

Azkenean, ordura arte zain egondako azken poliziagari bulegona sartzeko unea iritsi zitzaion eta honekin ere aurreko guztiekin egindako prozesu berbera abian jarri zen:

- "Orduan, Hego Afrikako poliziako kide izan nahi duzu, ezta?", galde egin zioten.

- "Bai, jauna", erantzun zuen elkarriketatu behar zuten azken poliziagaiak.

- "Ederki!", esan zuten aztertzaileek, "Eman dezagun polizia zaitugula eta patruila egitera atera behar duzula. Astelehena da eta hiru gizon beltz hil behar dituzu goizean eta emakume beltz bat arratsaldean. Hori egingo al zenuke?"

- "Bai, jauna; hori egiteko ez nuke eragozpenik izanen", erantzun zuen elkarriketatuak.

Azttertzaileek aurrera jarraitu zuten:

- "Ongi da. Orain asteartean zaude eta bi gizon beltz hil behar dituzu arratsaldean. Hori egiteko prest al zeundeke?"

- "Bai, prest nengoke", izan zen erantzuna.

Hurrengo galdera etorri zen:

- "Orain asteazkena da, patruilan atera behar duzu eta goizean hiru haur beltz hil behar dituzu eta arratsaldean bi agure beltz. Hori egingo al zenuke?", galdetu zioten.

- "Bai, ez dut arazorik ikusten hori egiteko. Arazorik gabe egingo nuke, jakina", erantzun zuen Hego Afrikako polizian sartu nahi zuen bolondresak.

- "Ongi, aurrera jarraituko dugu. Ostegunean zaude, patruilan aterako zara eta bi gizon beltz hil behar dituzu goizean eta bi emakume beltz eta gizon beltz bat arratsaldean. Zer iruditzen zaizu hau?", galdetu zioten aztertzaileek.

- "Oso ongi iruditzen zait, noski", erantzuna baieztatu izan zen berriz ere.

- Beno, orain ostirala da, patruila egitera ateratzeko zure azken eguna, eta kattagorri bat besterik ez duzu hil behar”, esan zioten Hego Afrikako poliziaburuek.

Poliziagaiaren aurpegiak ezin zuen ezkutatu hau entzuteak sortzen zion ikaragarritzko harridura eta hauxe esan zuen:

- “Nola esan duzu? Kattagorri bat hil behar dudala? Eta zergatik hil behar-ko nuke kattagorri bat?”

Hitz hauek entzun bezain laster aztertzaileen aurpegian irriño nabarmen bat marraztu zen eta, haien poza gorde ezinik, honela mintzatu zitzaizkion azken poliziagaiari:

- “Zorionak! Zu zaitugu gure gizona, guk behar dugun bihotz oneko gizon egokia, kattagorri bat hiltzeko gauza ez den jendearen beharra baitago Hego Afrikako polizian”.

Hauxe da tankera berriaren “izpiritua” modu egokian islatzen duen kontakizuna. Ea orain euskal herritarrek tankera berria zer den behin betikoz ongi ulertzen duten. Hala bedi!



Olatz Caminos Uribe

1977

Bilbo

2000. urtean atxilotu eta espetxeratu zuten.



C.P. Alacant
Apdo. 5050
03113 Alacant

Mona Lisa

Ilundu berri zuen arren, zerua belearen ipurdia baino baltzago zegoen. Ilargirik ez zen ageri eta ortzemugan infernu-zulokoen gisako goritasunak ageri ziren. Espetxe gainetik hegazti bi pasa ziren eta kantu lazgarri eta sinkronizatua bota zuten ozenki, presoek aise aditzeko moduan. Egunak ezusteren bat ekarriko zuela zirudien eta antzinaroan bezala Jainkoek seinaleak bidaltzen zituztela jendea jakinaren gainean izateko. Behelainoak ingurune guztia irentsirik zuen bere aho lausotuarekin, baita espetxea ere. Matxalen, Bego eta Izaskun iladan zeuden moduloko sarreran, ate mekanikoaren parean, kiroldegira irteteko zain. Hotz egiten zuen eta iluntasunak ezinegon apurra sorrarazten zien.

Neska zaratatsu eta ergel bat Matxalenen gainera erori eta zalaparta eragin zuen iladan.

- Jode! Ze ostia gertatzen zaizu? Kontuz ibili, neska! –Matxalenen aurpegia ez zen aintzat ez hartzeko modukoa.

- Lasai neska, nahi gabe izan da! Hango hark egin dit bultza!

- Jode, begira nor izan den gainera –esan zuen bere bi kideengana jiratura.

- Nor izan da ba?

- Ez duzu ikusi ala? Zure munduan bizi zara, lzas, amorratzen nauzu, ba aurrekoan telefono iladan "hiltzaile" oihukatu zizun bera.

- Nor, Mona Lisa?

- Ez da Mona Lisa, Mona María da.

- Tira, zer inporta du, seguru nago izena koadroagatik jarri ziotela, zergatik bestela?

- Beti dago tartean neska hori, hobe dugu begi bistatik ez kendu, badaezpada -sententziatu zuen Begok.

Kiroldegiko ordua amaitu zenean, txapadunek emakumeak bildu eta modulorako bidean eramane zituzten, ardiak balira bezala. Gauaren iluna argi foku indartsuek urratzen zuten ibilbidean zehar. Moduloko ate mekanikoa ireki eta azkeneko emakumearen bizkarrean itxi zen, berehala, burrunba ozena aterata. Emakumeak sarreran hertsit zituzten urdinezkoak zerrenda pasa bitartean, kiroldegira irtendako guztiak berriro itzuli ote ziren egiaztatu arte. Erregistro-liburu potoloa hartu eta hamar bat izen botata zituenean urdindunak Mona Lisagatik galdetu zuen. Inork ez zuen erantzun.

- Mona María Medrano? Mona María? -Mona Lisa, ordea, ez zen ageri-. A, bai -esan zuen azkenik eta izendegiarekin jarraitu zuen.

Izaskunek ingurura begiratu zuen aurrena, Mona Lisaren bila seguru-seguruenik, eta neskei galdetu zien gero:

- Non dago Urdea? Zergatik esan du txapadunak "A, bai" hori? Ez da kiroldegira gurekin etorri?

- Noski etorri dela, nik neuk ikusi dut.

- Orduan non dago orain?

- Jode, lzas, eta guri galdetzen diguzu? Zer dakigu guk? Abokatuak deituko zion, edo erizaindegira eramango zuten, galdeiozu txapadunari, kafea eta pastak aterako dizkizu eta kontatuko dizu dena -amaitu zuen eztabaida Matxalenek.

Afalosteko tartean hiru neskak kafea hartzen ari ziren, kalakan, ohi zuten mahaian. Izaskun, hala ere, ez zegoen elkarriketan oso sartuta. Etengabe ingurura begiratzen zuen eta ez zen gehiegi behar Mona Lisaren bila zebilela ohartzeko. Bat-batean aulkitik txinparta moduan altxatu eta mahaiko kafeak isuri zituen ia

- Zer gertatzen da?

- Neskak, Urdea oraintxe bertan itzuli da modulora, hori ez da aboka-tuekin ez erizandegian egon, neuk diotsuet.

Bego barreka hasi zen.

- Izas, erotu zarela ematen du, baina zer inporta dizu non egon den? Benetan harrituta nauka zure obsesioak; zer duzu?

- Susmo txarra hartzen diot neska horri, nik uste hau salataria dela, ez dabil kontu garbietan neska hau. Informeak pasatzen ibiliko zen -esan zuen misteriotzuki.

- Horretarako ez dauka inora joan beharrik, neska, bertan ditu urdindu-nak eta nahikoa du horrekin... Agian aurrez aurrekoa izango zuen.

- Txutxumutxuka hasten zaretenean aspertzen nauzue, ostia! -moztu zuen serio Matxalenek-. Zer axola digu jendearen bizitza pribatuak?

- Baina hauek ez dira kontu pribatuak, Matxalen, Urdea zer baitetan dabil, hori seguru. Eta nik harrapatu egingo dut sugandila hori. Asma dezagun zertan ari den, zer iruditzen? Egin dezagun joku bezala nahi baduzu. Megafoniatik deitzen diotenean nora doan eta zein ordutan bueltatzen den kontrola dezagun. Eta saia gaitezen jende artean informazioa biltzen. Ados?

Begok barre egin zuen berriro eta "Ados" esan zuen bihurri aurpegiare-kin. Matxalenek sorbaldak jaso eta lagunek onarpentzat hartu zuten indi-ferentzia keinua egin zuen.

Matxalenen gogo eskasa gorabehera, plangintza moduko bat zehaztu zuten Urdearen aferarako. Izaskunek, ondo pentsatu ondoren, Mona Lisaren txabolo-kidearekin hitz egingo zuela esan zuen, oharkabean bezala, ea zer ateratzen zion. Begok ekonomatokoarekin hitz egingo zuela erabaki zuen, ekonomatokoek beti dena dakitela argudiatuta. Denok dakigula tabernetan asko hitz egiten dela, eta ekonomoatoa fine-an hori baino askoz gehiago ez dela esanez. Matxalenek adi egongo zela esan zuen, eta zerbait entzutekotan belarria tente ipiniko zuela, baina ez

zela txutxumutxutan ibiliko, izan zezatela hori argi. Bakoitzak egindako aurrerapenak gainerakoei kontatuko zizkiela erabaki zuten.

Itun horrekin batera iritsi zen egun haren akabera. Oheratu zirenean hiruretako inork ez zuen izan Urdea azken gomutapen gisa eta axolaga-be egin zuten lo, Mona Lisaren kontu ilunetatik urrun.

Hurrengo egunak ere zatar argitu zuen. Euria ez zen gau osoan gelditu eta patioan putzu erraldoiak utziak zituen. Hotz egiten zuen eta haizea-ren ondorioz leihoek danbateko-hots ozenak ateratzen zituzten. Negu haren amaiera sekula ez zela iritsiko ematen zuen. Izaskunek Diana baka-rrik aurkitzeko gogo zuen, baina ez zitzaion okurritzen non harrapatu neska jenderik gabe. Urdearen txabolo-kidearekin inoiz hitz egin gabea zen, eta ez zekien zein ergelkeriaren aitzakiaz hurbildu. Goiza adi eman-go zuela erabaki zuen, bakarrik aurkitzekotan istantean harengana hur-biltzeko.

Eguerdi aldera moduloko beiratetik so zegoela, begirada zeru iluneko hodeitzarretan galduta, neska bat eurtan dantzan ari zela ikusi zuen, inoiz ekaizik ezagutu ez balu bezala. "Zertan dabil hori?" pentsatu zuen, "Dantzan eta bakarriketan ez dabil ba!". Berehala, neskaren dantzaldiko jira-biretako batean Diana bera zela ikusi zuen. "Oraintxe helduko diot nik harrapakin horri!" esan eta pasiatzera irtetea erabaki zuen. Aulkitik zira esku batez hartu eta ziztuan abiatu zen kanporantz, Begori keinu egin eta irriz Diana seinalatu ondoren. Berehala jakingo zuten zertan zebilen Urdea, hori bere esku, aterako zion zer edo zer Dianari. Azkenik argituko zuten misterioa, zertan zetzan arrasto susmagarri eta arraroak uzten zituen Mona Lisaren jokabide hura.

Zuzenean harengana hurbildu baino hobe iritzi zion teilatu-hegal azpitik joateari, zaparrada ikusgarria ari zuelako eta gehiegi nabarmendu nahi ez zuelako. Noizean behin Dianaren joan-etorriak kontrolatzen zituen begi ertzetik, hari hurbiltzeko aukera onenaren zain. Diana goitik behera mela eginda zegoen, hizketa eta kantuaren arteko letania etengabea zerabilen ezpainetan eta lantzean behin besoak jaso eta zerura begiratzen zuen. Potxingoak harrapatzen zituenean gain-gainean jarri eta saltoka hasten zen, pelikuletan Ameriketako indioek egiten duten antzera, lehenengo

hanka baten gainean eta gero bestearenean, ingurura eta praketara ura ziprztinduz. Zeremoniaz aspertu zenean euripeko jarleku batean eseri eta zigarreta ipini zuen ahoan. Ilea aurpegira itsasten zitzaion eta sudur puntatik euri tantoak irristatzen zitzaizkion. Izaskun, une egokia iritsia zela eta, Dianari hurbildu zitzaion, aukera galtzen utzi gabe.

- Surik nahi duzu? -galdetu zion, Dianak ahoan zeukan zigarretari aurrenekoz begiratuta. Busti-bustita zeukan, punta beheraka okertuta eta han-hemendik pitzatua. Pena ematen zuen. Zigarretak, eta Dianak berak ere.

Zigarretari eskuekin eutsi eta begirada gogogabea luzatu zion erregaiari, inongo emoziorik gabe. Lurrera bota eta bai sua, bai erretzeko lehorra ere eskatu zizkion Izaskuni.

- Oso bustita amaituko duzu, hoztu egingo zara.

- Ez ba, ni ez naiz hozten, Jaunak babesten nau. Eskatzen diodan guztia ematen dit, oso harreman ona eta estua daukagu, alabatzat nauka.

Izaskuni zalantza sortu zitzaion lehenengo aldiz, ea Diana bere senean ote zegoen. "Tira, nor ez dago zoro-haizeak apur bat hartuta? pentsatu zuen.

- Hozteak edo gaixotzeak ez du Jainkoarekin zerikusirik, neska. Ez zaizu ziegakidea haserretuko iristerakoan dena bustitzeagatik?

- Niri zer axola.

- Norekin zaude ziegan, ba?

- Kolonbiar batekin.

- Eta zer, gustora txabolo-kidearekin?

- Batzuetan. Ni zuetakoa naiz, lasai egon nirekin.

- Nola? -bota zuen Izaskunek asaldatuta, Mona Lisaren kontu izkutuak ezagutu nahian zebiltzala bazekiela iruditu zitzaiolako.

- Ni zuetakoa naizela, aita euskalduna baitaukat nik.

- A... zein ondo. Hau kasualitatea hau. Euskalduna hain juxtu ere! -esan zuen lasaixeago. Elkarriketa bideratu ezinean zebilen, sokatiran bezala.

Diana altxatu egin zen.

- Bai, nik abizen euskalduna daukat, Zulueta, "zulo de ETA", baietz? Harro daramat abizena, badakit euskaraz zer esan nahi duen-eta; asko miresten zaituztet nik.

Eta hori esan, buruarekin agur egin eta alde egin zuen. Izaskuni zalantza sortu zitzaion bigarrenaz, baina oraingoa ea igarotako elkarriketan biotatik ergela nor eta azkarra nor ote zen. Jiratu eta mahairantz abiatu zen, lagunengana, esku huts-hutsik.

Begok, beharrezko erosketa batzuk egin behar zituela eta, ekonomatora joan eta bide batez Alexandrari Urdearengatik galdetzea deliberatu zuen. Ekonomatoa jendez lepo zegoen eta ez zatekeen inondik inora galdetetarako momenturik aproposena, ekonomatoa beti jendez beteta egongo ez balitz. Une hori beste edozein bezain ona zen liskar-zulo hartara joateko. Ordu laurdena igarota zegoenean, iladaren erdia baino ez zuen korrituta Begok. Hertsita sentitzen zen, jende andana zuen inguruan, buila eta iskanbila nonahi eta kasik ezin zen lekutik mugitu. Atzealdean bi bular sentitu zituen, norbaitek titiak bere sorbalda banaren gainean atsedean hartzen jarri izan balitu bezala. "Falta zitzaidana" esan zuen bere artean, "lunbagoak jotzea besteen titien pisua elkar banatzeagatik, nireekin nahikoa ez banu bezala." Pisua astuna zitzaiola eta katas-trofe baten aukera pasa zitzaion burutik: " Baietz Magdalena izan, ostia, bera bada zerbikalak txikituko dizkit". Lepoa disimulu apur batekin jiratu eta aitzakia lelo batekin atzerantz begiratu zuen. Han zegoen, Begok uste izan bezala, Maria Magdalena santua, bere silikonazko bular neurrigabe eta ilehori tindatuarekin. Ezin erosoago sumatzen zitzaion gainera. "Ea

bizkorrago gabiltzan, zuok aurrekook!" atera zitzaion Begori barren-barrenetik apur bat zakarki.

Aurrean, ilada antzeko hartan -ilada baino multzo nahasi baitzen-, modulo bikoteetako bat zeukan. Egun melenga zuten eta maitekor ikusten zitzairen. Espetxeko ohiko bikote homosexual mota baitzen, bietako batek emakume lana betetzen zuen eta besteak gizonezkoarena, tratatu txarren eskumena eta guzti. Emakumeak, bibotedun mortsa erraldoia zenak, dantzan ziharduen eta jira eta bira artean ukondokadak ematen zizkion Begori. Bego itolarriak jota zegoen. Hanka puntetan jarri eta begiratu bota zuen ekonomatoko leihatilaruntz; bere txanda iristear zegoen. Esku-erlojua begiratu zuen berriro.

Bikoetak gero eta animatuago ematen zuen. Mortsak dantza egin bitartean Romeok modako diskoteka-kanta bat abesten zion eta txalo ozenen bidez base elektronikoa sartzen zuen. Julieta-Mortsak gizonari eskaintzen zizkion bere mugimendu erotiko eta sentsualak. Buru-mugimendu azkarrakin adats lohia atzeruntz botatzen zuen eta dantza makineroarekin senarra berotzeko ahaleginak egiten zituen. Unearen emozioaren menpe, Julietak ere abesteari eta txaloak jotzeari ekin zion, sutsuki, Begoren kalterako.

- Baina zertan ari zara? Ergela zara edo zer? -bota zion supituki emazteari Romeok-. Zuk EZIN DUZU kantatu, mozolo hori, nik kantatu behar dizut zuri, niretzat dantza egin dezazun. Non ikusi duzu gizon bat emakume batentzat dantzan? Zer esango du jendeak ikusten bazaitu? Marimutil bat zarela esango dute hemen, gizontto bat. Ez duzu bururik, beti esaten dizut. Ergela zara. Ergela bai, ergela.

Romeok, sutan jende artean bultzaka hasi eta iladatik alde egin zuen.

- Goiza izorratu didazu! -oihu egin zion ozenki atzetik makurtuta zihokion emazteari.

Begok mingaina klaskatu zuen.

Txanda berehala iritsi zitzaion. Hasperen egin zuen sakonki, oharkabea. Gutxienik itxaronaldiak merezi izango zuen, informazio baliotsua lortuko zuen-eta. Mona Lisaren sekretua ezagutzearen saria izango zuen zain emandako denboraren truke. Jokuaaren amaiera hurbil ikusten zuen, atzemango zuten azkenean zertan zebilen, ondo atzeman gainera.

- Zer moduz doa goiza? -galdetu zion Alexandrari kafeak prestatzen zizkion bitartean.

- Jendeaz lepo eta ni denetaz kokoteraino, beti bezala.

- Lasai, laister itxiko duzu, animo neska, gutxi falta zaizu. Aizu -bota zion Urdearen gaia ikutzeko irrikan-, badakizu nor bizi den hamaikagarren ziegan, goiko solairuan? Behe-behean nago eta zarata mordoa egiten dute, zerbait esan behar diet berehala, ez didale lorik egiten uzten, nor bizi da hor?

- Ba... kolonbiar bat, Mona María, nor den badakizu?

- Beltzaran bat, altuxea?

- Bai.

- A, milesker, eta zer moduzkoa da, ezagutzen duzu?

- Niri ez galdetu, zoaz beste nonbaitera.

- Barkaidazu, ez da unerik egokiena, ezta? Lasaiago hitz egingo dugu.

- Ez, neska, ez orain eta ez gero. ez etorri niri neska horri buruz galdezka, arazo bat izan nuen harekin eta harrez geroztik ez dut ezer jakin nahi. Begok burua jaitsi zuen, makalduta. Ez sekreturik, ez gatzik, ez piperrik. Norengana joko zuen orain Urdeari buruz galdezka? Tira, bururatuko zitzaion nor edo nor, oraindik ez zegoen dena galduta. Bultzadaka jendea alboratu zuen iladatik irteteko. Penatuta sentitu zen. Misterioaren akabea atzamar-puntekin ikustzen ari zela uste izan zuen une batez. Eta hortxe zegoen orain, hasiera-hasierako leku berean. Mona Lisak bunkerra zirudien; ez zegoen hari buruz ezer jakiterik.

Matxalen liburu bat irakurtzen ari zen moduloko ohiko mahaian. Hotz egiten zuen. Liburua mahai gainean utzi zuen, aulkiaren bizkarrean esekita zuen berokia janzteko. Une horretantxe Mona Lisari deitu zioten megafoniatik. "Abokatuengana", esan zuten txapadunek. Ondoko mahaian jesarrita zeuden lau neska Urdearen bizkar trufaka hasi ziren, Mona Mariaren izena aditu eta berehala. Matxalen adi-adi jarri zen ondo-koen hitzak eta txantxak ondo entzuteko. Eta horrela jakin zuen sekretuaren berri.

Ohiko afalosteetako batean Matxalenek Mona Lisaren gaia atera zuen, garaile antzean.

- Nik ez dut ezer jakiterik lortu -erantzun zuen Begok.

- Niri ere hobe duzue ezer ez galdetu -esan zuen Izaskunek pitin bat amorratuta.

- Nik badakit ba zertan dabilen -bota zien Matxalenek ezustean-. Esan nizuen lelokeria bat zela.

- Zertan dabil?

- Nola dakizu? -galdetu zuten aldi berean bere bi lagunak, irrikaz.

- Ondoko mahaikoei entzun nien aurrekoan. Abokatuengana irteten da, ez dago beste misteriorik.

- Bai, eta abokatuengana hainbestetan? Eta hain ordu arraroetan? -galde-tu zion Izaskunek atso erretxin baten moduan. "Berak asmatu behar, hain juxtu ere" esan zion bere buruari jarrera inozo samarra hartuta, egia esan. - Zer abokatu da hori? Hainbeste dute elkar hitz egiteko?

- Ba erraza da, neska. Diotenez, abokatua eta Urdea endredaturik daude, maitaleak omen dira, horregatik deitzen dio hainbestetan, elkar ikusteko.

- Hori ere entzun zenien ondoko ijituei?

- Tira, ez zehazki. Urdeari megafoniatik abokatuengana irteteko deitu zio-tenean ijituak trufaka hasi zitzaizkion larru jotzearen keinu nahiko irain-garriak eginez. Zertan pentsatzen zenuten ba ibiliko zela? Nazioarteko espioitzan?

- Eta hemen endredatu dira ala kaletik ziren bikote? -galdetu zion Izaskunek. haserre zegoen arren, zailagoa zitzaion jakingurari eustea sumindura txoroari baino.

- Ba begira -serio jarri zen Matxalen-. Diotenez, Urdea eta abokatua mai-temindu eta haren emazteak etxean harrapatu zituen larrua jotzen. Jelosia harturik, erotu eta senarrak ikaragarri maite zuen etxeko katua zintzilikatu zion emazteak logelako lanparatik.

- Jode! Benetan?

- Eta ze ostia dakit nik bi horien bizitzaz! Ezagutuko ez baninduzu bezala...

- Hori zen dena, beraz... -kexatu zen Bego penatuta- Zerbait korapilatsua-go aurrkituko genuela sinestuta nengoen. Gauza arraroagoak ere entzun ditugu eta...

- Tira, joku polita izan dugu gutxienez, ezta? Aizue, ez dakizue beste esamesik? Gogoz geratu naiz...

- Beti berdin, neska -Matxalenek, irribarretsu-, ez zaitu inoiz mediku batek artatu? Agian gaixotasunen bat izango duzu, asperdura kronikoa edo...

Eta halaxe amaitu zen Mona Lisaren istorioa, hasi zen bide beretik, ohar-kabea. Azkenean asmatua zuten zertan eta norekin ibiltzen zen Urdea modulotik hainbatetan eta hain ezohizko orduetan irteten zenean. Istorioarekiko jakin-mina etorri zen moduan joan zen, arrastorik utzi gabe. Artean hura bezalako ehunka istorio gehiago ere entzuteko para-da izango zuten. Ziegara igotzeko ordua iritsi eta beste egun bat igaro zen paraje urrun haletako egutegietan, isilean, udazkeneko hostoak erortzen diren moduan.

Mona Lisak goizeko zazpi t'erdietan jarri zuen iratzargailua. Dutxa hartu eta dotore jantzi zen, gorputzean krema lurrintsua zabaldu ondoren. Minigona laburra aukeratu zuen eta sabela agerian uzten zion kamiseta estua. Ilean koipea bota eta mototsa egin zuen, aurpegia hobeto ikusten zitzaiolako. Makilatu eta plataformadun zapatak jantzi zituen.

Eguerdiko ordu batean, gainerako neskak bazkaltzear zeudela, megafo-
niatik deitu zioten.

- Abokatuengana -esan zion txapadunak mespretxu keinu nabariaz, aur-
pegira begiratu ere egin gabe.

Mintzalekuetarako bidea bakarrik egin zuen, laguntzarik gabe. Konfian-
tzazko presoa zen eta kartzelako joan-etorrietan ez zuen ezein txapa-
dunek zaintzen. Mintzategira iristean atean jo zuen, kristalean. Garitako
urduindunak berehala ikusi eta zabaldu zion.

- Amaitzean zatoz hona -agindu zion txapadunak.

- Ondo -erantzun zuen.

Mintzalekuko kristalaren bestaldean abokatua zegoen, egunkaria zabal-
zabalik, irakurtzen. Orriekin beiratearen zati handia estaltzen zuen.
Mintzaleku kanpoan, hogeita hamar bat urteko gazte bat zegoen. Presoa
zen. Ez zen itsusia, baina hortz erdiak falta zitzaizkion.

- Kaixo, Mona zara? -galdetu zuen.

- Bai, zer nahi duzu?

- Mamada bat nahi nuke.

- Leonard-i ordaindu diozu?

- Bai, bestela ez nengoke hemen, ezta? Moduloan ordaindu diot.


Mintzaleku barrura sartu eta gaztea aulkian eseri zen, prakak txorkatile-
tan. Mona lurrean belaunikatu eta mutilak bularrak estutu zizkion bi
eskuekin, begiak plazerez itxten zituela. Urteak ziren emakume hain ede-
rra laztantzen ez zuela. Monak zakila sartu zuen ahoan eta haragi-puxka
zurruptatzen zuen bitartean aurpegira begiratzen zion lizunki. Abokatuak
egunkaria irakurtzen jarraitzen zuen eta gogor eusten zien orriei, mili-
metro bat ere mugitu gabe, larri antzean. Besteetan etortzen zen abo-
katuak, bizardunak, nahiago zuen begiratu, gustoko zuen.

Mutila bizkarrez zegoen eta kanpotik apenas ikusten zitzaien.

- Axola dizu beste egun batean ere etortzen banaiz? -galdetu zion gaz-
teak Monak amaitu zuenean.

- Ez noski, zu nahi duzunean etor zaitezke, polit hori. Hurrengorarte.

Abokatuari kristalean kolpetxoak eman, serio agurtu -abokatu serioa
baitzen, egoera gustora onartu arren profesionaltasuna eta estatusa une-
oro erakutsi nahi balitu bezala jokatzeko baitzuen- eta garitarantz abiatu
zen. Txapadun gutxi batzuek nahiago zuten dirua ezikusiarrena egiteaga-
tik; beste batzuek espeziak. Gaurkoak ez. Gaurkoak haragia nahiago zuen.
Ez zitzaion luzerako joango. Lau laztan errazekin berotu eta berahala
amaituko zuen harekin. Belarrira lau zikinkeria esan eta inoizko txortaldi-
rik onena egin zuelako irudipen leloarekin utziko zuen babo hori.



Igor Letona Biteri

1971

Arrasate

2003. urtean atxilotu eta espetxeratu zuten.



Preso zenbakia: 330 866 D3
Maison d'Arret de Fleury Merogis
91705 Ste. Genovieve des Bois Cedex
Frantzia

Hay veces que no hay

Conocer, verdaderamente conocer;
Solo conocemos
Nada.
Andamos para retroceder
Llegando a no sabemos donde.

Ensordecemos oyendo
Sin llegar a escuchar:
Dándonos de comer nos desnutren;
Pero tranquilo,
la sombra sigue engordando.
Aquí no se habla de política,
Prohibida la política.
¡Política de la casa!
¡El vacío mental ha llegado al poder!
Al conocimiento,
Lo mandaron al paro.
¿Y qué fue de la sabiduría?
¡Chisssssst! ¡Calla en nombre
De la libertad!

La era de
La tecnología punta
Ha convertido el género humano
En un animal (de) más.
Funcionamos por instinto
Viva la igualdad entre el reino animal!

Nos programamos a base de tele
Basura que engullimos.
Voluntariamente compa, ¡voluntariamente!
Ordenadores perfectos con forma humanoide.
¡Vivan los binarios!
A la utopía la tradujeron como
Lo imposible.
¡Para qué soñar en construir mejorando!
Déjate de pendejadas,
¡Nada como lo que tenemos!
¿Tenemos?
Bueno, lo que tienen
¡Pero no lo digas muy alto!
No necesitan exigimos
El silencio; nos autosilenciamos.
¡Y que contentos!
Pero todo va bien
Incluso
Cuando hay veces que no hay
Nada.

Dicen que eres dura, compa

La vida no es más
Que ser capaz
De pegar el corazoncito
Una y otra vez
Hasta que
Se nos quitan las ganas
De seguir pegándolo.

La vida no es más
Que seguir pataleando
Contra las mismas piedras
Una y otra vez.
Y cuando desaparecen las piedras
De nuestro camino
Nos convertimos en piedra
Que pataleará otra vida.
Aún así,
¡merece seguir luchando!

Malkoen begiak

Bi ditu malkoak
berezitasun nabarmenak:
bihotzarekiko adiskidetasuna
eta duten begi bakarra.
Horrexegatik,
bihotza horren sentibera jartzeak
sortzen dieten
kuriostatea asetzeko asmoz
azalarazten dira.

Leonard Peltier-entzat

Herri gabeko aberriak
bizirik daudela
diote.
- Ipuinetan? Kondairetan? Literaturan?
Herri saminak
bilatu zuen irtenbiderik
bizirik dabil zelai zabaletan barna
bidea irakatsiko dion
arranoaren
zain,
heriotza inoiz topatuko ez duen
jakitun.
Herriaren geroa
orroka
atzoko harrian,
noizbait
garraxi bilakatuta
bidaiatzen duen
memoria

Bele kabroiak

Nork esango zidan duela urte bete beleei buruz idatzi ahal izateko bes-
teko esperientzia pilatuko nuela hamabi hilabeteren tartean! Bada, geroa
ekinez egiten dela dioen esaerari bi puztarri gehiago.

Ziegako leihotik begiratzuz, Fleury-ko hirugarren dibisioko patioa dugu
ikusgai, espetxeetako patio txapelketan ohorezko mailan jokatzeko den
patio berau. Patioa mugatzen duen lau metroko hormaren ostean aldiz,
tailerrak. Dibisioa eta tailerrak elkar lotzeko, airean altxatutako pasabidea,
ehun metro luze ingurukoa eta patioa bi zati berdinetan banatzen duena.

Pasabide horren teilatua da nire ikerketaren espazio. Hortxe izaten dira
bele kabroiak egunean zehar eta.

Teilatua bera laua da, lorategi zaintzan erabiltzen diren harri txiki horiez
duelarik babestua zoroa. Aipatu bezala, teilatua dute zaintza postutzat,
bertatik inkurtsioak egiten dituztelarik patioko alde batera zein bestera
janari bila.

Badakit jakin bai, dagoeneko buruari galdezka ariko zarela : zergatik baina,
kabroiak? Zer esango dizut, bada! Hitzaren zentzu txarra alboratu eta
alde positiboa hartu beharko duzu kontutan, kabroi atsegin, sinpatikoena
alegia.

Niri egia esan, zerbait egitekotan, entretenimendua eskaintzearena izan
da, berauen jarrerak zaintzen tremendo pasatzen dut eta!

Idea onik ez dute garunetan eta beraien tamaina edota oraindik txikia-
goa den guzia zirikatzen dute. Eta hau ere ez da guztiz egia, patioan ber-
tan dabiltzan katuei buruko minik ematen ere ikuskatu izan baititut bele
majaderoak. Bai horixe! Katua lasai jaten dabilen bitartean, belea ostetik
gerturatuz, lau hankakoaren buztanari pikoka egin. Ederki jarritakoak
behar direla gero!

Beste behin, aldiz, pareko basoaren zeru aldean bi hegazti harrapakari
ikuskatu nituen. Zein ederra berauen hegaldiari so egotea, hegala parez
pare irekita, batere astindu beharrik gabe gora eta behera planeatzen
zuten bitartean, aire korronteez baliatuz.

Hor ziren, beraz, bi hegazti harrapakariak afal osteko pasiotxoaz gozatuz,
hegazti ttipiagoea berarengan gerturatzen ikusi nuenean hegala jotafue-
go astinduz. "Joño! Kumea ere baditek eta!" esan nion nire buruari.
Espetxe aldera berriz ere gerturatu zirelarik, aldiz, akabo kumearen teo-
ria! Bele kabroia, bere baino hiru aldiz handiagoa zen hegazia zirikatzen!
Ostetik gerturatuz orain, azpitik hurbilduz ondorengoan, bake santuan
dagoenaren tenperamentuaren zelsiusak etengabe goraka bortxatzen.

Bi hegazti harrapakariak, ordea, kasu gehiegirik egin gabe, hegalei astindu
parea emanez azkar asko uzten zuten gure laguna atzean. Bele kabroiak
baina berean temati! Hegalak bere kokagunetik atera eta indarrez astin-
duz, berriro ostetik gerturatzen eta zirikatzen, noski!

Arestian aipatu dut dibisiotik tailerretara doan pasabidearen teilatuan
egiten dituztela ordu andana. Dena dela, ez dira beleak teilatua zaintza
postu zein deskantsu gunetzat erabiltzen duten bakarrak. Usoek eta
beste txori txiki batzuek ere pasabidearen goialdea erabiltzen dute fun-
tzio berdinerako. Beste txori hauen inguruan, baina, beleak egonez gero
akabo bake santua!

Gure lagun beltzak lehenengo beste txorien norabidean begiratu du.
Bigarren pausua, despistatu itxura eginez orain hona, orain hara begira-
tuz, besteei hurbiltzen saiatuko da. Eta bien arteko distantzia metro bate-
koa denean, orduan bai, bere buruari "oraindik hor segitzen al duk?" gal-
dera luzatuko balio bezala, burua makurtu, moko aurreratu eta salto
bakarrean beste txoriarengana abiatuko da amorruaren amorruz. Usoak
edo dena delakoak alde egin ondoren, aldiz, gure lagun xelebreak papa-
rra atera eta eleganziarekin segituko du bere bidea.

Zirikatzaileak direla gero bele hauek, zirikatzaile porrokatuak!

Aurrekoan, ornitologian aditua dugun kideari zuzendu nintzaion azalpen eske.

- Hi, Jabitxu, zer dakik hik beleei buruz?

- Bada, estruktura sozial zorrotza izateaz gain, haratustel garbitzaile apartak, borrokalari txukunak eta libururen batetik jasotako informazio gehitua ere eskaini zidan azalpen gisa patio txanda amaitu arteko ondorengo ordu erdian. Gure patio honek askorako ematen du eta!

Ez dira egun gehiegi pasatu oraindik, gure ibiltoki hari hautsak astintzen geniolarik poesia gaitzat harturik, idatzi berri zuen poema baten atala gramatikalki zuzen ote zegoen jakin nahi baitzuen. Zatitxoa buruz zekie-nez, bertan bota zidan. Eta horren hitz ederrak iruditu zitzaizkidanez, olerkia idatzirik ekartzeko eskatu nion. Berak, ordea, ezetz eta ezetz! Lotsatu egiten zela... horren ederra ere ez zela... azkenean baztertu zituen lotsak eta arratsaldeko patio orduan paperean ekarri zuen eta nirekin ziegara eraman nuen olerkia.

Poema nik irakurtzen ez bazuen nahi, pentsa zein neurrian mehatxatu behar izan nuen horren hitz ederrak zuongana bideratu ahal izateko, hots, nire kontakizun honetan ateratzeko. Lortu nuen baimena, bai. Bata bestearen ostean hamabost kauendiosen artean

- Egin ezak nahi duana.

Entzun nian eta horrekin ni pozik. Merezi duelakoan nago olerki hau zuekin banatzen. Ea zer iruditzen zaizuen.

Egunero,
ilunabarrero,
izaten naiz zeru izartsuaren bezero.
Han goian, argi artean,
ikusten zaitut aldi oro.
Gero,
ametsetan ibiltzeko
egunero.
Pozik bizi naiz
zutaz esklabo eta ero.
Zuretzat
izarrak lapurtuko nituzke,
gauero.
Zure ametsek dirdira izateko
betiro.

Beleekin ongi konpontzea garrantzitsua dela deritzot. Izarrak urrutitxo gelditzen bazaizkigu lapurtuak izateko, beti eskatzen ahal baitiegu hegaldi luze baten zerbitzua gure bihotzen izenean zein mesedetan.

Dena dela, maitasun kontuetan lotsati samarrak ez ote diren bele hauek... edo diskretuak agian. Nik bederen oraindik ez ditut elkarri sentimenduak adierazten sumatu eta ezta larrua jotzen ere. Niet!

Usoengandik ezin dut berdina esan. Uso harra terribleak dira, gero! Presoak dirudite, beti bero!

Uso emea dagoen tokian, usarra ere bertan, ipurdi aldeko lumak ireki-irekita, hainbat kolore ederreko paparra puztu-puztua eta gruuuuuu-gruuuuuuuuuuu batean emearen atzetik korrika.

Bateren batean suertatu izan zait hego haizeren ondorioz edo mutur beltz samar egotea eta, usarra emearen atzetik doalarik, eskuak leihoko burdin trangetan finkatuz emeari oihukatzea:

- Ez utzi gero! izorratu dadila!

Baina, oro har, maitasun adierazpenak diren ikuskizunen aurrean, ukondoak mahai gainean iltzatu, kakotxa esku barneetan kokatu eta murgiltzen naiz gero amestuz.

Beleekin nenbilen, dena dela, eta itzul gaitezen, beraz, xelebre hauengana.

Behin eta berriz errepikatzen dudan teilatu dontsu hau, laua denez, patioan suertatzen diren futbol batailei esker; baloiak teilatu honetan, langabezia, gelditzen dira. Eta etxe hauek gobernatzen dituzten pertsonen lan egiteko grinari esker, oso gutxitan igarotzen dute esferek hilabetetik behera teilatuan.

Bitxiena, ordea, zera da, nahiz eta baloi batzuk bazter batean gelditu eta besteak bestean, egun gutxiren buruan bata bestearen alboan izango dira ziurtasun izpirik gabe. Hasiera batean, horretaz ohartzerakoan

- Joño, horiek ere nahiago ditek elkarren artean bakarka baino.- Pentsatu nuen.

Hori besterik izango ez balitz... ez ba... misterio horri logika bilatzeak kaxkarrean egin zuen habia eta, akabo! Eguerdia gora, arratsaldea behera, besterik ez buruan.

- Nola kristo egien ditek baloi ostia horiek elkarretartzeko?

Bada, buru-haustearen argitze prozesuari, Bob Marley-ren jarraitzaile suetsua den batekin patio orduaren aldikako minutu tarteak igarotzea gehitzen badiozu, ba horixe...

- Ez zuten, bada, etxe hauetako langile fin eta argitsuenetarikoren bat baloien bila bidaliko eta honek, lehenengo urrastzat, presiopean lanik ez egiteko, ez zian, bada, baloi guztiak batu eta hurrengo baterako utziko garraio lanak?- eraman ninduen pentsatzera etxe hauetako logikak, hori arrazoizkoena izango litzatekeelakoan.

Beste teoriari dagokienez, niretako gordeko ditut. Jamaikanoaren jarraitzailearekin egon ondorengo mementoko hausnarketak, batik bat.

Ditxosozko misterioa, aldiz, handik bi egunera argitu zen. Afal ondoren, ohi bezala, idazketa eta leihotik begiratze saioak tartekatzen nituelarik, alegia. Misterioa argitzeaz gain, tripak ere bota nituen barrezka. Belea baloiaren gainean malabarismoak egiten ikustea ez baita eguneroko oia, eta erortzen zen bakoitzean esfera gaixoak jasotzen zituen mokokadak ere ez nituzke niretako nahi.

Hamabost minutu inguruko ekitaldi itzela izan zen!

Herrira itzultzen naizenean, trebatutako ahuntzarekin pentsatu nuen negozioaren ideia alboratu eta majadero hauen lehengusuekin prestatu behar dut kristoren ekitaldia, bai horixe! Gainera animaliei zuzenduriko tratatu txarri gabe, dena garbi-garbi, txo!

Norbaitek norbait trebatzekotan, bitxo kabroi hauekin agian gauzen ordean aldatuko litzateke eta, bada ezpada, nik baloiak botako niela pentsatu nuen eta berek egitea zutela nahi zutena. Erretretan daudentzat, bestalde, entretenimendu musutruk, nahiko ordaindu dute bizitzan, jada eta.

"Traki" kideari ere esan izan diot, azkeneko kategoria honetan sartzen denez, berak ere ez duela ordaindu beharrik izango.

Garai bateko tankeak, eta egungo tanketak, aldiz, ez ditu oso gustuko erretretarekin erlazionatutako aipamen hauek, eta ni, horren jakitun izaki, bada ezpada lauzpabost metroko distantziaz jaurtitzen dizkiot horrelakoak, gure tanketak turbo-injekzioa sartzen duenean argi ibili beharra dago eta!

Inork ez dezala pentsa baina, gaizki zaintzen dugunik Ezta gutxiago ere! Urteek ematen duten errespetua ederki irabazia izateaz gain, beste arrazoirik ere badugu berau ongi zaintzeko; gure artean dagoen "mili" baka-rra izaki dinosauroei zor zaien errespetua ere badugu Trakirekiko.

Aurreko batean, patiora jaitsi ginen goizean. Ordubetetxoa itxuran apro-
betxatzeko asmoz

- Zer, hi, pilotan galtzerik nahi, edo?- bota nion.

- Gaur ez, hi. Gogortuta nagok guztiz eta! – erantzun zuen.

Horrelako aukera ezin pasatzen utziz,

- Kaundioa hi, beti hor habil ETA (M) gora eta ETA (M) behera eta orain
zer ETA (J).

Berak aurpegi arraroa jarri orduko, plazerrez beteriko azalpenak emate-
ko prest azaldu nintzaion, beti ere, jakina, gure arteko lauzpabost metro-
ak errespetatuz.

- ETA jubilatua! Txo! Jubilatua!!!

Gaixo Traki! Zenbatetan pentsatu ote zuen ondorengo 55 minututan:
"zergatik jaitsiko ote ninduan gaur patiora!" berak bakarrik daki.

Arratsaldeko patio orduan, hau zapaldu orduko gerturatu zitzaidan
paper zatia luzatuz, irribarre zabala ahoan marraztua zuelarik.

Paper zati horretan bertso hau idatzita zegoen:

Urte ugari baina
Intentzioz tinko,
Nahiz jakin nik sasoia
Ez dela betiko,
Horren aurrean zertan
Jarri belauniko,
Bota egin beharko nauk
Ez nauk eroriko.

(Milia, je!)

Desafioa literalki erantzutea baino bertsoz egitea zentsuzkoagoa izaki,
ene hezurdurarentzat bereziki, hurrengo goizean ni gerturatu nintzaion
isilik eta irribarre zabalarekin, segurtasun eremua errespetatuz beti ere,
eta paper zatia postari bidez bidali nion.

I.

Mili bezala hasiz
"M" a hintzan, beraz,
Urteak aurre eta
Oraindik gogoaz,
Artrosia eta tripak
Adi diotenaz,
"M"-az baino hobe
Hagoela "J" az

II.

"J"-k dik zer ikusi
hire erretretaz,
pipa eskuaz baino
hobe haz makilaz
enfermerek beteko
ahoa papilaz,
disfruta ezak asko
jubilazioaz.

Egun bereko arratsaldeko patio orduan, eskua luzatu besterik ez nuen
egin behar izan bere orria jasotzeko.

I.

Zabaldu nahian zabiltz
Zure eremua,
Zer den jakinen dezu
Orduan damua
Nire inperioan
Ez sartu musua,
Ongi entzun al dezu
Fleuryko mamua

II.

Alta errespetua
didazu galduta,
nire aurrean luze
luzatuz lepoa
zuretzat ziurrago
da ziega barrua
kamikazea al zera
edo ta eroa.

III.

Gazte hauen artean
Nik daukat tronua
Oso erraza izan da
Hartzea postua
Defentsa ez da egon
Bate gizakua
Non kristo sartu zara
Melenaz pijua.

Bertso idatziaren arazorik handiena horixe da, ahoz esandakoak ez bezala, doinurik ez duela. Lauzpabost metroko distantziaz bestalde, begiek zein txispa mota duten sumatzea bera ere zaila denez, ezin jakin gure tanketak betiko umore sano zein onez jarraitzen ote zuen...

Nik, bada ezpada,"Gora miliak, bai horixe!!!" bota nion distantziaz, eta sortu zitzaion irribarre zabala ikustean, lepo azpian duen frontoi paretan bizkarreko pareta eman eskuarekin, "Hi bai bertsolari aparte" bota, eta eguraldiaren gorabehera buruz hitz egiten hastearekin batera, irabazle-rik ez duen zirkuitoari itzuliak emateari ekin genion.

Pazientziaren santurik ote dagoen ez naiz jakitun. Gure Azkoitiarrari dena dela, txapela buruari bezala legokioke betebeharra. Ondorioz, gainera, Azpeitian eta Azkoitiarena arteko intentsitateko gutxiko gudarekin amaituko genuke: bi herrietan santua eta akabo iskanbilak!

Metxa kidea alboan izan banu, azkar asko botako zidan "te, te te,¡ Geldi hor,Azpeitin oraindik "klase" gehiago diagu eta".

Arrazoi apurren bat ere izango luke gure Metxak adierazpen hori egite-rakoan, Ezkozia aldeko Ness Lakuko misterioa bera baitute Azpeitia alde-an. Bertako batek, telebistan publiko egin ere egin zuen berria, eta jen-dearen erreakzioa zein eta barrea hi, barrea!

Fede gutxiko jendea dagoela Euskal Herrian gero, bai horixe! Horren zaila al da bada, txangurro hegalarrietan sinestea?

Bihar goizeko patio orduan, generoan espezialista dugula aprobetxatuz, galdetu behar diot gure ornitologoari espezie bitxi horren inguruan zer duen esateko... Batek daki egunen batean gure teilatu honetan ez ote dudan espezie bitxi horretako bururik aurkituko.

Gure teilatu honek askorako ematen du eta!

Duela hiru bat aste esaterako, kristoren ikuskizuna deritzodan horietako batez gozatzeko aukera aparta izan nuen. Ordura arte ikusi gabekoa nire leihotxo honetatik begira bizi izan nuen guztiz liluraturik.

Bazkari ordua zen, eguerdiko hamabietan, beraz. Eguzkiaren sufrikarioa bere gorenean sentitzeko ordubete pareta behar oraindik, 25 metroko distantziara, teilatu gainean beti ere, hiruzpalau metro zabalera zein altue-rako zuen beltzune hantzeko zerbait ikusi nuenean. Espetxea eraikia dagoen lur eremu hauek zingiratsuak direnez, suposatuko duzuen beza-la, udaberri aldean mota guztietako intsektuen jaiotza ikustatzeaz gain eta ondorengo tortura ere pairatzen dugu.

Bada, oraingoan ere larba izateari utzi dioten pelma horien laugarren txanda heldu duk. "Arratsaldean patioan errukienak gaituk!" pasa zitzaidan burutik, hots, amaren esanetan ez dudan horretatik. Minutuak aurrera egin ahal baina, txanda honetako ustezko zirikatzaile ostia horiek aurreko txanda desberdinetakoak baino handiagoak zirela ohartu nintzen.

Buru barruko txirriken eragin gogotsuaren ondorioz,, argi handia piztea ere lortu nuen azkenean. "Ostias!, erleak dituk eta! Porlan arteko zirrikietatik barna sartu eta hor daude azken hiru asteetan.

Gure lagun beltzei dagokienez, erleak dauden bi metroko perimetroan barna sartzen direnean, ai ama! Erle zaindariak inguruan bueltaka hasi orduko gure lagunaren urduritasuna ikustekoa izaten da. Berauen mugimenduak zaindu nahian, inguruan duten beste guztia ahaztu egiten dute.

Toki berean gelditu nahi duten tematiak ere, egon badaude, eta kasu horietan, ikuskizuna bere gailurrik gorenera heltzen da. Bizpahiru erle belearen satellite bailitzan, azken honen buruak bere tokitik at irten behar duela dirudi. Lehenek ernegatzen direnean, erasorako bidea hartzen dute eta orduan heltzen zaio gure lagunari komedien ordua. Dios nola-ko saltoak!!! Hegalak kasik ireki gabe metro bete gorako saltoak ematen dituzte ziztada bakoitzeko gaixoak.

Azken egun hauetaz, "Kaligula-ren" etorrerarekin batera, -Kaligula?- ditxo-sozko bero itogarri hori!- (kide baten esanetan) gure lagunek nik Traki zirikatzerakoan mantentzen dudun segurtasun distantzia bera mantentzen dute erleen bizitokiarekiko.

Horrelako gauza txikia bele kabroi hauen errespetua irabazteko gai bada, guk ere nolabaiteko harreman diplomatikoa landu beharko genuke berauekin. Etsaitzat baino laguntzat hartzea hobe.

Pertsona aproposa ere badugu lanbide horretarako, diplomatikoetan diplomatikoena den gure Asier; betaurrekoak daramatzanetik bereziki.

Aipatu dut aurretik ere goizeko ordubete pasatxoko patioari etekinik handiena ateratzeko asmoz pilotan aritzen garela. Euritik babesteko dagoen arkupetako ormaren kontra aritu ere. Arkupetako bi eta erdikoa bezalakorik ez!

Bada, gure Asier; itxurazko pilotaria bera, mota desberdinetako "piziak" egiten hasi zitzaigun aipatutako pilota saio hauetan; okerreana, pilota jotze-ra joan eta honek, ormaren bidea hartu beharrean, zekarren bidea bera segitzearena izaten zen.

Horrelakoetan, Asierrek gertatutakoa ezin ulertu, bikotearen kauendiosak eta aurkarien katxondeoa pairatu behar izaten zituen

- Jode! Ez diat pilota ikusi! Toki hau zera baino ilunago zagok!!- bere ahotik.

- Ez duala pilota ikus? Ba, jar hitzak betaurrekoak behingoz, pitorik ez duk ikusten eta! – beste guztiok batera.

- Betaurrekoak behar ditudala nik? Ala, ala, egi dezagun pilotan lelakeriak beste baterako utziz.

Eta horrela astea joan eta astea etorri. Goizeko pilota saioetan elkarriketa berdintsuak errepikatuz.

- Kauendio! Ilunegi zegok toki hau pilotan jokatzeko!- zioen Asierrek.

- Zer ilun eta zer kristo! Okulistarengana joateko txanda eska ezak behingoz.

- Okulistarengana joateko txanda hartu nik? Etzeok horren beharrik mutilok! Ala, ala, segi dezagun pilotan.

Goiz batez deitu gaituzte bozgorailutik, patio ordua amaitu dela esanez: "troisième droite, promenade terminé. Vous remontez!" eta hor abiatu ginen denok eraikinera sartzeko aterantz. Atetik sartzen hasi eta gure Asier igotzeko ditugun eskaileren lehengo atala irabazi duenean, burdin trangen beste alboan zuriz jantzitakoaren aurpegia ezaguna zaiola eta, hemen eskua ematearena erritual denez, eskua luzatu dio: ça va? alaitsua-rekin. Beste guztiok erabat harrituta.

- Zer kristo zebilek gure Asier sukaldeko txakurrari eskua eman nahian? -pentsatu genuen.

Zuriz jantzitakoaren harridura aurpegiari dagokionez...

Ziegara bi ardura berriekin sartu zen Asier egun hartan; batetik, diplomazia arlokoa; bestetik, okulistarengana joateko medikuarekin egon eta txanda hartzeko ardura.

Pilota saioei dagokienez, kauendiosak behera egin dute nabarmen eta joko mailak, aldiz, gora gure Asierrek lunetak darabiltzanetik.

Erleekiko harreman diplomatikoei dagokienez, hor ere arazoak: Asierrek erreginarekin bakarka nahi eta....

Agian, beleak noiztik ezagutzen ditudan aipatzerakoan akats txikia egin dut denbora tarteari dagokionez. Duela urtebete ezagutu nituela esan dizuet, baina tarte horri hilabete gehitu behar zaio.

Orduan Mitard-ean nintzen, goiko solairuan, beraz. 3. eta 4. solairuek 30 zentimetro dute tartean. Ni mundu paraleloen teoriaren jarraitzaile sutsua nauzue, 30 zentimetrok banatzen dituzten bi paralelo hauek bi unibertso desberdin baitira. Mitard-en ez egoteagatik, leihorik ere ez dago, Fleuryko mitard-eko ziegetan behintzat. Argia, sartzen denari izen hori ematerik baldin badago, sabaian kokatua dagoen eta teilatura ematen duen "klaraboia" moduko batetik sartzen da. Beste aldea ikusten uzten ez duen plastiko gogorrek babestutako horietako batetik.

Polikiroldegietako sabaietan ikusi izan ditut lehenago gorrotatzen ez nituen estruktura arkitektoniko horiek. Hauek konkatuak direnez, beleak gainean pausatzen ziren ondoren txirristaka aritzeko. Nik azpialdetik entzuten nituen bitartean "ederki zebiltzak gozatzen txori ostia horiek!" pentsatuz, kontrolatzen nuen nire burua. Kolore iluneko txoriak zirela besterik ez nekien eta laba itogarri, tortura zulo hartatik ateratzean, ziega normal batera sartzean – ziega normalik dagoela esaterik baldin badago- eta leihotik begiratzean beldurra eta lilura sentitu nituenean jakin nuen txirristaka zebiltzan txori xeble haiek beleak zirela.

Mitard-etik irten aurretik ere, buruan nuen gauza bakarrenetarikoa arropa aldatzea zen. 40 egun pasatu baintuen kamiseta, txandal praka, galtzerdi eta galtzontzilo berekin. Erromatarren galeren garaietatik asko aldatu dira gauzak. Orain ez dago galtzontziloak kidearekin trukatu beharrik. 2000 urtetan zigortuen higiearen aldeko a zer nolako aurre-
rapausoa! Eta Frantziako Estatua orain ere eredia izaten jarrera aurre-
rakoienetan.

Mitard-etik atera bai baina ene ondasun materialak zituzten hiru kaxak ez nituen berreskuratu bi egun pasa arte. Bitarteko tartea, kideekin eta berauek utzitako arrokek jantzi nituen gustura asko.

Bi egunetara, ene ondasun materialak zeuden kartoizko kaxak jaso nituenean, ireki eta... ezustea! Ezjakinek paketatuta zituztenez gauzak, arropa, olio zein ozpina, guztia batera sartu zuten - Betiko despistea... ez duzue zertan gaizki pentsatu behar!- eta azken hauek irekita zeudenez, ba horixe...

Arropa garbitzeko xaboirik ez nuenez, patiora jaistearekin batera kideei aipatu nien:

- Ederra egin zidatek sasikume hauek arropa dena olio zein ozpinarekin kakaztua diat! Xaboirik ba al dik norbaitek?

- Zer? Hik garbituko dituk, edo? Kideetako batek.

- Atera ezak kanpora motel, etxean txukunago garbituko ditek eta!

- Beno, lehenengo hemen garbitzen saiatuko nauk, ez?- nik

- Ez dik merezi motel! Guk astero ateratzen dizkiagu arropak poltsa etxekeok garbitu ditzaten! Beste kide batek.

- Nola?- nik. Astero ateratzen dituzuela arropak poltsa etxekeok garbitu ditzaten? Bertan xaboia eta ura berotzeko erresistentzia izanik?-

Hor hasi natzairen errosario guztia botatzen.

- Zuek ez duzue lotsarik... etxekoei arropa poltsa ematen zuek garbitzen ahal dituzuenean... lotsagabe koadrila ederra zaudete eginda zuek...

Denak ixil-ixilik! Bata besteari begira, joder! Ezer ez bagenien esan hobe! Pentsatuz. Norbaitek bota zuen

- Beno hi, eguerdian saiatuko nauk xaboia pasatzen.

Eta beste norbaitek eguraldiaren gorabeheri zera baina azkarrago helduz, patioari betiko ordu eta erdiko buelta kopuru bera emateari ekin genion.

Astearte eguerdian, beraz, jaso dut xaboia eta, galgara urez betetzearekin batera, xaboia gehitu, arropa bertan sartu eta garbitzeari ekin diot.

Ostegunerako, garbitzen ahalegindutako arropa lehortuta bai, baina garbi zegoenik ezin esan. Jaitsi gara patiora eta komentatu nuen:

- Dios! Arropa hori ez zagok eskuz garbitzerik! Kanpora atera beharko diat larunbateko bisitan...

- Bai motel, bai! Egoera horretan dagoen arropa nola garbituko duk eskuz, ba? Denek batera.

Larunbateko goizeko 8ak ere heldu ziren eta hortxe abiatu nintzen arropaz beteriko kristoren poltsarekin beste kideekin elkartzera, ondoren bisitara joateko.

- leup! Egunon! Zer berri zagok?- nik bota orduko lbonek Trakiri kriston irribarrearekin.

- Hi Traki, ikusten al duk lotsagabe hau, bera baino handiagoa den arropa poltsarekin? Guri kristorenak eta bi esan aurrekoan eta begira ezak orain, bera baina poltsa handiagoarekin!!!

- Bai gizona- Trakik- Bateren batzuk lotsarik ere ez ditek! Harrapatu diagu, bai horixe! Kristo guztiari kontatu behar zioat hau, lbon.

Nik, aldiz, zera baino serioago:

- Jode! Zer nahi duzue, ba? Arropa hau bertan garbitzerik ez zagok!

Eta bien erantzuna koruan:

- Bai, bai, orain aitzakiak! In fraganti harrapatu ostean orain burua zuritu nahian.

Ni ordurako jada urduritzen hasia Kabroi hauek egoerari buelta ematen ez dabiltza, bada. Inongo lotsarik gabe, gainera.- pentsatu nuen.

Beste biek, aldiz, irribarrea ahotik ezin kenduz, tregoarik gabeko bonbardaketa itzelean nire aurka:

- Begira ezak, Traki, arropa poltsa kaleratzen ez duena!

- Bai horixe! Arrasatear hauekin ez dagoela fidatzerik! Eskerrak harrapatu duan, Traki, Bestela lotsagabe hau gai duk arropa poltsa atera ondoren guri errosarioa botatzera etortzeko patio orduan...

Nire buruan, aldiz, kabroiak, kabroi alenak! Hauek dituk lotsagabe koadrila! Bi minututan ez ziotek, bada, egoerari buelta eman! Hobe diat ixilik jarraitzea ekaitza amaitu artean... kabroiak, kabroi alenak!

Gertakari honen urteurrena datorren astean beteko da, San Fermin ondorengo astean, hain zuzen ere. Bada, oraindik ere, bisitara joateko bidea egiten dugularik, bateren batzuk astean zehar erabilitako arropa poltsa daramatela:

- Hi, ez adi lotsatu arropa kalera ateratzen, motel! Atera ezak lasai, ez zioagu inori esango eta! – Entzun behar izaten dut maiz.

Eta berriro ere sentitzen dudala esan beharrean nago. Beleei buruz idazten hasi eta oraingoan ere koadrilaren kontrako bidea hartu dut. Ezer gutxirekin despistatu naizen horietarikoa naizenez... ba hori, joan nadin harira!

Bele zaintzan igaro dudan urte honetan deigarria den beste datu bat aurkitu dut: beraien artean ez dute borrokarik egiten. Tentsio memento bat edo beste, ikusi izan ditut, baina esaera dioen horietakoak, ostia gutxiko kristotxoak alegia.

Beraiena dena dela, tinko defendatzen dute. Taldetik kanpoko norbaitek beraiena kendu nahi izanez gero, orduan azkar asko matxinatzen dira erasotzailearen aurka.

Kaioekin izan dituzte gatazkarik gogorrenak. Bai ba, kaioak ere baditu hemen!

Kontua da, gure lagunek ohiko egoitzatzat dutela tortura etxe hau eta kaioek aldiz, bigarren edo hirugarren egoitzatzat, batek daki. Denboraldia igarotzera besterik ez dira etortzen azken hauek, eta ondoren, ospa!

Kaioak, gainera oso azkarrak dira. Janaria leihotik kanpo izan orduko, ziztu bizian harrapatzen dute airean bertan, eta trebezi hau medio, gatazkan dauden bele, uso, katu eta ohiko egoitza bertan duten beste animalia guztiekin. Eta zer kristo! Nik ere azken hauek arrazoia dutela deritzot. Utzi bederen janaria lurrera erortzen, eta ondoren, azkarrenak har deza-la puzketarik ederrena, beti ere besteei zerbait utziz. Joño! Sozialismo libertarioa aproposagoa litzateke, badakit, baina bertoko basa faunari horrenbesteko konpromisoa ere ezin izango diagu eskatu, edo?

Zer egingo diogu, bada? Elkartasuna ere ezin modu praktikoa adierazi gehiengoa den bertoko basa faunari! Sikieran eskopetaren bat lortzeri izanez gero burges txuri hauek beren lekuan jartzeko!

Horrelako jarrerarekin azken finean, lagun bati gertatzen zitzaiona bihurtzen da ohiko, azkar jatearena ohitura izan beharrean arazoa dela.

Janariaz beteta zegoen mahaira arrimatu ginen laguna eta biok, self-service modura hamaika miragarritasun antolatuta zituen mahai luzera. Begiak zabalik nituela ekin diot tragatzeari, et joño, alboan nuen lagunaren ondoan kamara geldoan nembilela iruditu zitzaidan.

- Jode, hi! Azkar jateko ohitura duk hik gero, e! umetako ohitura? –bota nion.

- Umetako ohitura ez, umetako arazoa! –berak erantzun zidan.

- Umetako arazoa? Galdetu nion nik.

- Bai motel! Gure etxean hamahiru anai-arreba gintuan eta amak lapiko-kada jartzen zian mahai gainean. Platerak egun berezietarako besterik ez. Azkar ez zebilenaren sabelak beraz egun osoan zehar segitzen zian kantatzen. Horra hor umeetako gure arazoa!- Argitu zidan berak.

Eta berriro ere koadrilakoekin galdua! Marka dela nirea gero! Fundamentu gabe nabil jada eta horrela ez dago ezer egiterik. Musean ere antzera ari-zen naiz eta... azkena beti!

Por zierto, atzo amaitu genuen gure arteko 2. mus txapelketa eta aurrei-kusita zegoen bezala Ibon izan da irabazle. Jada, sei hilabete izango dira lehenengo txapelketa jokatu genuenetik. Orduan Azkoitiko Santua suertatu zen irabazle. Suertatu diot zeren suertatzetik izatera tartea dago!

Bigarren gelditu zena, aldiz, oso konforme ez emaitzarekin eta ondorengo bost hilabetetan ez dugu bakerik izan 2.txapelketa antolatu arte.

Egungo irabazlea epaitegian zen horietako batean, beraz, asanblada deitu eta bertan erabakitakoak ondorengoak dira:

Bat, oraingoan ez badik irabazten txapelketa 3.a antolatu arte ez dugu bake santurik izango.

Bi, guk ez diagu mus txapelketa gehiago jolastu nahi.

Hiru, mus txapelketa irabazten utzi behar diogu.

Lau, serio jokatzaren dugunaren itxura egitea ezinbestekoa da.

Ez dugu uste gainera ezer arrarorik sumatu duenik. Beraz, gordeko digu-zue sekretua, ezta?

Eta oraingoan ere galdu ditut beleak! Horrela ez dago ezer ganoraz egiterik, banoa beraz, sorginen batzarra bilatzen saiatzera.

Iluntasuna da nagusi kanpoan eta lagun beltzen soinurik entzuten badi-
tut ere, badakit hor daudela, sentitzen ditut. Eta maite ere maite ditut,
diren bezalakoak izateagatik. Espainia zein Frantziako Estatuak ikuspuntu
desberdina dute berauekiko, badakit. Baina ez dit axola! Ez dituzte eza-
gutzen!!!



Naiara Mallabia Sanchez

1982
Bilbo

2003ko udaberrian atxilotu zuten.



C. P. Ávila 2
Apdo. 206
05149 Brieva
Ávila

I.

Tengo la mirada desgastada
 de mirar siempre lo mismo
 de ver lo que me dejan ver
 lo que para mi es nada.
 Mi mirada está vacía
 mis ojos secos
 no encuentran lágrimas,
 se escaparon y ahora
 se han juntado
 con otras lágrimas
 fugitivas del pasado
 y en el patio se encontraron
 formando charcos salados
 intentando no desaparecer
 con el calor del día
 o en pisadas enemigas.
 Igual son las últimas
 gotas del grifo
 que nadie utiliza
 ni tan siquiera las mira
 y van a caer al
 desagüe del olvido
 donde se duermen solas
 y caen en el vacío.

Igual no están tan lejos
 y se han convertido
 en gotas de sudor;
 las que me acompañan
 en la noche,
 me entienden y se quedan
 sin decirles que se quedan
 sin decirles lo que pasa
 no me preguntan nada
 entienden por que,
 mojan mi cara.
 Han huido
 se han cansado
 de ver dolor
 sin remedio
 se han cansado
 de caer por
 el sufrimiento
 de fabricarse
 para ello
 de existir para ello.

No lloro de dolor
 no lloro de alegría
 no lloro de sueño
 no lloro, no puedo
 siento pero no expreso,
 no tengo lágrimas
 se marcharon
 de mis ojos sin fondo
 de mi mirada vacía.
 Se escaparon,
 me alegro por ellas
 se rebelaron
 viendo su pasado
 arriesgaron el presente
 por un futuro diferente.
 Unas se habrán secado
 otras se habrán derramado
 pero todas lo han intentado
 y alguna será libre
 por que quiso serlo
 lo intento y lo consiguió.

A todas esas gotas que viven para luchar!

2.

Dormir con el frio
besar la noche
bailar con la soledad
nadar entre recuerdos
llorar en la sombra
hablar con el silencio,
sentir hasta morir
amar con locura
vivir con pasion, cerrar los ojos
abrir el corazon
soñar libre
y sin rejas,
a tu lado
ver salir el sol.

3.

Maite zaitut
zarena zarelako
ta ez zarena
ez zarelako
ere maite zaitut.

Maite zaitut
hotz kartzelaratu honetan,
ta zure presentearen berotasunean
ere maite zaitut.

Maite zaitut
munduaren aurrean,
ta bere barneko munduan
ere maite zaitut.

Maite zaitut
oinekin lurrari,
ta hodeiei igota
ere maite zaitut.

Maite zaitut
dudan guztiarekin
ta ez dudanarekin
ere maite zaitut.

Maite zaitut
errealitate gordinean,
ta ametsik zoragarrienean
ere maite zaitut.

Maite zaitut
negarraren bakarkadean
ta pozaren zabaltasunean
ere maite zaitut.

Maite zaitut
nere askatasunean,
ta beraien espetxean
ere MAITE ZAITUT!!

4.

Laberinto sin salida
miseria en todas
sus esquinas
caminos desgastados
de no ir a ningún lado
desgracias que pesan
demasiado.
Puertas sin salida,
a la imaginación
compañera de la vida,
soledad que llena
sus vidas vacías.

Con el sur perdido
y sin norte fijo
la calle es su cárcel
la cárcel es su vida.
Basura para un@s
personas para otr@s
a patadas van
de un lado a otro,
luchan por sobrevivir
donde todos quieren,
que vivan muertos,
que vivan para morir.

Espetxeak apurtu!



Aitor Fresnedo Gerrikabeitia

1982

Portugalete

1996. urtean atxilotu eta espetxeratu zuten.



C. P. Herrera de La Mancha
Apdo. 77
13200 Manzanares
Ciudad Real

Gaubeilako berbamiñek

Hotza hats haitza hots
otu hitza otoitza
otsoak lez jun atsoak lez jin
mintza mintzo barik
Ataramintzari
da atara eik mine
Ataramiñe
Gudari Maorixek lez
Egin leku argiari
at ilun ar ilar
dala su dala izar
at ilun ar ilar
izan laino izan zohart
Atara ta atara min
hire baitan dadin
larraren berde
Ortziaren urdin
Hi haz hi Ataramiñari
Hi haiz hi de hi hasi
de hik hazi de ikasi
Ari mintzari
Hi egi egarti erdi negarti
ekin lanari ta ixil hadi
entzun kantari lurraren arimari
i eta a, a eta i
(ondo ondo ibili ta bueltak amari)

Aizkolari, albokari, txistulari eta ataramiñari guztiei bereiziki eskainia

Hitz hegalariz

Mintza banedi
Entzungo bazenit
Ahal banintz mintza hitz hegalariz
Hel banedi hitzen hegalez
nola heltzen diren txamanaren gezitxuek horrek gezitxuek lez
Sar banedi zure gogoan zart
zeure bixotzan erdian zirt
zauzela amets argiz
ta ni hitz hegalariz

Maitasun txikitxo bat gura dot geuretzat
inork topauko ez dauen lekuen
zeu ta bixontzako izengo dana eta beste inontzako bez
neure ederrori zeuri nagotsunez
Halako maitasun ikaragarrixe deukotsut neure txikiñe
neure andregaixe neure erregine

Sar baneza maitasun itzel hori orratz baten begitxuen
izengo zan unien
munduen akabera eta jaiotza barrixe
Infinitorako joera deukien arraixa paraleluek be
gurutzatuko direz puntutxo baten
edur kixi baten
ispiluzko anfora sortuko dan gunien
nun gorde leikeguzen bideko txintxartxuek

Ai ene enetxo maite
ene enetxo neurie
Geurie oso maitasun zaharra dalako
ondinoko jaio ez dan arren
aintzineko sasoi batetik dau hemen
da hemen bizi naiz hemen
zeure zai nauen abagunien
maitasun txikitxo baten biherrien
hitzegalariz otoitz dagitsudan moduen.

Gazta baten trukean

Benetazko gertaeretan oinarritutako ipuina

2005. urtearen inguruan, Alicanteko Villena herrian eztabaida sutsua piztu da. Arrazoia? Primateak jagoteko gune bat eraikitzeak asmoa du udalak. Ideia nondik sortu ote den batek daki, auskalo! baina horrelaxe da. Eta jadanik udal batzako komisio batek txangoa eginga du Herbehereetako Haga hirira (Nazioarteko Justizi Auzitegiaren egoitza dena hain zuzen), bertan badelako horrelako aterpe bat primateen zainketarako, orain Villenan sortu nahi dutenaren berdina edo. Eta hura eredu hartuta joan ziren bertara gauza nola den ikasteko asmoz. Baita pozik itzuli ere, irratian udalbatzako ordezkari bati entzun nionez.

Eta bitartean herria zatiturik, baietza ala ezetza, ez da bitartekorik.

Aldekoek diotenez, herriari aberastasuna ekar liezaioke proiektu honek; erakargarri izan liteke tximuen aterpe delako hori; jendea letorke kanpotik gure herritxoan sosak uztera, eta jaun-andreok, hori da hemen ardura duen bakarrak. Eta gainera tximu gaixoek ez al dute merezi mundu hone-tan babesleku bat ala? Desagertzearen diren arraza; edo hainbat lekutatik jasotako animali gaixoak, horientzat ere izango baita eritetxea; eta bizitzeko leku duina izango dute guztiek. Azken baten, Alicanteko seme jatorrak, eta jatorretan jatorrenak Villenatarrok, animalien eta naturaren maitale gara. Etabar; etabar.

Aurka diren herritarrek ez dute batere argi ikusten diru-iturria izango ote den tximino-parke hori. Agian dirugalera ere... Beste hainbat premia baditu herriak, atzerriko tximinoetan diruak xahutzen hasteko ere. Beldur dira tximinoekin batera letozkeen arriskuez, izan ere gaixotutako animaliak ere ekarriko dituztela aipatu da... Baina, auzi guzti haren inguruan argien mintzatu zena lehengoan SER-Villena irratira deitu zuen atso bat izan zen: "Aski da! Nahikoa jasan dugu. Beti guri sartu behar al digute ziria? Beti guri ekarri beste inork nahi ez dituen hondakinak? Lehenik kartzela jarri ziguten herrian, eta orain tximuen toki hori ere... Eta hori gutxi balitz gaixorik dauden tximuak ekarri gainera, eta badakigu, ondo jakin ere, HIES-aren errua ere tximinoek dutela, zientzilaria amerikarrek ederki frogatu zuten hori...". Etabar; etabar.

Eta horrela ziren kontuak Villenan sasoi hartan.

Geroago gertatuko zirenak jakiteke zeuden gure protagonistak artean.

"...Tira ba ... ordue badok onezkero ta ... nun ete xabizek nire txikiñek ..." Ziega txukun txukuna dut. Ni neu ere ispilu aurrean dotore jantzi eta orraztu egin naiz. Urduri nago, osteguneroko hitzorduaren zain. Bisita egiten hasi zitzaizkidanetik bizimodua airostu didate. Egunerokotasunari bizigarri pixka bat gehitu. Alaitasuna dakarkidate nire bizitza ahitzen dihoan amaraun honetara, bere koplak eta kontuekin hurbiltzen hasi zaizkidanetik.

Mahaia atondurik dago: erdian gazta, ondoan kartak eta tantoak plater txoan. Tira, plater txoan... "Cola-Cao tapa gorrixen". Baina kartoizko kutxa bati mahaia deitu badiogu, Cola-Cao tapari plater txo deitzea ere zilegi bekigu. Ez da zaila isolamenduko ziega bat txukun mantentzea, han gauza gutxi edukitzen uzten baitigute. Bo, garbi izan nahi duenak, batzuk txapelketan ibiltzen direlako, txerriena nor ote. Eta hala ere ezta zer tarako hainbeste ahalegin, gero nire gonbidatu txikiak bazter guztiak kakaztuta uzten badizkirate. Baina "neure aman semie mutiko kuriosue dok, eta ikusi deizuela, inguruek garbi-garbi eukiten badakitela." Jakin dezatela denok ez garela beraiek bezain txerriak.

Joan den astetik, udan garen aitzakian, espetxeko ekonomatoak ez du gazta gehiagorik saltzen; ez esnerik ezta beste hainbat jaki mota ere (eskeintzen dizkiguten apurretatik); beroa den bitartean laster alperrik galtzen diren kontuak, eta udazken alde arte ez dituzte berriz salmentan jarriko. Eskerrak esne litro bat neukala erosita, eta horrekin egin ahal izan dut gaztatxo bat. Bo, gazta, gazta... horri ere gazta deitzea gehiegi litzateke ziurrenik, baina kartoia eta Cola-Caoaren teoriari jarraituz... Biguntxo horietakoa da, "Philadelphia" horren klasekoa. Gatza lortzerik ez dut izan, trapitxeoak egiteko sasoi txarra da, oraingoz behintzat. nahikoa meritu badut kartoizko kutxa bat edukitzean. Baina tira, kakahuete pakete batzuk banituen eta, arrantxuan ematen dizkiguten "lursagar prijiduek" beti gaitzez gainezka datoz, antzinako arrantza lez, eta, lortu dut nola edo hala gatza biltzea gaztari gehitzeko. Tira, gaztaren fabrikazio prozedura nola den

ez naiz azaltzen hasiko orain. "Gaztaixe eitten ikasi gure dauenak doiela mendire, artzai bordara bizitzen. Edo datorrela hona, porlanezko oihane-ra.". Baina gatzak badu bere garrantzia gaztan, ondo ikasi hori gero!

Ba, horixe, espero dezagun mahai gainean Piladelpia plastako hori ikusita ez daitezela gehiegi haserretu nire gonbidatutxoak. Izan ere Willyk hala-ko gustu refinatuak ditu eta. Beste biak ez, beste horiek basapizti hutsak dira. "Ai, neure hiru trukutxuok! Horrek pai gatz ta piperra!". Gustatu zaiela ez zidaten sekulan onartuko, baina, behintzat ez dezatela eskandalu lar handirik atara. Edo duela aste pare batekoa ez dadila errepikatu behintzat. Maikel sasikume halako hori... hara non ez didan ba gazta gainean kaka egiten!... non eta gazta gainean! Une batez deskuidatu nintzen eta, konturatu orduko... "Madarikatuoi!" Basapiztiak. Nik badakit hemen saltzen digutena ez dela Urbiako artzaiena, edo Idiazabalgoa, ezta Erronkarikoa ere. Hemen saltzen digutena, egia esan, "satsa puta dok", simaurra, behi esnez eginiko halako gazta bat, nahiz eta biltzeko dakarren plastikoan txerri baten irudia ateratu... susmagarria inondik inora. Bo, ez dela nire piladelpia hori baino hobea alegia. Baina, ez dago gainean kaka egin beharrik ere.

Gehienez, edo ia-ia beti, lasaia baino lasaiagoa da Maikel. Beste biek, adarra jotzeko edo, Jakson deitzen diote, Maikel Jakson, alajaina. Dantzari trebea omen delako, diotenez. Nik oraindik ez dut sekulan dantzan egiten ikusi. Eta nago, Jakson deitze hori, dantzan egiteagaitik baino, geratzen ari zaion kakakoloreagatik dela gehiago. Metadona hartzen hasi zenetik gero eta zurbilago ikusten dudalako nere laguna astetik astera. Begitarte triste hori ere... Baina lasai-lasaia da izatez. Beti begiak erdi itxirik eta, leun leun hitzegiten du. Hitzegiten duenean, gehienez beste planeta baten egoten delako. Baina bereziki marmarrean ibiltzen da, ahapeka, edo besteok esaten ditugun hitzak errepikatzen, bere baitarako bezala. Metadonaren eragina omen da aldarte berezi hori. "Trixtura uxatzeko", esaten dit. "Gerrako izugarriak ezabatzeko".

"Baina hi gerran ibilita hago, Maikel?" galdetu nion behin.

"Horixe nagoela"

"Non baina?"

"Kongon"

"Kongon? Baina zein sasoitan? Zein gerratan?"

"Zein gerratan galdetzen didak? Baina nola zein gerratan? Zeinetan izango duk ba? GERRAN! Kongoko gerran! Beti zegok gerra Kongon. Beti!"

Dirudienez txinpantzeak erabiltzen zituzten gerran, minak desaktibatze-ko eta, horrelakoxe lantxoak egiteko. Eta Maikelek ikusiak ditu aita, ama, anai bi, bere lehengusiña bat eta beste hainbat senide airetik salto egiten mila zatitan lehertuta. Maikel gaixoa. Orain txupittoa hartzen du goizero, lozorroan egoteko, pozik egoteko modu bakarra duela dino. Poztasun artifiziale omen da egun eskura dezakeen bakarra. Kaila kantuz ibiltzen da sarri, horixe du gutuko, eta beti errepikatzen duen leloa "eztakienak erran lezake ni alagera nizala, hortzetan deizüt irria eta bi begietan nigarra..." Bihotz handia dauka Maikel gureak, handi handia, baita urratua ere alderik aldera. Lasai-lasaia da, beti, baina, inoiz baditu bere haserraldiak ere, eta orduan hobe tximu horrengandik urruti jartzea.

Baina... "nun sartu ete dittuk? Illuntziko hamarrak eta hamar eta honek agertu barik..." Aste osoan gazta mamitzen (kailatzen esan liteke?) hartu dudana lanak hartuta... Gainera, hileko paketeen txapela sartzeko eskatu nien etxekoei, "lagun bati oparixe ein gure otset, ama." Eta hementxe dut txapela, Silverrentzat. Ilusioa egingo diolakoan. Beti ari baita bera euskalduna dela, eta bere aitatz Donibane Lohitzuneko zela, eta bere amatxi Otsagabiakoa, eta horrelako kontuekin.

"Baina hi ez haiz ba Gibraltargo Makako arrazakoa, ala?", bota nion bere euskalduntasuna aldarrikatzen hasi zen hamaigarren aldian.

"Baina hi zozua hiz, vasko! Eta zer kristo ajola dio ni Gibraltargo Makakoa izatea, euskalduna izan edo ez izateko? Agian pentsatuko duk hemen hi haizela munduko vasko bakarra, eta vaskorik vaskoena. Edo zer uste duk, nire aitatxi eta amaxiren kantu horiek koplak direla? Bai, aitatxi koplakaria zuan, hortaz zalantzik ez, horrela maitemindu zian amatxi geurea. Baina hi zozua hiz... Hik ez duk esaten beti mendian ibiltzen hintzela, eta mendia gora eta mendia behera, eta mendizalea hintzela?"

"Bai ba! Horixe nintzela mendizalea! Baina, zer ikusteko zeukak horrek hire aitatxi ta amaxirekin?"

"Tximukorotza! Ixil hadi... Hi zein menditan hago ibilita, hire Bizkai aldeko mendimuino horietan, ala benetazko mendietan, nere jaioterri inguruan diren mendietan?"

"Hi, errespetu pittin bat Silver, Auñamendiak ederrak dituk, baina Anboton zeukean bizilekua Marik eta, kontuz gero!"

"Kakitzat, eta kaka Mari horrentzat ere. Hik ba al dakik nor den Gaztarri?"

"Ze-harri?"

"Gaztarri! Ezagutuko duk behintzat Orhi, ezta? Eta Kartxela, ezta? Ba, bien artean zegok Gaztarri, Orhi menditik Kartxelarako bidea eginik aurkituko duk Gaztarri. Erosta mapa bat nahi baduk. Inkulto halakoa. Esziofilo hori!"

"Hi kontuz gero zer esaten doken! Etxakiat esziofilo horrek zer esan nahiko duen, baina bada ezpaga hire amaputa izango duk hori, eta ez eidak azaldu ere egin, hire buztan luze horrekin korbata bat egitea nahi ezpaduk".

"Xomorro gixarajoa... uztak pakean ama, amak guztiak dituk santuak, eta etzakela berriro ahotan hartu edo hire mutur zikin hori txikituko diat. Nik ez nian nire ama ezagutu, baina hik hire aita nor den ez duk sekula jakingo....Tira, Gaztarrin egongo duk oraindik ere borda bat, gure amatxi

zenaren borda zaharra.Tximukumetxo nintzela hantxe eman nituen nire sasorik zorionsuenaK edo sasoi zorionsu bakarrak esan beharko nikek..."

Silvester alua. Beti dauka harrituko nauen zerbait. Silver goitizena du, baina izena Silvestre, ezin egokiago jarria. Gaztarri ez zidan esan ba? Gaztarri deitu behar ere... Eta egia da, mapan begiratu bainuen gero. Ez bainaiz batere fido tximinoetaz, Gibraltargo Makako arrazakoez are gutxiago. Orhitik Kartxelarako bidean Gaztarri... Silver madarikatu hori! ... "Orhiko xoria Orhin laket".

"Ni euskaldun jatorra nauk, vasko. Zer uste duk ba primo vasko? Gibraltargo Makakoa naizelako Afrikatik etorria naizela? Pateran zeharkatu niala nik ere itsasartea? Ba jakin ezak, bizkotxo uger horrek, ni hi baino euskaldunagoa naizela. Eta ez hori bakarrik, ni Europar jatorra nauk, peto-petoa, eta ez hi bezala, batek dakiela nondik ekarri hauten. Noski egun Asia eta Afrikan baino ez dituzula Makakoak. Bo, eta Gibraltar harkaitzean, noski. Baina nik sekulan ez diat Europaz kanporako muga zeharkatu, ez nik ezta nire arbasoek ere. Hik entzungo huen esaldi hori, erromatarren garaian Iberiar Penintsula zuhaitzez zuhaitz zeharka zitekeela lurra ikutu gabe? Eta nork uste duk zeharkatzen ziala ba? Hi bezelako tximu-humano baldarrek? Nire arbasoek, hoiexek zeharkatzen ziaten! Makakoek!"

"Arraioa! Makakoek beraz... Nik pentsatzen nian katagorriek egiten zutela zeharkatu abarrez abar herrialde osoa".

"Ze katagorri ta ze prakagorri! Nire arbasoek esaten diat! Makako zaharrek Europako basoak populatzen zituztenean katagorriak lurretik ibiltzen hituan. Baita kontu handiz ibili ere..."

"Kontxo Silver, bai gauza mordoa ikasten dudala hirekin".

"Baina alperrik duk. Hi kaikua haizelako, motza haiz, garunbera horrek ez dik inongo irakaspenik gordetzen ahal. Ez zegok hirekin zertan nekerik hartu beharrik, sekulan ez duk ikasiko eta..."

Harroa duk Silver: Silvestre madarikatu hori. Badauka harrokeri puntu bat bai. Baina azkarra da, azeria, sugegorria. Nahiz eta ez den William bezalako. William bestelakoa da. Tximu elegantea goitik behera. Goitik behe-rako tarte hori laister ibiltzen den arren bere kasuan, hain tamaina txiki-koa baita... Badauka halako aristokrata aire bat gure txikerrak. Den txikian handia ematen du. Horregaitik deitzen diogu Gullyber: Bere harro izatea ez da batere agerikoa, Silverrena bezalakoa, nabardura txikiz ostaturakoa baino. Harrotasuna harrokeria barik. Silverrek beti ekartzen dit atsotitza gogora: tximuago gorago, uzkia ageriago.

"Bo, ia gabeko hamaikak. Honezkero argi xak zeozer txarra gertatu dala." Ez da normala hain berandu ibiltzea. Ostegunero hemen egoten dira gaueko hamarrak aldera. Beraiei zenbaketa hamarrak hogeit gutxitan egi-ten diete eta, zenbaketa igaro eta berehala alde egiten dute, kaiolatik irten eta honantza lasterka abiatuz. Baina gaur zerbait gertatu zaiela diru-di, hau ez delako batere normala. espero dezagun ezetz, ez izatea ezer ere. Baina urduritzen hasia nago. Diren gaizto eta bihurriekin eta, hala ere, hain gogoko ditut ostegun gauetako egotaldiak. Hiru trukuak. Beraiek baitira oraindik gezur hutsez jositako egiak esaten dizkidaten bakarrak. Ziega hankaz gora uzten didate, bai; dena mugituko dute lekuz; dena zikindu; dena utziko tximukaka eta tximutxiz-usainez; dena nahastuko didate. Eta gazta ez dute probatuko ere, dastatzeko ahaleginik egingo ere. Usaindu bai akaso, usainduko dute. Eta gero bota leihotik behera; edo hormaren kontra (baietz bota gaur Silverrek edo Maiekek horma-ren kontra nire Piladelpiatxoa...); edo gainean kaka egin, azkenengoz Maiekek egin bezala; edo ezta ikutu ere egin, ezta begitu ere, egongo ezpalitz bezala. A! Baina falta dadila gazta... falta dadila egun bakar baten, eta ikusiko duk zer den ona!! Orduan ezagutuko duk zer den tximino bat haserre, edo hiru tximinu haserre. Orduan jakingo duk king-kongen berri. Ederki astindu zidaten larrua bai, aldi hartan, hirurak batera, abuso halakoak, lan koordinatua eta txukuna eginez, erabat eragingarria; dinbi-danba! dinbi-danba! "Narruko ederrak hartu naixoazen bai..."

Eta nik ez dakit nondik datorren gaztaren ohitura hori, noiztik hartu genuen, are gutxiago zer dela eta... Baina gazta egon ezik ez ziren etorriko.

"Han! ... Zer dok hori? ... Baxatozek". Hotsak kanpoan. Atezuan nago leihoan, zelatari. Hor dira azkenik, nire laguntxoak. Hauxe poza! Horma hai-zuki saltatu dute. Oraindik sasoian dira. Bo, Willy aguretxoa da honezke-ro, baina Maiekek eramaten ohi du bizkarrean eta...

"Ireki ezak vasko! Ez diguk sartzen utzi behar ala?". Maiekek bere moz-korti abotsarekin.

"Iheska datozen hiru tximurentzat ez daukak izkutalekurik ala?", Silverrek ziria sartuz beti bezala.

"Nola ez diat izango ba? Sartu-sartu agudo! Sartu behingoan. Badakizue nire leotzeko ateak beti irekiak direla zuentzat".

"Ez geniean besterik behar! Gainera, Maiekek dio gu ere zuen kolektibo horretako partaide garela, ez duk hala Maikel?"

"Ez, ez, nik ez diat hori esan. Nik esaten diat pekoagoak garela. Eta ez lukeela horrela izan beharko, baldin eta gu bagaituk aurrenekoak, gizakia tximinotik datorrenez gero, edo horixe esan ohi da... Baina guk pe bat gehiago zeukeagu, menpekoagoak beraz, eta horixe da nik diodana".

"Ba primeran Maikel, baina ez baduk argiago azaltzen...", esan diot. Baina Maiekek honezkero begirada urruti jarria dauka, eta ez du nire galdera entzun ere egin. Baina berorren bizkarretik jeitsi den Willyk eman dit arrapostu.

"Maiekek esan nahi duena da, zuena EPPK dela, Euskal Preso Politikoen Kolektiboa alegia. Eta gurea Primate Preso Politikoen Kolektiboa. Ez duk hala Maikel?"

"Euskal kolektiboa!" Silverrek ihardetsi. Eta orduan Maikeli begiratu dio, eta ikusirik bere saltsan ari dela (nire alkandora bat janzten ari da momentu horretan, baina praka, edo gona gisa) eta kolektiboaren inguru-an daukagun eztabaidari eta gu geuri ere jaramonik egin gabe dabilela ikusirik, Silverrek esan du "Houston-Houston! Arazoak zeuzkeagu!", eta Maikeli nire txankleta bat jaurti dio burura.

"Zer? A, bai... Primate Preso Politikoen Euskal Kolektibo hori bai... Hik zer uste duk primo?"

"Ba etzakiat Maikel", erantzun diot. "Hausnartuko diat horretaz, zin dagit".

"Ez eik hainbeste zin egin", bota dit Silverrek "zinauste halakoa! Non zegok nire txapela?"

"Eta nork esan dik nik txapela daukatela hiretzat?"

Baina une horretantxe bertan Silverrek nire Piladelpiatxoari erreparatu dio. Eta begitartean jarri zaion irria oso txikia eta oso maltxurra izan da. "Baña zer duk zirin bola hori, primo?", esan eta oinpean zapaldu du nire gaztatxoa, jarraian leotzetik ibiltzen hasi delarik, bere oinaren aztarna ziega osoko lurretik zehar inprimatuz. Maikelek oin-arrasto horietako batera makurtu da, usaindu du, berriz usaindu, eta berehala bizkarra igurtzi eta igurtzi hasi da gazta-patinaje era berri bat asmatuz nire leotzeko lurrean; eta irrifartsu dago, gustora ari da perfumatzen antza denez.

"Tira mutilok, suposatzen da nik gazta ekartzen dudala, eta gero kartetan jokatzeko dugula, eta galtzaileak gazta ordaindu egin behar duela... Eta izatez, berez, gazta lauron artean jateko dela suposatzen da", eta "jateko" azpimarratu dut indar bereziz ahoskatzerakoan.

Silverrek puzkarra bota du, usainik ez zeukana baina Ritcher eskalan zazpitik gora ziur. Maikelek zortziko batekin erantzun dio. Eta hiru tximuak barre algaraka. Nire argudioei eman behar dioten erantzun bakarra hori da antza.

"Egin dezagun jokoan", dio Willyk, "jesar gaitezen mahai inguruan". Une batez pentsagor geratu naiz, neure baitarako esanez "jokoan... jokoan... gaztaixe etzakixat zetako erosten dun bez, baña kartena... hori bai etxoatela ulertzen. Suposatzen da kartetan, txin-txonien, jokatu bidugule, edo bierko geunkela, gaztaixe nork ordaindu bidauen jakiteko. Baña gaztaixe beti nik ordaintzen xoat eta beste inopez. Eta ez da kartetan galtzaile iza-

ten naizelako, presisamente... Kartetan jokatzien kontu hori bai etxoatela ulertzen. Ta eskerrak, hasikeran okerraue zalako kontue. Aurreneko aldixetan jokuen hasi gintzuazuenien, kartak behatzekin hartzen behartute neuen. Pentsaik! Behatzakaz hi... atara kontuek... Nik barajie nahastu, banatu eta ikusten naixoan eurek oinekin jasotzen ebiezela, baina, tximinuek izenda gauzarik naturalena iruditu xatan. Zegokiona. Baina orduntxik ohartu eusten Silverrek:

"Errespetu apur bat hi! Kartak goiko eskuekin hartzea ere... Hik eztaukak inongo begirunerik gero! Kartak anketako eskuekin hartu behar dituk motel. Goiko eskuak purua edo porrua edo nahi dukana erretzeko eta wiskya edateko dituk eta ez kartei heltzeko. Halakorik gero... Zertarako zeudek arauak ba? Kartak beheko eskuekin txotxo!"

Da holantxik esaosten Silvestrek; eta holantxik ekin geuntsen aldi batez. Da eskerrak nik umetatik euki dotela trebezia oinetan eta, behatzakaz edozer harrapetako gai nintzuan, makurtzen ibili barik. Baña nik baxakiat horrek tximinuok zergaitik eittostien oinekin jokatzeko behartu. Ez eskuekin ezer manejetan ibilteko (zoritarrez nire ziegan ez da sekulan puru edo wiskyrik egoten...), baina bai tranpetan neuri eitteko, azpijokuen ibilteko, hor mahaipien sekulako karta trukie ibiltzen ebelako. Tranpati galantok. Ez jokatu sekulan tximinuekaz kartetan. Amarruz beteta xazek. Dana dala, jokatzeko era hori historiara igaro zuan aspaldi. Gaur egun eskuekaz ebatzen duz kartiek. Nahiz ete, egixe esateko, inoz ez dogun partida bat osorik jokatu. Hasi bai, baina amaitu... sekulan bez. Ezinezkie dok. Ez egin jokuen inoz tximinuekaz. Zoratu eingo zaitue."

Nere gogoeta horietatik aterata, esan egin diet:

"Aizue, guk zertan jokatzeko dugu?", galdetu diet kartak mahai gainean brau! jaurretzearekin batera.

"Zertan jokatu?, ba txin-txonean, beti bezala".

"Baina adixkideok, txin-txonean jokatu egiten duk zazpi karta bananduta bakoitzari, eta gero arau batzuk jarraituta. Baina guk ez diagu inongo

araurik sekula santan errespetatzen joder! Nik zazpi kartak banatu, eta hortik aurrera ez zegok txintxonarekin zerikusirik duen ezer; hortik aurrera dena duk katxondeoa putekeria eta azpijokua. Egun hartan bezala, hasarretuta karta guztiak jaso eta zenbatu egin nizkiala, eta 87 karta hil! Eta nik dakidanez nire barajak 40 baino ez zeuzkak. Hemengo marrajoak baino okerragoak zarete gero!"

"Baina vasko, txintxona txintxona duk, motel...", esan dit Maiekek. Eta beste tximu biak lasai asko geratu dira bere ahaideak emaniko azalpenarekin. Baina nire mozolo aurpegiari erreparatuta, konturatu dira ez diodala zentzurik hartu Maikelen ateraldiari.

"Txin-txaun, motel, txin-txaun!", esan du Maiekek ume bat besotan seaskatzeko keinua sutsuki eginez.

"A! Sasikumiok! Os estais columpiando conmigo, no? Neri bazilatzen? Horixe duk beraz... sasikume aluok..."

Eta Silverrek kokoteko bat jo dit, eta burua jiratu dudanean Maiekek zaplaztekoa kopetan. Di-da! Esteroan hi...

"Txin-txauna edo, hire herrian ahoskatzen duten bezala, txin-txona", esan du Willyk. "Ekialdeko kultura horiek ere ez al dute yin-yang esaten ba?"

"Baina etzakiat horrek zerikusirik duen Willy."

Txikia da zarata gutxien ateratzen duena beti, geldiago dagoena, ixilik eta bere tokian. Begi-belarri egoten duk, adi-adi. Beti pentsatzen dut berak manejatzen dituela beste biak, Yoda maisu txiki bat lez.

"Baina Maikel! Horiek tantoak dituk, kristo!"

Txinpantzea Cola-Cao tapako txitxirioak jaten harrapatu dut (garbanzuek arrantxutik, duela hiru hillabete erreskatatu nituen, bandejatik, ostiraletako cocidotik; egosiak omen...), baina, nire oihuari jaramonik egin gabe, Maikel txitxirioak bata bestearen atzetik jaten ari da.

"Ez dik entzun ere egin", esan dit Willyk. "Nik etzakiat, orduan N.A.S.A.koak-eta, espazioa esploratzen hasi hittuanean, zertan bidali zituzten tximu haiek eta Laika harra gora, koittaduek, Maikeli galdetzea zioten, eta diru mordoak aurreztuko ziaten". Eta orduan Maikel jan aleak bukatuta dar-dar deritzon dantzak menpe hartua daukala ikusirik, Willyk abesteari ekin dio:

"Bonbolontena ene laztana, ez egin lorik basoan, azeritxoak koxk egingo hau, haizelako bere ondoan. Bonbolontena ene laztana, ez egin lorik hondartzan, karramarroak koxk egingo hau, haizelako bere ondoan."

Eta orduan bapatean Maiekek itzartuta, "gose nauk primo", esan dit, mozkor abotsez, "ez diat ganoraz afaldu".

"Garbantxuen ostean gazta pittin bat jan dezakek, hortik lurretik zehar hormetatik eta inguru guztietatik zabaldua zegok..."

"Xaguei bakarrik ez, xaguzaharrei ere gustatzen zaie gazta", esan du Maiekek berriz begirada guztiz lausotu aurretik.

"Zer izan duzue afaltzeko ba, Silver?", galdetu dut afariaren gaiari tiraka.

"Betikoa txotxo: fruta eta barazkia. Baina tira, hori fruta eta barazkia baduk ni Klaudia Txifer nauk".

"Txifer-txifer...", Maiekek bere kolkorako esanez.

"Botika gustua zeukak gaur egungo fruta eta barazkiak, ez ala?; esan dut, Silverrekin hasitako berriketaldiari eutsiz.

"Gustua dinok? Etzeukak ezeren gusturik. Edo hik diñokena, botika gustua. Edo kakaputarena. Hori bai, itxura apartekoa, galanta, kanpotik begiratuta ematen ditek Paradisuko fruituak. Baina ahoan sartu eta tximukorotza".

"Espainiak gola sartu dik, Maikel, esnatu hadi...", esan diot.

"Espainiak? Zein Espainiak? Gaur jokutzen zian?

"Herri puta honek etzeukak nondik heldu", esan dut, amorruez eta nazka arteko zerbaitez. "Begiraiek, denak zoriontsu, beraiek irabazten dutenaren halako 500 aldiz soldata potoloagoa jasotzen duen memelo batek gola sartu duelako prentsatzan mundua konpondu dela. Denak anaitu dituk bapatean, preso eta kartzelero, denak anai, zorion unea konpartitzen..."

"Bo, horretan euskaldunak ere antzera zabiltzate", esan du Willyk.

"Hor min eman didak Willy. Etzak konparatu otoi. Botijoak askoz ere kutreagoak dituk. Etzeukak konponbiderik Herri puta honek..."

"Konponbide? Nola izango dik ba?, dio Willyk, "Espainiako bankerurik aberatsenak Botik bazeukak izena... Kristo horrek! Botik deitu behar, hala-
korik... Ez dituk ohartzen. Ez dituk ohartu nahi".

"Zertaz Willy?", erantzun dut nik, Willy txikiak bere kontu interesgarri horietako bat kontatuko digun esperantzaz. "Zertaz ohartu?"

"Zertaz? Ohartu beharrekoaz... Nik bazekiat zerbait botinez, hi gaztea haiz, baina nik bazekiat zerbait botinen gainean".

"Kontaiguk Guillyber, hire botin harrapaketa sasoiak hitz egiguk, vaskoak etzekik eta", esan du Silverrek nire aitak ekarri zidan Montecristo purua piztearekin batera, nire anai txikiaren ezkontzan banatu zituzten puruak, oraintxe bertan nire anai txikia Cuban bertan erretzen ibiliko dena, hain zuzen ere, eztei-bidaian.

"Bai Willy-ttipi, kontaiguk berriz pirata hintzenekoa", dio Maikelek

"Pirata?, aho bete hortz geratu nauk. "Baina nola pirata? Nik uste nian piratak XVII eta XVIII. mendean edo halako garaietan izan zirela".

"Bai, hik uste hian", Silverrek puru kea nire aurpegira botaz. "Baina hi ezjakituna haiz, eta bost ajola ziguk hik zer uste huan. Egon hadi ixilik pixka batean, ahal baduk, eta ikasi ezak".

"Baina Willy, lehengoan ez hidan esan hi indiarra hintzela? Indiar odola huela zainetan? Hi Titi arrazako tximinoa haizela, eta Titikaka aintziran jaio hintzela eta, hain zuzen ere izen hori horrexegaitik zeukala aintzira horrek, zeure arrazakoen aberria izan zelako aspaldi eta... Orduan ea ados jartzen garen, zer hintzan, pirata ala indiarra?"

"Bai motel. Eta egia duk. Ni indarra nauk, Titikaka aintzirakoa. Nire ama beltzarga zuan, aintzirako erregina. Ez duk ikusten nire bular txuri hau ala? Eta nire aita..."

"Baina nola beltzarga?", esan dut sineskaitz itxurak eginez.

"Hago ixilik! Uger hori!, esan dit Silverrek modu zakarrean, egunkari zahar batekin jotzeko mehatxu eginez. Eta horman itsatsirik dudana nire familieren argazkian txistu eginez. "Ahozabal halakoa..."

"Eta Willyk, inongo interupzionik gertatu ezpaltz bezala, edo haserre ez dela erakutsiz, begi goxoz irrifar egin dit, eta keinu bat eginez, parkatzeko Silverri argazkian txistu egitea, aintzat ez hartzeko; nire begikeran une batez piztutako amorru biziaz ohartu dela ere erakutsiz Willy. Dena kontrolpean txikiak beti. Hitzegiten jarraitu du lasai, patxadatsu:

"Nire ama erregina zuan aintziran, aimara indiarra, eta nire aita mapatxea zuan, apatxea, Kotxiseren leinukoa. Erregen odola zeukaat nik zainetan, aitaren eta amaren aldetik. Eta horiek bien gurutzaketatik zeukaat nik nire itxura eder hau, nire bular txuria, eta nire belarri eder hauek".

"Baina apatxeak bizi diren lur igartu horretan ere badira mapatxeak?"

Silverrek bota didan begiradak ikara eman dit, eta berriro Willyren kontakizuna ez mozteko erabakia hartu dut.

"Bai motel, Apalatxe mendietatik hego-ekialderantz jo zuten antzina nire arbasoek, eta Kotxiseren leinuarekin bat egin gero. Hik badakik apatxeek mintzo diren hizkuntza Atabasko familiakoa dela?"

"Arraioa! Atabaskoa beraz...!"

Orduan Maiekek bere katatonikotasunetik aterata, bapatean salto egin du mahai gainera, eta funky estiloan dantza egiten hasi da, rapeatzen ere hasi delarik: "Beltxarga aimara, mapatxea apatxe, Titikaka aintzira, Apalatxe mendia, ta hantxe izan zuten elkartze, gogoa izan zuten hantxe, ta Atabasko ta Atarratze, ez apaletsi gure titi Willy ttipi", eta bere funky dantza elektrikoarekin jarraitu du...

Ezin izan diet eutsi, eta zutitu eta txaloka eta ujuka hasi naiz guztiz hunkiturik: "AUPA MAIKEL! HORIXE DOK JANTZAN EITIE TXOTXO! Hori dok estilue hori Jakson! BIBA HI!!!!" Horrelakoxe gauzak ditu batzutan gure txinpantzeak.

"Banekien nik Willy, aitorren semea haizela, agerikoa duk hori", zuzendu natzaio Willyri berriz, gure belarrien gozagarri hizketan jarrai dezan. "Nik ez diat hi bezalako tximu fin eta eleganterik sekula aurkitu. Baina oraindik ere parkatuko didak, baina, kosta egiten zaidak sinestea beltxarga batek eta mapatxe batek, zera... ba... horixe... umea egin dezaketenik..."

"TXIMUTX!", oihukatu du Willyk, berea ez zirudien ahots edo lehoi orru bat atereaz, eta halako begitarte ikaragarri bat jarritz non oiloipurdia jarri zaidan. "Tximutx", berriz ere, baina oraingoan lehunki ahoskatuz. "Ba al dakik tximutxa zer den?"

"Eta ni oraindik erdi ikaturik, "ba... Etzakiat ba, Willy... Tximutx, tximutx, bai... Tximu hutsak gaituk, denok lehengusu, zuek hortxe, primateen gunehorretan, ni hemen, primateen beste gunehonetan... Tximu hutsak gaituk... Ez duk hori?"

Irrifar fina jarri du Willy ttipik oraingoan. Ez Silverrek jarri didan irria bezala. Mespretxuz begiratzen dit makakoak. Harroa duk sasikumea. Willy ezetz esaten dit begiradaz, ez dudala asmatu, eta bere irrifartxoak berriro saia nadin gonbitea egin dit, asma dezadala beste erantzun bat.

"Hiztegi entziklopedikoan begira nezakeen, baina norbaitek Philadelphia gaztaz bete zidak, eta... bo, bai... ongi da, begiratu diat... Bai hemen zegok: "Tximutx. iz. zool. Muszikapidoen familiako hegazti paseriformea. Oso isats luzea dute eta arrek oso bibote beltz nabaria dute. Asiako eta Europako hegoaldeko leku zingiratsuetan bizi dira (Panurus biarmicus)."

"Ados Willy, touché. Ikaragarria haiz ttipi".

"Kar-kar-kar!", hiru tximuak nitaz trufaka. Beraz, tximutxa hegazia da. Orduan zergaitik ez da izango Willy beltxarga baten semea... auskalo... agian egia ari zait esaten.

"Bai Willy, ados, baina hi kontatzen ari hintzen pirata ibili hintzela, eta hori bai ez diatela sinisten. Hi laurotan zaharrena haiz, baina ez hain zaharra piraten sasoia bizitzeko beste".

"Piraten sasoia? Zein duk piraten sasoia? Burlankasterren filmeetakoa? Errol Fliñena? Barkatuko didak berriro ere gazte, baina hi tximu humanoa izateko nahiko maila eskasa erakusten ari haiz. Etzakiat espetxe honetan barik, gurean ez bahuen egon beharko..."

"Bai, amari esan zioat, behin baino gehiagotan txantxetan, behar bada egunen baten hona etorri bisita egitera eta ez nautela aurkituko, eta Bilbora esku hutsik itzuli baino lehen, bada ezpada joateko primateenera ia bertan naukaten galdetzeraz".

"Primate-Enea, Primate-Enea da gurea..." Maiekek bere baitarako.

Willik jarraitu du berriketan.

"Piraten sasoia gaur egun duk txotxo. Inoiz baino harroago zebiltzatek. Ez al dituk iksuten egunero telebistan-eta? Eta ez nabilek Errol Fliñen fil-meetaz".

"Ni gazte nintzela ikasi nian Titikakan nabigatzen, baina laister aintzira osina bihurtu, txiki egin zitzaidan, eta, itsasora jo nuen. Eta itsasoratuta hamaika bazter ezagutu ere. Sullivanekin elkartu nintzen arte. Hura bai gizona! Antilla prantzesetan aurkitu nian, Martinikan. Hangoak bai emeak! Hura toki ederra, hango rona... Bai, ni Sullivanen sorbaldan igota zeharkatu dizkiat itsasoak, eta hamaika barrabaskeria egin genian. Baina ohorea bagenian. Eta lepoa jokoan jartzen genian, geure lepoa, ez beste gixarajo batzuk bidalita. Eta hamaika botin eskuratu genian aberatsei kenduta. Baina, gaurko itsasoan... arrazoa daukak, etzegok piratarik. Egungo piratak limusinetan ibiltzen dituk. Itsasoa laster basamortua bezain antzua gera-tuko duk. Ohartu haiz oraingo hauteskundeetarako nola baliatzen ari diren "Prestige"-n hondamendiaz? Denek aterramendua atera nahiz. Batzuk dena garbi dagoela esanez, dirutxuen dizdiratan. Besteek dena zikin dagoela. Baina hor etzegok aterramendurik. Hondamendia honda-mendia duk. Zeruko ikurrak irakurtzen ahaztu zaie primate humanoei, eta ez hituan ohartu petroliuntziaren izenaz... eta orduan erakutsi behar zuten mailaren adierazgarri zela. Izan zitean aukera gauzak txukun egiteko baina... dena kakaztu. Orain bai, joan hadi antxoa bila bai..."

"Arrazoi osoa daukak Willy", esan diot. "Ni kalte izugarri gertatzean lais-ter jabetu ninduan itsasontziaren izenaz".

"Bai, kokolo hutsa haiz, beti ere, baina, tira, oraindik ere batzutan bai, asmatu egiten duk. Horrexegaitik egiten diagu hiri bisita. Bo, horregaitik eta gaztarengaitik, jakina. Gaztazaleak gaituk laurok eta..."

"Jakina, jakina... Milesker William".

"Joan hadi popatik hartzera"

"Baita".

Eta horrela jarraitu dugu orduak agortuz, hizketaldian, kontu kontari. Eta konturatu orduko goizabarra heldu da. Maikel lotan da. Willy Sullivanekin ibilitako sasoiko kontuak esaka zela, kontatzen ari zitzaigun bizpahiruga-rren abenturan lo geratu da gure txinpantzea, olatuen binbilikan, bergan-tinaren txintxaunean, burua nire altzoan jarririk. Silver eta biok nire oha-tzean jezarririk gaude, bere beso fin eta iletsua nire lepo gainetik pasatu-rik besarkatuta nauka makakoak ere, eta hor gaude, hormari edo, ezere-zari begira... Willy ere lotan bezala da, Silverren altzoan.

Bapatean ernetu naiz, berandu dela konturatuz. "Mutilak! Alde egiteko ordua duzue", esan diet. Goizeko zenbaketarako lekuan egon beharko duzue".

Baita hi ere.

*Nire taldekide, kaiolan diren tximu orori
eta maite nauten guzti horiei eskeinia.*

*Villabonako isolamenduan
2005-06-20*



Peru Alvarez Fernandez de Mendi

1973

Gasteiz

2001. urtetik espetxean.



C. P. Monterroxo
27560 Monterroxo
Lugo

Trobar-te

Miro de trobar-te
a les paraules infinites
que poden travessar distàncies
dalt de nuvols viatgers.

Miro de trobar-te
al silenci d' aquestes nits llunyanes
on la pluja s'escampa

Miro de trobar-te
al somriure profund i ample
que em treu la fredor del cor
que em marca el camí.

Pampallugues

Torno a sentir la buidor
de la distància
el terratrèmol de sensacions
mentre les vivències del passat
bloquegen el meu cap
boirós.
Petites interferències
que fan pampallugues
al mig del camí.

Cabòries

Camines per un túnel
on abans hi havia passamans
de diferents mides i colors
heterogenis i també plans.

Ara tens la sensació
que en queda només un.
El privilegi de sentir-te perdut
i, a més, sol.

El passadís continua sense llum
de tant en tant, petites allucinacions de colors
però tu mateix t'encarregues
de trencar les bombetes.
No hi pots trobar la capsa dels invents.
I el passadís ara
s'ha omplert de fantasmes.

Aïllament

Els ulls tancats tracten
de travessar les parets blanques
d' on pengen
teranyines de somnis atrapats
que volen volar.
Alguns d'ells s'esmunyen
per les escletxes
i es fan ombra de núvols
i es tornen llum entre boira.

Zurbano

Vol condemnar-nos a patir
el món de la foscor
robar-nos el cor
dels avantpassats,
una il·lusió sense colors.
La terra dels nostres avis i àvies
menjada pel progrés
desenvolupament
futur en blanc i negre.
Aquest asfalt tètric
fereix el somriure
però mai apagarà la ràbia.

Somnis

Sommio despert
a la lluna plena
mentre la distància
em fa enyorar
aquells dies tendres de somriures infinits.

Els ulls tancats
no poden aturar
l'allau de records que vessa
el més profund
dels sentiments.



Joseba Sarrionandia Uribe Larrea

1958

Iurreta

1980an kartzeleratu egin zuten eta 1985eko San Fermin egunean Martuteneko espetxetik ihes egin zuen. Ordudanik erbestean bizi da.

Pinguinoak

Ai, kolonia lagunok, ez genuen ia
ezertan azartatu,
Naturaren eta sasoiaren bultzadei
amore eman genien.
Eta emandako lekuan higatu ginen
beti, amildegi ertzean
elkarrekin, intimitaterik gabe, bata
bestearen kontra,

itsaso gehiago eta lur zati gehiago dela
haintzat hartu gabe,
izotz loreen gainean eseri, haizearen mihi
goibelei entzun,
eta itsasoari begiratu beste zereginik
ez genuela..
Hantxe zegoen beti hodeiertzean
zoriaren lebitazio iluna.

Baina bata bestearekiko begirada
lateralez
lotu ziren gure fatuak, ondoez,
damuz, etsipenez.
Denak bat ginela eta, ez ginen deus
egiteko gauza izan,
Ez genion gure arteko inori utzi
hegats egiten.

Ikaroren erorketa

Poema bat aukeratu behar banu Musée des Beaux Arts deitzen den
W.H. Audenen poema hori aukeratuko nuke,
Pieter Brueghelen Ikaroren Erorketa komentatzen duena, non Ikaro
irudi txiki ia ikusezina baizik ez den
uretara erortzen. Sufrimenduari buruz, maisu zaharrek arrazoia zuten
-dio W.H. Audenek-
beste guztiak jaten edo leihoa zabaltzen edo paseo aspergarrian
ari diren artean gertatzen da.
Dena apartatzen da, dena pasatzen eta aldentzen da lasai,
oharkabe bezala, desastrearen lekutik.
Inoren bizi minak ez du beste ia inor jotzen. Besteen
zauria ez zaio ia inori ardura.
Poema ingelesak koadro flandriarra komentatu zuen, flandriar
koadroak elezahar grekoa eta
elezahar grekoak auskalo zer: leihora agertu eta begira nago
Ikaroren erorketaren zain.
Hemendik ondo ikusiko litzateke, lainoak ipar alderantz mantso
eta axolagabe doazen artean.
Erortzen bada, hegatsak teilatueto antenak joko dituzte,
posteak ere arriskutsuak dira hegatsentzat.
Beste guztiei sufrimenduan laguntzeko gauza bagina ez genuke
bizi ahal izango,
baina Ikaroren zain nago eta ahaleginduko naiz laguntzen,
bere hegale apurtuen zatiak bilduko ditut
eta aterpea emango diot, ni erori nintzen bezala eroriko denean,
oilaskoaren moduan.

Ibai zabala eta luzea

Ez da Danubio, Niger edo Mississippi deitzen,
baizik eta Ibaizabal.
“Ene etxea ez da isila eta nik ez dut zaratarik egiten,
--esan omen zuen arrain batek XI mendean—
ene etxea baino arinagoa naiz, baina bera badoa
eta ez da gelditzen,
ni ez naiz etxetik irteten, hil egingo nintzateke
bestela...”

Nik, oster, etxetik irten eta ibaia abandonatu
behar izan nuen,
Hori antzina gertatu zen, ibaia lurgorritz eta herdoilez
zamatuta pasatzen zela,
eta arrain hilez, hiriaren erdi erditik. Erreka zikina,
eta geroago eta zikinagoa gainera
Papelera Espainolaren aldamenetik dena bitsa
eta aparra bihurtzen zenean.

Ibaia ibarrean behera luzatzen zen itsasorantz,
bazterrean hazten ziren
edifizioen eta bestaldean eraikitzen ziren zuhaitzen
ispilu lohia.
Muturra uretan sartzen zuen idi nekatuak bere buru
adarduna ikusiko zuen. Eta nik ere
hantxe ikusi nuen ene burua, ertzeko harrietan
kukubilko, bekoki odoldua xukatzean...

Guzi hori urrun eta antzina gertatu zen. Eta urrunduez gero
ez ninduela aurkituko pentsatu nuen.
Hala hobeto, aurkituko ez banindu, ez ninduen
hainbeste bustiko.
Baina, ustekabean, ibaia barruan sentitu nuen,
zaila da zehaztea zelan sartu zitzaidan
ibaia barrura, edan nuen baso ur hartan zegoen akaso
ibaiairena punta.

Jadanik ez dakit non hasten den ez non amaitzen,
baina ene barrutik pasatzen da.
Hain urrun eta hain aspaldikoa, oraindik ere ur lohiz
bustitzen nau
eta ez dut esango estua eta laburra denik, ez,
ez dut berriro egundo esango.

Geroago eta barrurago sartu zitzaidan eta orain
bihotzeko zainetatik ere pasatzen zait,
zain lodi eta mehenetatik. Harriputzuetako uharriak
borobildu,
ur uher guziak bildu eta ene baitatik pasatzen da,
bustitzen nauen ibaia,
barrutik lotu nahi nauen soka lez, oso astiro pasatzen zait
bihotzetik, ez dakit norantz.

Urkatuaren balada

Ondo egin dezakezu zeure obra horrela, orpotik lotuta,
hagatik buruz behera zintzilik,
Ez zaudela gustura? Ez da hain txarra osasunarentzat,
odola hobeto ibiliko zaizu soinean.

Gauak bere sehaska kantarekin eragin eta, pasatzen den
jendeak bultzadatxoak emango dizkizu.
Ondo egongo zara, mozoloak bezala, sudurraz
lurra usaintzen.

Buruz behera zintzilik, hotzez dardaraka eta buruko
minez zaudela?
Haize hotzak txirula jotzen badu zure hezurretan
egin dantza bildurrik gabe.

Ez da ematen duen bezain aldrebesa zure egoera,
bizitza horrelakoa da.
Izan baikorra, gupida guzien oskorriaren testigantza
emango duzu.

Lehen baino hobeto zaude orain, soka oinean eta
eztarria libre duzula.
Ez badakizu ere, giza minetik sortzen da artea. Asma ezazu
urkatuaren balada.

Urkatuaren balada

--Where would you like to be right now?
--In Durango.
--Where is that?
--Far away.
--Durango, Durango, Durango, it sounds to me..
--It's very far away.
--I get it, I saw it on TV. There is desert
there, isn't?



Oscar Barreras Diaz

1974
Bilbo

1997. urtean atxilotu eta espetxeratua.



C.P. Castelló
Carretera de Alcore, Km. 10
12006 Castelló

Legokioken horri, orori

Zinez:

Bada posible nor bere gorputzetik ateratzea. Neuk lortu izan dut, bitan, arestian; eta hirugarren batez lortuko dudalakoan nago, aurki.

Emakumezko batekin larrutan nenbilela lortu nuen lehendabizikoz.

Emakume hau kasualitatez ezagutu nuen. Hor nonbait, honek hemen ez du garrantzi handirik. Atsegin hartu nuen unean bertan. Ederra zela emakumea, hori begi-bistan. Ene ustekaberako eta lehenengo gaztaro hon-darretan galduriko ausardi mutiritsuenaz baliatua, hitzordu antzeko zer-bait galdegin nion, zezelka. Eta berak baietz, totelka. Ahalke bezain hera-be hiru-lau aldiz ikusi genuen elkar, dela kafetxo hartzeko dela zinemara joateko: ohizko burokrazi soziala. Azkeneko igarobidea gainditzeko guran, etxera afaltzera gonbita egin zidan. Heldu zen eguna eta afaldu genuen, bapo. Eta ohean amaitu ere, gero. Hau bai emakume ederra! bere gorputzaren lar jabea. Ona izan zen gau hura, biok ala biok majo gozatu genuen eta. Ezustea bigarren sexu gauean ailegatu zen, alabaina. Lehenengo gaua dibertigarri xamar izanda ere, lehenengoa zen, eta han beti dira ezezagupen zein nerbixu nazkagarriak, gozamina mugatzeko kapazak. Hortik gau batzutara ohean topo egin genuen berriro, baina, ene etxean orduko hartan, eta hori bai gau gogoangarria. Hor ez ziren nerbixuen baldarkeririk ez lotsaizunik, denak aurreko gauean gainditurik. Eta biok gozatzeaz ganera, elkar gozatzeari ekin genion, neurrigabe irrika osoz. Sutan aurrera, izerditan hatsalbo.

Larrutan geldigabe tarte ederra ibili ostean, eta geroxeago berriro goza-menari kemen osoz ekiteko hatsa berreskuratzearen zioaz atsedean bitar-te hartzen ari ginenean, jakina, erretzaileek zigarrotxoari heltzeko balia-tzen duten txolarte horretan geundenean, emakumeak jolas berri bati ekin zion. Neu ohean zilibotaz gora nintzela eta hura ene aldamenean paraturik, esku iaio zein aho gozoarekin ene gorputza aztertzen hasi zen. Bere ezpain eta mihi bero heze horrekin bularra miazkatzen eta xurga-

tzen zuen patxadatsu, nik uste ongi neurturiko tartekaz ikaragarritzko zirrara sortzen zidaten ausikitzoak emanez, anartean haren eskuek sabe-laldea laztantzen zutela oroimenean ongi gorderik ditudan zentzumen urriko baina sentikizun apartako marrazkiak irudikatuaz. Ordurako neu arras erlaxaturik nintzen, aurreko uneko arnasbeharrak arnasketa man-tso eta sakona bilakaturik. Oharkabea, eskuak, laztan leuneko marraz-kitze horretan setatsu murgilduaz, ene iztaian ziren, eta handik zakil-mokora zuzenean, hitzez azaldu ezinezko jolasean. Halere, gaurko hone-tan hitzez azaltzen saiatu beharrean nago. Hatzamarrek zakila ferekatzen zuten, danek batera etengabe, zakil-mokoa soilik hatz-mamiek ikutzen zutela. Laztan samurak, delikatuak geldigabeko mugimendu arinean. Hain arina non azalaren milimetro bat ez zen bere laztan ezti barik geratzen ezta segundu batez. Sekulako plazerra, hura. Inoiz ezagutu ez nuena. Eta neuk, noski, gure gorputzak sentsazio berriren bat ezagutzen eta nozi-tzen duen bakotxean jokatzeko ohi dugun legeaz jokatu nuen. Haurtza-roko bezalako ilusio jakingura larriarekin begiratzen nuen gertatzen ari zitzaidan berri hori guztia baita, batera, ezezagunarekiko beldurak dara-gigun zuhurtziarekin ere. Zorabio leunak nozitzen hasia nintzen ordura-ko, garunatik aldendua ene odol guztia hankartean biltzen ari zela komentzitua. Zurbil sumatu nuen ene bisaia, ezpainertzetik hari fina ler-dea zeridalarik. Su gorritan zegoen zakilean, alta, zirriek kili zarrada sor-tzen zuten, pixkanaka hedatuaz zarrada horrek gorputz osoa astindu zuen arte. Bihotza eta zintzurrestea estutzen zitzaizkidan, oso; arnasa erregularra eta gero eta sakonagoa zen, baina. Halere, neu ito aginean nintzelakoan nengoen. Plazerrak gainhartua, izuak jota nengoen. Lagunari gelditzeko nahi nion esan, agindu beharra neukan; baina ez nintzen ausartzen aldi berean, plazer hura gelditu eta betiko galtzeko beldurraz. Bular aldean zegoen ahoak ene gorputz beheara egin zuen, motel, sabe-laldera heldu arte, sentibera baino sentiberago zegoen azalean miazka-dak eta ausikitzoak dohaintzen. Eta plazerra gora eta gora, ezinezkoa bazirudien ere. Eta neu neureak egin zuela ustetan. Tira, hala bada, hala bedi, pentsatu nuen nik, gozamen hura azkeneraino eramateko guran. Zapaldu gabeko paradisu basatia deskubritzen duenaren poz eta beldur berberarekin. Bat-batean eta lehertzeko aginean zegoen sumendia ema-ten zuen ene gorputza lehertzeaz zegoenean, zorabio jasakaitzarik jasan-garriena pairatu nuen. Zakilatik hasita eta gorputz osora zabaldua, azala

giharretik banantzen zela sentitu nuen, argindar bulkadak jasaten banituen legez baina minik gabe, plazer soilez. Azala nabaritzeari utzi nion. Entzumena galduta nuen. Eta ikusmena ere. Begiak zabal-zabalik ez nuen ezer ikusten, dana zuri-zuria zen, ene begien aurrean dana idazteke duen orri zuri distiratsua bailegoan. Eta jarraian dana baltz-baltza, iluntasun uki-garria, ene begi aurreko orri horren gainean milaka aldiz dana idatzita gero zuriune bat bera ere geratu ez bailitzan. Eta ostera zuria, geroxeago baltza... dantzalekuetan dauden aldizkako argi erogarri horien modukoa. Baina han ez zen erotzerik, dana zentzuko eta senezko ordenean zetzan. Nahiz eta nik ezer ulertu ezin.

Memento hartan jazo zen jazoera, lehenbizikoz.

Tupustean, inork edo ezerk soinetik tiraka bailebilzkidan sentitu nuen bostpasei aldiz, azkeneko tiraketa pairatu arte. Tiraketa bortitza izan zen azkeneko hura, begiak itxiaraziz bertigo larria sortua. Begiak berriro zabaltu nituenean ene gorputzetik at nengoen jada.

Lehenengo aldi hura oso motza izan zen, baina, nagusiki nere beldurra zela kausa. Hasiera batean ez nitzen izutu, nekusana ikusi ez baizik eta ene irudimenak eragindakoa zela sinistuta. Han ginen neska eta biok, ohean etzan, berak albokera neu etengabe ferekatzen eta xurgatzen ninduela lar artez, eta neuk buruz gora intzirika eta gorputza dardara batean neure bizitzako isuriketarik ikaragarri eta biziena izaten nuela. Hori guztia goiko ikuspegitik irudikatzen nuelarik, garabi batetik grabatutako filme porno bateko eszena ikusten ari bainintzen. Baina bat-batean izuak hartu ninduen. Derrotean, zergaitia ez nekiela, nekusana irudimenatik haratago zihoala ulertu nuen, gorputzetik at nengoelaz ohartu nintzen. Une horretan nahigabe, senezko erreazioaz-edo berriro gorputzaren barnean egotea desiratu, gorputzera lehenbailehen itzultzea gutiziatu nuen. Tira, pentsatu eta egin, arinago ezin.

“Gorputzetik atera naun”, esan nion arnasa berreskuratu nuenean. Gogobeteko irrinoaz erantzun zidan berak, esandakoa haren trebetasunari lausengua baizik ez zela pentsatua, bide. Berbaz saiatu nintzaion

azaltzen gertatutakoa, baina erraza ez zen, ba neuk ulertu ezin nuena berari azaltzea.

Azalpen trakets saioek aurki grazia galdurik, emakumea aspertzen hasia zen eta honela esan zidan bere irrino kokin eder hori berragertzen zitzaiolarik: “Beno ba, izan hadi esker oneko mutila eta atera nazak neu oraintxe”. Ulertarazteko era bakarra horixe zela konprenitu nuen unean bertan. Eta horri ekin nion, adorez. Han dagokigunerako interesgarri suerta daitekeen aldaketa jazo zen nigan, hori ez baitzen ene ohiko egikera. Uler nazazue, gaztetxoa ez naiz xamarreko aspaldian eta denborarekin, urteen poderioz, bizio-joerak hartzen dira sexu kontuetan. Hasieran hain ezaguna eta menperatua dudan moduan ekin nion, historian zehar ospe xumeenarik ez, hor nire agenda lekuko, baina erraz aski betekizuna gauditu ahal izateko koponkera eman didana. Neska pixkanaka erlaxatzen zen, arnasa gero eta adigarri zein sakonagoa zela. Ederki berotzen hasia. Handik gutxira, ostera, serio larrutan murgilduak, nere ohizko erritmoa aldatu zen, nabarmen. Ene moxu-miazkadak bestelakoak ziren; eskuak eta gerria, oinak eta burua, finean gorputz osoa bere kabuz mugitzen zen ene ganorari ihes zegoen jakindura lortu bailuen. Ardura barik onartu nuen berrikuntza hori, ez dazagudan hizkuntza batez jarduten naizen ametsetan legez. Batzutan, lotan nagoela halakoa gertatzen zait, ezustea hartzen dut arras ulergarri eta senezko solasaldiak izaten ditudala arrotzatatzat edukitako hizkuntzan. Halan bere, hori nolatan den posible ene buruari galdezka hasi eta ametsa zapuztu orde, berezko bidea egin dezan jaregin ohi dut burua, biharamunean ulergaitz oso izango dudana solasaldiaz gozatzen eta harritzen mementoan. Ba, honetan berdin jaregin nuen soina, fereka eta higadura horiek non demontre ikasiak izango nituen galdetu barik, emakumearen gorputza behetik gora eta goitik behera aztertzen, zirrikiturik txikiena ere astinduarazi, zirrarazi gabe geratzen ez zelarik. Bion plazerrak goitik tontorrera egiten zuela, batera.

Orduantxe jazo zen jazoera, neuretzat bigarrenagoa zela, neskarentzat lehendabizikoa.

“Ze arraiio izan da hori?”, itaundu zidan arnasa bereskuratzeko, beldur beste haserre, besoekin bultzaka neu bere gainetik aldentzen, erasotzen edota gaiztokeriren bat egin izan bainintzaion. “Gorputzetik atera haiz, ez besterik. Lasai hadi”, esan nion baretzeko guran edo, hori guztia zertan zetzan jakin bainekion, “guztiz normala dun beldurtzea, neu ere xamar beldurtu naun eta”. Ez, ez, azaldu zidan berak, ez zen gorputzetik ateratzea beldurtu ziona, alderantziz baizik, laket handiz hartu baitzuen irtenaldi hori; baina larrutan zebiltzan gure gorpuei begira zegoela han kanpoan norbait gehiago berari beha bailegoan nabaritu zuen. Orduan bai beldurrak hartu. Lasaitzeko esan nion, berriro, berarekin bat hor kanpoan zegoena neu nintzela eta. Eta egia da, holan izan zen ba. Hasierako unean atazaren helburua bera gorputzetik ateratzea izan arren, neu atera nintzen berriz ere. Nolatan ez dakidala, tamalez. Neska baino lipar batez lehenago atera nintzen. Neu atera eta gutxira, logelako goikaldetik oheratz begira nengoela mugimendu bat sumatu nuen eta aurki konprenitu: neska zen, bere gorputzetik ateratzen. Egia esanda, berez, nik ez nekusan ezer, han ez zegoen ukitu zitekeen ezer materialik; baina neska bere gorputzetik irteten ikus nezakeen. Han zegoen neska, sabaiako bestaldetik oheari begira, nik berez ez nekusan aurpegian harridurazko keinua nekusala. Ahoa bete hortz, adina begietan malko. Haren baretasuna eta poza ikusuezinezko izpien bidez gela osora, mundu osora hedatzen ziren. Eta han neu ere, bera bezain bare, alai horrenbeste. Baretasun eta pozaz aparte, jakinturia nabarmenduko nuke. Horrela sentitzen nintzen, bare, poz eta munduko jakintza guztien, unibertso egi ororen jabe. Horrela sentitu eta, halan bere, neure burua jakintza hori guztia neureganatzeko kapaza ikustean, irrigarri eta ezbeharrezkotzat jo nuen ezagutzea, horren beharrik ez neukala jada. Han nintzen, nekusan baina ez nekusan neska eder eta xarmantgarrienaren alboan, inoiz espero izan ez nintekeen zoriontasun osotasunean murgildua. Gozatzen ari nintzen plazerraren aldean ñimiñoa, ezdeusa begitantzen zitzaidan behekaldeko gure gorputz astun eta ezigauzek nozitzen zutena. Paradisurik ederrenean egon ostean paradisu horren postaltxoa ikustean nozitu behar den antzekoa. Bat-batean, oster, aldaketa suertatu zen nekarengan, poza eta baretasunetik egonezin eta beldurrera igaro baitzen berehala. Orduan itzuli zen gorputzera, ziztuan. Neu ere izutu nintzen memento hartan. Han bakarrik

ikustean, behin neskaren zorionaren izpiak aienatuta gero dana ilun goibelenetan geratu bailitzan, hegaldia horiek alde ederrak gain alde zakar eta arriskutsuak izan zitzaketeela susmatzen hasi nintzen. Biziki izutua nengoen ordurako, lehenbiziko ateraldian baino askozaz ere gehiago. Eta ene burua behartu gabe ia, itzuli nintzen gorputzera instant batean.

Behin hau guztia adierazita, emakumearen jarrera berriro aldatu zen, segituan, umetxoek jarreraz aldatzen duten gisara. Udako euri zaparrada lege, heldu eta alde egin berehalaxe; oraintxe goibel oraintxe garbi, ba neska berdin, bai bulartsu bai beldurti. Berriro gorputzetik kanporako txangoa egin nahi zuen berak, hori bere gogo eta desira bakarra, horri ekiteko eskatzen zidan behin eta berriz, suhertasun biziz. Baretzen aritu nintzaion. Orain neu izuak hartuta, kontuz ibiltzeko esaten nion. Ateraldi horiek ukan zitzaitekeen arriskuez hitz egiten saiatzen nintzaion, biontzat berria eta arras ezezaguna zen bidean aurrera jo baino lehen informazioa bilatzeko beharraz. Geuk lortu bagenuen, aurretik beste pertsonak lortu behar zuketena, eta beharbada haiek onurako aholkuak eman liezizkiguketela. Alferrik, baina. Berak kasurik ez eta Galileok Lurra Eguzkiaren inguruan biratzen zela defendatzean apazek begiratzen ei zioten bezala begiratzen zidan emakumeak, guztiz asaldaturik, eskuak ezin geldi, haserre xamar: “Kakamerke hori”, esan zidan azkenean, garraxika, “utz astakeriak eta has hakidan txortan!”.

Jaunandereok, saia zaitezte ene lekuan jartzen, nolatan desobeditu hola-ko agindua, ba? Bere nahia bete besterik ez nuen. Baita gustura bete ere, esan beharrik ez. Baina neu ez nintzen guztiz erlaxaturik, ezta hurrik eman ere. Ekin eta bultza larrutan txonboturik ginela, ene bigarren ateraldian susmatu nuen txango horien alde ilun eta arriskutsua buruan bueltaka neukan, ezin ahanztzia. Horrela ez zegoen egiterik. Halere, ia bi egun eta bi gauz larrutan geldigabe ibili ginen. Bigarren gauerako biok ala biok geunden ahituak, apenas elikatzeke geratzen ez ginen eta.

Neska komunera joateko geldiune egin genuela, loak hartu ninduen, sakon. Lo ikustean etsiturik edo, etxetik alde egin zuen, eni ezer esateke, atean danbatekoa agur bakarra utziaz.

la beste bi egunez lo egin ostean, bere kusa atera nintzen kalera, familia, lana eta gainontzeko mundu guztiak zegoeneko batere axola ez zidala. Mila eraz saiatu nintzen berarekin harremanetan, eleberri beltzetako detektibe endekatsu bat legez haren aztarnen atzetik ibilita. Alferrik, tamalez.

Nitaz ez duela ezer jakin nahi bere lagun batek esan dit azkenekoz, ene eite etsi penagarriaz errukituta edo. Hortik dabilela iparra arras galdua, lagun horren ustetan, bere aurretik igarotzen den guztia, berdin neska zein mutila, zahar eta gaztea ohera eramaten; gorputzean gaizkingarra sartua baileraman, lagunaren berbetan, su hori itzal dezanaren bilatze sutsuan.

